



*Bizkaiko Indarkeria  
Matxistaren Behatokia  
Observatorio de la **Violencia**  
Machista en Bizkaia*

**TXOSTENA**

**EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA  
MATXISTAKO EGOERETAN**

**EMANDAKO LAGUNTZAREN ZIFRAK**

**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAN**

**GIZARTE-ARRETAREN ARLOA**

**2024**



## 1. kapitulua

### GIZARTE-BABESAREN ARLOA

---

Kapitulu honen helburua da indarkeria-egoerak (bikote-harremanean, familia barruan edo/eta sexu-indarkeria) jasan izanik gizarte-babesaren arloan eskaintzen diren baliabideetara jotzen duten emakumeen oinarritzko ezaugarriei buruzko informazioa handitzea, zenbait galderari erantzuten saiatzeko: Gero eta laguntza gehiago eskatzen al zaie erakundeei? Zer ezaugarri dituzte zerbitzuak erabiltzen dituzten emakumeek eta nola aldatzen dira denboran zehar? Nola eskuratzen dituzte baliabideak? Aldundiaren edo erkidegoaren baliabideetan aldeak nabari al dira, erabiltzaileak bizi diren udalerriri dagokionez? Zenbat adingabek jasotzen dute arreta baliabide horien bitartez?

2024. urteko datuez gain, urteen joanean aldagaien bilakaera zein izan den ere adierazten da, Behatokia 2004an sortu zenetik bildutako datu-multzoak aukera ematen duen neurrian, eta hala, epe horretan egindako gogoetekin, zerbitzu publikoen erregistroetan kasu horien intzidentzian zenbait joera ikusi ahal izateko.

Hurrengo orrialdeetan, honako hauei buruzko informazioa jasotzen da: harrera-baliabide espezifikotako erregistratutako kasuak, aholkularitza juridikoa eta arreta psikologikoa, sexu-indarkeriaren biktimei arreta integrala ematea, gizarte- eta hezkuntza-alorreko esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala, eta genero-indarkeriaren biktimei adin txikikoetan espezializatutako esku-hartzea. Halaber, diru-laguntzen (Lege Integraleko 27. art.), etxebizitza-laguntzen eta telefono bidezko arreta espezializatuaren **(900 840 111)** arloetarako EAEko baliabideetan artatutako Bizkaiko emakumeen datuak ere ematen dira. Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei izanik enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda duten eta DSBE jasotzen duten emakumeen kasuei buruzko informazioa ere ematen da, Lanbidek emana.

Kapitulua ixteko, genero-indarkeriaren biktimei diren atzerriko emakumeentzako aldi baterako bizileku- eta lan-baimenari buruzko informazioa ageri da. Informazio hori Genero Indarkeriaren aurkako Gobernu Ordezkaritzak eman du.



## 1.1. HARRERA

### Testuingurua eta egoera orokorra

**Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzkoak**, genero-indarkeria jasaten duten emakumeek gizarte-laguntza integrala jasotzeko duten eskubideari buruzko 19. artikuluan ezarritakoaren arabera<sup>1</sup>, emakume horiek eskubidea dute *“arreta, larrialdi, babes eta harrera, eta sendabide osorako zerbitzuak izateko”*.

Era berean, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak — **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea**—, martxoaren 3ko 1/2022 Legeko 1. artikulua ezarritakoaren arabera, honako hau dio: *“Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten administrazioek (...) emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimak guztiei bermatu behar diete katalogoan eta sistema horren prestazio eta zerbitzuen zorroan jasotako zerbitzuak ematea, haien beharren arabera eta berehalakoan, haien egoera administratiboa edozein dela ere (...)”*, eta zerbitzu horien artean sartzen da harrera, epe laburrera, epe ertainera, bai eta epe luzera ere (56. artikulua).

Zorro hori eta bere prestazio eta zerbitzuetara heltzeko eskakizun, irizpide eta prozedurak **urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak** arautzen ditu, zeina **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa** baita. Hor barruan sartzen dira etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako harrera-etxeak, berehalako harrera-zerbitzuak eta egonaldi ertaineko harrera-zentroak.

Lehen xedapen gehigarrian, araudi horrek indarrean eusten dio **irailaren 11ko 148/2007 Dekretuari, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituenari**. Dekretu horrek erregelamenduz ezartzen ditu EAEko lurralde-eremuaren barruan etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeei zuzendutako harrera-baliabideak (titularitatea edozein izanik ere) bete behar dituzten gutxienezko kalitate- eta funtzionamendu-baldintzak.

Dekretu horrek honela sailkatzen ditu harrera-baliabideak:

- **Berehalako harrerako zerbitzuak:** egonaldi laburrerako, eguneko 24 orduetan daude eskuragarri, urteko egun guztietan. Etxeko tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeei

---

<sup>1</sup> 2015ean, adingabeak ere genero-indarkeriaren biktimak gisa hartu ziren. Uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duenak, (BOE, 2015/07/23) aldatu egiten du genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 1. artikulua; hala, genero-indarkeriaren biktimak izan diren emakumeen seme-alaba adingabeak ere indarkeria horren biktimatzat jotzen dira.



berehala egiten diete harrera, haien premiak baloratzeko beharrezkoa den aldian, baliabiderik egokienera bidali aurretik.

- **Harrerako pisuak, egonaldi ertain edo luzerako:** etxeko tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen aldi baterako babes-eskariei eta ostatu-eskariei erantzutea dute helburu.
- **Harrera-zentroak, egonaldi ertain edo luzerako:** indarkeria jasan duten eta esku-hartze espezializatu integrala behar duten emakumeei babesa eta behin-behineko ostatua eskaintzeko baliabideak.

Bizkaiko Lurralde Historikoan, Foru Aldundiak nahiz hainbat udalerrik eta mankomunitatek dute harrera-zerbitzuen titularitatea. Baliabide horietako batzuk duela zenbait hamarkada eratu ziren, eta beste batzuk, aldiz, nahiko berriak dira. Foru-erakundeak berehalako harrera-zerbitzu bat kudeatzen du; zerbitzu horrek Bizkaiko Lurralde Historiko guztia hartzen du, eta egonaldi ertaineko beharrei erantzuteko zentroak, harrera-pisuak eta, kasuren batean, arreta integrala eskaintzeko zentroak ere barne hartzen ditu. Udalerriek eta mankomunitateek kudeatzen dituzte azken horiek.

Hurrengo taulak baliabide horien azken urteko erabilerari buruzko datu orokorrak jasotzen ditu.



1.1 taula. Indarkeriaren biktima izan diren emakumeen harrera Bizkaian: baliabide espezifikokoak (etxebizitzak, zentroak), eskaera artatua eta erabiltzaileen ezaugarriak. 2024

|                                               | BALIABIDEAK       |               | ARTATUTAKO PERTSONAK <sup>(1)</sup> |           |                            |        |        | EMAKUMEEN EZAUGARRIAK                              |                                    |                         |                                   |
|-----------------------------------------------|-------------------|---------------|-------------------------------------|-----------|----------------------------|--------|--------|----------------------------------------------------|------------------------------------|-------------------------|-----------------------------------|
| ERAKUNDEA                                     | BALIABIDE<br>Kop. | PLAZA<br>Kop. | PERTSONAK<br>GUZTIRA                | EMAKUMEAK | SEME-<br>ALABA Kop.<br>(2) | ALABAK | SEMEAK | BIKOTEKIDE/<br>BIKOTEKIDE<br>OHIAREN<br>INDARKERIA | BESTELAKO<br>INDARKERIA-<br>KASUAK | ATZERRIAN<br>JAIOTAKOAK | DESGAITASU-<br>NEN BAT<br>DUTENAK |
| BFA BEREHALAKO harrera <sup>(3)</sup>         | 1                 | 24            | 325                                 | 190       | 134^                       | 70^    | 64^    | 157                                                | 33                                 | 126                     | 6                                 |
| BFA EGONALDI ERTAINEKO harrera <sup>(3)</sup> | 1                 | 26            | 24                                  | 9         | 15^                        | 10^    | 5^     | 9                                                  | 0                                  | 9                       | 1                                 |
| ABANTO Y CIÉRV.-ABANTO ZIERB.                 | 1                 | 5             | 8                                   | 5         | 3                          | 1      | 2      | (')                                                | (')                                | (')                     | (')                               |
| AMOREBIETA-ETXANO                             | 1                 | 4             | 1                                   | 1         | 0                          | -      | -      | 0                                                  | 1                                  | 0                       | 1                                 |
| ARRIGORRIAGA                                  | 2                 | 10            | 7                                   | 3         | 4                          | 3^     | 1      | 3                                                  | 0                                  | 1                       | 0                                 |
| BARAKALDO                                     | 1                 | 16            | 38                                  | 17        | 21                         | 12     | 9^     | 16                                                 | 1                                  | 11                      | 0                                 |
| BASAURI                                       | 1                 | 6             | 0                                   | 0         | -                          | -      | -      | -                                                  | -                                  | -                       | -                                 |
| BILBO                                         | 11                | 53            | 76                                  | 33        | 43^                        | 22^    | 21^    | 32                                                 | 1                                  | 28                      | 0                                 |
| DURANGO                                       | 1                 | 5             | 11                                  | 5         | 6                          | 0      | 6^     | 5                                                  | 0                                  | 3                       | 0                                 |
| ERMUA                                         | 1                 | 4             | 2                                   | 2         | 0                          | -      | -      | 2                                                  | 0                                  | 0                       | 0                                 |
| GALDAKAO                                      | 1                 | 5             | 0                                   | 0         | -                          | -      | -      | -                                                  | -                                  | -                       | -                                 |
| LEIOA                                         | 1                 | 5             | 4                                   | 3         | 1                          | 1      | 0      | 3                                                  | 0                                  | 1                       | 0                                 |
| SANTURTZI                                     | 1                 | 5             | 4                                   | 2         | 2                          | 2      | 0      | 2                                                  | 0                                  | 1                       | 0                                 |
| SESTAO                                        | 2                 | 4             | 2                                   | 1         | 1                          | 1      | 0      | 1                                                  | 0                                  | 1                       | 0                                 |
| BUSTURIALDEKO Mank.                           | 1                 | 5             | 3                                   | 1         | 2                          | 2      | 0      | 1                                                  | 0                                  | 1                       | 0                                 |
| ENKARTERRIKO Mank. <sup>(1)</sup>             | 1                 | 5             | 4                                   | 2         | 2                          | 1      | 1      | 0                                                  | 2                                  | 2                       | 0                                 |
| LEA-ARTIBAIKO Amark.                          | 1                 | 3             | 0                                   | 0         | 0                          | -      | -      | -                                                  | -                                  | -                       | -                                 |
| MUNGIALDEKO Mank.                             | 1                 | 6             | 4                                   | 3         | 1                          | 1      | 0      | 1                                                  | 2                                  | 3                       | 0                                 |

<sup>(1)</sup> 2024an, taulako baliabideetan hartutako pertsona guztiak emakumeak eta haien seme-alabak dira. Mendekotasuna duen pertsona heldu bakarra sartu zen erabiltzailearekin batera BFAko Berehalako harrera-zerbitzuan.

<sup>(2)</sup> Ia guztiak adingabeak dira. Zenbakiaren ondoan ^ sinboloa agertzeak esan nahi du adinez nagusia den seme-alabaren bat dagoela.

<sup>(3)</sup> Kasu berriei buruzko datuak. Berehalako Harreran, 370 pertsona izan dira guztira (216 emakume, 153 seme-alaba eta mendekotasuna duen pertsona heldu bat). Egonaldi Ertaineko Harreran, 43 pertsona izan dira guztira (19 emakume eta 24 seme-alaba).

(') Ez daukagu daturik.

Iturriak: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila (foru-zerbitzuen datuak). BLHko udalak eta mankomunitateak (gainerako datuak). Guk egina.



## 1.1.1. Bizkaiko Foru Aldundiaren Zerbitzuak

### 1.1.1.1. Berehalako Harrera

#### Zerbitzuaren ezaugarriak

Bizkaiko Foru Aldundiaren Berehalako Harrera Zerbitzuak ostatu ematen die indarkeria matxistaren biktima izan diren emakumeei, haien seme-alabei, eta haien ardurapean dauden pertsona helduei ere bai.

Laguntza ematen duten langileak ditu eguneko 24 orduetan, bai eta diziplinarteko talde bat ere. 2024an, gutxienez 21 profesionalek osatzen zuten talde hori (Zuzendaritzaren eta Koordinazioaren alorreko langileak, eta Gizarte Lanaren, Psikologiaren eta Gizarte Hezkuntzaren alorreko langileak).

Zerbitzuak **24 plaza** ditu, urtean erregistratutako eskaerari behar bezala erantzuteko.

#### Eskaera artatua


2024an, **GUZTIRA 370 pertsona** artatu ziren Foru Aldundiaren Berehalako Harrera Zerbitzuan: **216 emakume**, haien **153 seme-alaba eta mendeko 1 pertsona heldu**.

Hiru kasuetan, beren serieetako **zifra handienak** izan dira 2004tik.

2023. urteko datuekin alderatuta, emakumeen kopurua %26 hazi da. Epealdiaren hasierako ikuspegia zabalduz, 2024ko zifrak 2004an hartutako erabiltzaileen bikoitza gainditzen du.

Aztertutako urte guztietan, aldiaren hasieratik 2020ra arte, zerbitzu horren eskariak gorabeherak izan ditu, eta, beraz, igoerak eta jaitsierak izan ditu. Urte horretatik aurrera, hainbat aldiz igo da erabiltzaile-kopurua. **2024an, laugarren urtez jarraian, maximo berri bat erregistratu da.**

Urtero gertatzen da zerbitzua erabili duen emakumeren batek behin baino gehiagotan itzuli behar izatea (baita haien ardurapean dauden pertsonak ere), haien etxebizitza- eta segurtasun-egoera ezin izan delako konpondu beste bide batzuetatik. 2024an **6 emakume sartu ziren berriro zerbitzuan**.



Iturria: BFAren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

2024an hartutako emakumeek **153 seme-alaba** dituzte, ia denak adingabeak (150): 78 neska eta 72 mutil. Batez besteko adina sei urte izanik, gehienek (% 73,3) ez dute bederatzi urte baino gehiago. Azpimarragarria da, ohi bezala, **erdiak inguru (% 47,3) haur txikiak direla (0-5 urte)**.

2004. urtetik zenbatzen hasita, ikus daiteke **4.000 pertsona** inguruk erabili dutela Bizkaian gertatzen diren larrialdi-egoerei erantzuteko zerbitzu hori. 2024ko datuak adierazten du azken 21 urtean 2.200 emakumek baino gehiagok erabili behar izan dutela zerbitzu hori Bizkaian.

**1.2 taula. Berehalako Harrera Zerbitzuan artatutako pertsonak (BFA). 2004-2024**

|                | 04         | 05         | 06         | 07         | 08         | 09         | 10         | 11         | 12         | 13         | 14         | 15         | 16         | 17         | 18         | 19         | 20         | 21         | 22         | 23         | 24         | GUZT.        |
|----------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|--------------|
| Emakum.        | 98         | 87         | 103        | 108        | 102        | 86         | 55         | 69         | 93         | 81         | 63         | 97         | 94         | 90         | 105        | 112        | 105        | 131        | 155        | 172        | 216        | 2.222        |
| Seme-alabak    | 80         | 64         | 60         | 74         | 73         | 68         | 45         | 74         | 79         | 70         | 43         | 74         | 82         | 70         | 100        | 85         | 82         | 96         | 111        | 119        | 153        | 1.702        |
| Beste batzuk   | *          | *          | *          | *          | *          | *          | 1          | 0          | 1          | 0          | 1          | 0          | 0          | 2          | 3          | 1          | 4          | 1          | 0          | 0          | 1          | 15           |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>178</b> | <b>151</b> | <b>163</b> | <b>182</b> | <b>175</b> | <b>154</b> | <b>101</b> | <b>143</b> | <b>173</b> | <b>151</b> | <b>107</b> | <b>171</b> | <b>176</b> | <b>162</b> | <b>208</b> | <b>198</b> | <b>191</b> | <b>228</b> | <b>266</b> | <b>291</b> | <b>370</b> | <b>3.939</b> |

**Beste batzuk:** Erabiltzailearekin batera sartzen diren mendeko pertsona helduak. Datua 2010ean jaso zen lehen aldiz.

**Oharra:** Aztertutako aldiaren zenbateko osoari dagokionez, gogoan izan behar dugu balitekeela emakume berak zerbitzua urte desberdinetan erabili izana.


Iturria: BFAren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

## Egonaldiaren iraupena

2024an, Berehalako Harrera Zerbitzuko egonaldiaren **batez besteko iraupena 32,8 egunekoa** izan da. Epe horretako **bigarren baliorik handiena** izan da; 2004ko lehen urte horrekin alderatuta, egonaldiaren batez besteko iraupenak ia 28 egun egin du gora.

Baliabideko egonaldiaren batez besteko iraupenak **goranzko bilakaera** izan du 2004-2014 hamarkadan, lehen urtean bost egunekoa izatetik, 2014an 21 egunekoa izatera igaro baita. Hurrengo urteetan, behera egin du pixkanaka, eta batez beste hamar egunekoa izan da. Datu horrek erakusten du hobera egin duela 2014arekin alderatuta, eta, aldi berean, egonaldiak azterketa-aldiaren hasieran baino luzeagoak direla egiaztatu da.

Adierazle horren bilakaerak erakusten du Zerbitzu horretara iristen diren **kasuak gero eta konplexuagoak direla**, eta indarkeriari lotutako arazo gehiago ere izaten direla; era berean, ikusten da **arreta-sistemak zailtasunak** dituela harrera-premiei jarraipena berehala eskaintzeko, beste erakunde edo arreta-eremu batzuen eskumeneko egoitza-baliabideen bidez. Testuinguru orokor horri, pandemiaren testuinguruan aplikatutako neurri murriztaileak gehitu behar zaizkio 2020an; horren ondorioz, funtzionamenduaren eta koordinazioaren ohiko dinamikak aldatu dira, eta horrek bide eman dio egonaldiak luzatzeari, urte horretarako grafikoan ikus daitekeen bezala (24 egun). 2021ean, plazak gehitu ziren zerbitzuan (15 izatetik gaur egungo 24 izatera igaro zen); urte horri dagokionez, informazio partziala baino ez dago (urtarritetik abuztuaren 16ra), eta, beraz, datuak ezin dira alderatu (marra etenez daude markatuta). Azken hiru urteetan (2022-2024), egonaldien batez besteko iraupenak goranzko joerari heldu dio berriro, eta urtero **hilabeteko egonaldia gaingitu da**.




**Oharra:** egonaldien batez besteko iraupena kalkulatzeko, urte batean izandako altak hartzen dira kontuan. 2021eko datuak 01/01etik 08/16ra arteko aldiari baino ez dagozkio, eta, beraz, marra eten baten bidez daude adierazita.

**Iturria:** Bizkaiko Foru Aldundiaren datuetan oinarrituta egin da. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.



## Indarkeria mota eta erasotzailearekiko harremana

Zerbitzuko kasu gehienetan, **bikotekideak edo bikotekide ohiak** eragindako indarkeriaz ari gara: **guztira 182 emakume (% 84,3)**, eta, horietatik, 157 kasu berriak dira. Kasu ia guztietan (107 emakume) erasotzailea emakumearen gaur egungo bikotekidea da, ez bikotekide ohi.



Iturria: BFAren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila.

Familia barruko indarkeria jasan duten 18 emakumek erabiltzen dute Zerbitzua, eta denak dira kasu berriak.

Sexu-indarkeria jasan duten emakumeen beste 16 kasu zenbatu ditugu (aipatutako esparruetatik kanpo); horietako 15, 2024an hasi dira zerbitzuan.

## Erabiltzaileen ezaugarriak (kasu berriak)

Orain, **2024ko kasu berrien** ezaugarri nagusiak aurkezten dira, eta epealdi osoan aldagai desberdinek izandako bilakaerak ere bai, indarkeria mota kontuan hartuta.

### Bizi den udalerria


Erabiltzaileak Bizkaiko **30 herritan** bizi dira; herri horiek mota askotakoak dira biztanle kopuruari dagokionez (5.000 biztanletik beherako udalerriak daude, bai eta 50.000 biztanletik gorakoak ere), bai eta Lurraldearen barruan duten kokapenari dagokionez ere. Ezaugarri horiek errepikatu egiten dira urtero artatutako eskarian.

Hamarretik zazpi (% 73,2) 20.000 biztanletik gorako udalerri batetik dator; erdia inguru (% 44) Bilbotik.

## Banaka edo familian sartzea


2024an, erabiltzaileen % 40 seme-alabekin iritsi da zerbitzura. Umeak gehienetan **adingabeak** dira, amaren adinarekin eta bizi-zikloarekin egokitzen den datua, iristen diren emakume gehienak (% 67,4) 40 urtetik beherakoak baitira.

Bilakaerari dagokionez, era horretako *familiako sartzearen* pisua hazi egin zen banakako sarreraren aldean 2011. urtera arte, ia etenik gabe, eta mailarik altuenera iritsi zen: erabiltzaileen % 67 seme-alabekin iristen da. Hurrengo urteetan behera egin zuen, eta 2016 eta 2021 artean kasuen erdian egonkortu zen. Harrezkero, pisua galdu du, eta 2024an aldiaren hasierako datuak lortu ditu.



\*2021eko datuak 01/01etik 08/16ra bitartekoak dira soilik.  
 Iturria: BFAren datuak oinarritzat hartuta egin. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila

Familiaren tamainari dagokionez, erabiltzaileen erdia baino gehiago (% 55,3) seme edo alaba batekin sartzen da zerbitzuan; % 28,9, birekin; eta % 15,8, hiruarekin edo gehiagorekin. Familia ugarien kopuru hori urtero ageri da zerbitzuaren erregistroan, oro har kasuen % 10 baino gehiago izaten baita.




\*2021eko datuak 01/01etik 08/16ra bitartekoak dira soilik.

Iturria: BFAren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

## Adina

Zerbitzu honen ohiko ereduari jarraikiz, 2024an, Larrialdi Zerbitzua erabili zuten emakumeen adin-talde nagusia **40 urtetik beherakoena (heldu gazteak) da: ia hamar erabiltzailetik zazpi** (% 67,4) adin horretakoak dira.

Serie historiko osoan lehen aldiz, % 70etik behera jaitsi da, beste talde batzuen pisu erlatiboa handitu baita, bereziki 41 eta 50 urte bitarteko tartea, aurreko kasuen laurdenera hurbiltzen dena.



Oharra: 2021eko datuak 01/01etik 08/16ra bitartekoak dira soilik.

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarritzat hartuta egina. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.


Taldearen batez besteko adina 35 urtekoa da. Adierazle hau oso egonkorra da, aztertutako aldi osoan 32 eta 35 urte bitartean kokatu baita.

Horrez gain, beste urteetan bezala, emakumeen adin-tartea zabala da, kasu honetan 18 urtetik 73 urtera artekoa.

## Jaioterria

Erabiltzaile berrien % 66,3 atzerrian jaioak dira (126 emakume), eta % 33,7, EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaioak (64 emakume).

Aurreko txostenetan adierazi den moduan, 2004tik aurrera **profilaren banaketa aldatu egin da** aldagai horri dagokionez. Atzerritar jatorriko erabiltzaileen bolumena handitu egin da balio absolutu eta erlatiboetan, eta bat dator beste taldeko eskariaren beherakadarekin. 2007tik, atzerriko emakumeen ehunekoa handiagoa izan da, urte batean izan ezik.



Oharra: 2004 eta 2005eko datuek "nazionalitatea" adierazten dute; eta 2006koek eta hortik aurrerakoek, berriz, "jaioterria". 2021eko datuak 01/01etik 08/16ra bitartekoak dira soilik.

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarritzat hartuta egina. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila

Eskara sendotu izanak argi erakusten du, Zerbitzuak artatzen dituen larrialdi-egoeren aurrean, beharrezkoa dela berehala harrera-baliabide bat erabiltzeko aukera izatea.

2024an atzerrian sortu eta zerbitzua erabili duten emakumeen jaioterriari dagokienez:

- Aztertutako kasuak Afrika, Amerika, Asia eta Europako **24 herrialdeetatik** datoz.
- Kontinenteei erreparatuz, Amerikatik etorritako emakumeen taldea (% 52,4) da ugariena. Beste guztiei dagokienez, % 37,3 Afrikako herrialdeetatik iritsiak dira; % 7,9 Europako herrialdeetatik, eta gainerakoak Asiatik (% 2,4).
- Geografia-eremuen arabera, ordezkapenik handiena **Latinoamerikak** du (% 52,4), eta bigarren postuan **Magrebeko** herrialdeak daude (% 35).
- Herrialdeen arabera, ugariena **Maroko**, (% 25), **Kolonia** (% 12) eta **Aljeria** (% 10,3) dira.

Horren haritik, baliabideak erabiltzeko eskubideari eta erakundeen esku-hartzeari dagokienez hizkuntza ez jakitea oztopo izan ez dadin, 2008tik **itzulpen-zerbitzua eskaintzen da 50 hizkuntzatan baino gehiagotan, telefono bidez nahiz aurrez aurre**. Izan ere, harrerako zentroetan eta/edo Indarkeria Matxistatik Babesteko eta Familiei Laguntzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren Zerbitzuak eskaintzen dituen zuzeneko esku-hartzean sor daitezkeen premiei erantzutea da helburua.

2024. urtean, Berehalako Harrera Zerbitzuan, hizkuntza hauetan behar izan da interpretazioa, hala telefono bidezkoa nola aurrez aurrekoa: **arabiera, bulgariera, frantsesa, ingelesa, errusiera, urdua eta wolofera**.

## Behar espezifikokoak

Eskura dauden datuen arabera, erabiltzaileen % 15,8k desgaitasun- eta/edo adikzio-egoeren ondoriozko **behar espezifikokoak** ditu.

Desgaitasunari dagokionez, hain zuzen ere, urtero erregistratzen dira desgaitasun mota bat edo gehiago dituzten erabiltzaileak. Zer alditako informazioa dugun kontuan hartuta, 2015. urtea nabarmendu behar da zifra absolutu eta erlatibotan. 2024an artatutako emakumeen artean sei kasu daude, eta horietako bi kasutan adikzioak ere badaude.

**1.3 taula. Desgaitasunen bat duten emakumeak, Berehalako Harrera Zerbitzuan (BFA). 2012-2024.**

|                | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021* | 2022 | 2023 | 2024 |
|----------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|-------|------|------|------|
| Emakume-kop.   | 4    | 3    | 6    | 9    | 18   | 5    | 9    | 8    | 10   | 14   | 8     | 4    | 13   | 6    |
| Erabiltzaile % | 5,8  | 3,2  | 7,4  | 14,3 | 18,5 | 5,3  | 10,0 | 7,6  | 8,9  | 13,3 | 10,0  | 2,6  | 8,3  | 3,2  |

Oharra: Kasu batzuetan, erabiltzaileek desgaitasun mota bat baino gehiago izaten dute. Kasu batzuetan, adikzioekin batera agertzen da.

\*2021eko datuak 01/01etik 08/16ra bitartekoak dira soilik. 2022tik aurrerako datuak kasu berriei buruzkoak baino ez dira.

Iturria: BFaren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila.

Nabarmendu beharra dago horrelako kasuetan desgaitasunak edota adikzioak eragindako beharrek baldintzatu egiten dituztela esku-hartzea eta terapia. **Baliabideak planifikatzen diren** une beretik, beharrezkoa da kontuan hartzea emakume horien behar espezifikokoak; horrelako kasuek dakartzaten berezko oztopoak eta ereduak ezagutu behar dira, esku-hartze ahalik eta arrakastatsuen egiteko lagungarriak izan daitezkeen praktikak edo zerbitzu-modalitateak ezarri ahal izateko.

## Egonaldi ertaineko harrerara edo antzeko zerbitzuetara igarotzea

Zerbitzu horretako egonaldia bukatu ondoren, beharrezkoa den kasu guztietan, epe ertaineko baliabideen bitartez luzatuko da harrera; baliabide horiek aldi baterako etxebizitza-beharrak asetzea dute xede. Bizkaian, Foru Aldundiak eta udalek epe ertaineko baliabideak eskaintzen dituzte; udal-baliabideak Bizkaiko udalek eta mankomunitateek mantentzen dituzte.


Era berean, posible da ostatua ere eskaintzen duten arreta komunitarioko beste foru-zerbitzu batzuetara edo BFAren beste zerbitzu batzuetara igarotzea.

2024an, **hamar erabiltzailetik ia lauk (% 37,5)** foru- edo udal-baliabide horien modalitatearen bat erabiltzen jarraitu behar izan zuten; guztira, 81 emakumek. Era berean, egoera luzatu egin zen urtean zehar amekin berehalako harrera-zerbitzuan egon ziren 37 seme-alabentzat (36 adingabeak).

Gehienak **foru-zerbitzuetara igarotzen dira (% 88)**, bereziki ostatua ere eskaintzen duten arreta komunitarioko zerbitzuetara (% 82) eta, neurri txikiagoan, egonaldi ertaineko zerbitzura (% 5) edo BFAko beste zerbitzu batzuetara (% 1). Gainerakoa udal-baliabideetan birkokatzen da (% 12), gehienak Bilboko Udalak kudeatutako baliabideetan. Izan ere, lurraldearen biztanleria-egitura kontuan hartuta, urtero Foru Aldundiaren Berehalako Harrera Zerbitzuan sartzen diren emakume gehienak Bilbon bizi dira.

Grafikoak aldi baterako harreraren edo antzeko zerbitzuetan jarraitu behar duten erabiltzaileen ehunekoaren bilakaera erakusten du. 2006an, 10 erabiltzailetik 2 soilik (% 22) igaro ziren aldi baterako harrera-baliabideetara. Serieko baliorik txikiena da, eta ez da berriz errepikatu; izan ere, urte horretatik aurrera ia ez da % 30etik jaitsi, eta hasierako balio hori bikoizten zuten uneak ere izan dira (% 54 2020an).

Bilakaera horrek agerian uzten du **prozesuko fase bakoitzean sortzen diren beharrianetara egokitutako egoitza-baliabideak eduki behar direla.**



\*2021eko datuak 01/01etik 08/16ra bitartekoak dira soilik.

Iturria: BFAren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila.

### 1.1.1.2. Epe Ertaineko Harrera

#### Zerbitzuaren ezaugarriak

Bizkaiko Foru Aldundiak egonaldi ertaineko egoitza-zerbitzu bat du, bazterketa-arriskuan edo -egoeran dauden eta/edo babesik gabe dauden eta esku-hartze espezializatu integrala behar duten indarkeria matxistaren biktimen, haien seme-alaben eta mendeko pertsona helduen babes- eta ostatu-eskaerei erantzuteko.

2024an, honela dago osatuta Epe Ertaineko Harrera Zerbitzua:

- > 26 toki, emakumeentzat eta haien ardurapean dauden pertsonentzat (gutxi gorabehera, 10 toki emakumeentzat eta 16 haien ardurapean dauden pertsonentzat).
- > Laguntza ematen duten langileak eguneko 24 orduetan.
- > 17 profesionalak osatutako diziplina anitzeko talde profesionala (gainbegiratzea eta koordinatzea, psikopedagogia, lege-aholkularitza, gizarte-hezkuntza...)

Foru Aldundiko Berehalako Harrera Zerbitzutik (sartzen diren emakume gehienak zerbitzu horretatik datoz) edo udaletako gizarte-zerbitzuetatik bideratzen dira sarrerak; azken kasu horretan, Bizkaiko Foru Aldundiaren Indarkeria Matxistatik Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak indarkeria matxistagatiko babesgabetasun-egoeraren balorazioa egiten du aurrez.

#### Eskaera artatua

Urtero, aldi baterako bizilekua behar duten emakumeak iristen dira Epe Ertaineko Harrera Zerbitzura (kasu berriak); aldi berean, aurreko urteetan sartutakoek ere baliabide edo zerbitzu horietan jarraitzen dute bizitzen (lehendik dauden kasuak); bakarrik edo seme-alabekin, bai eta ardurapean dituzten beste heldu batzuekin ere.

2024an, foru-erakundeak **43 pertsonari** eman zien arreta harrera-modalitate horretan: 19 emakumeri eta 24 seme-alabari (22 adingaberi). Ia erdiak kasu berriak dira: bederatzi emakume sartzen dira urtean zehar (% 47,4).

1.4 taula. Epe Ertaineko Harrera Zerbitzuan artatutako pertsonak (BFA). 2024.


|                          | Guztira   | Kasu berriak | Aurreko kasuak |
|--------------------------|-----------|--------------|----------------|
| <b>Pertsonak guztira</b> | <b>43</b> | <b>24</b>    | <b>19</b>      |
| Emakume kop.             | 19        | 9            | 10             |
| Seme-alaba kop.*         | 24        | 15           | 9              |
| Mendeko pertsona kop.    | 0         | 0            | 0              |

Kasu berriak: 2024an sartutakoak; Aurreko kasuak: 2024/01/01 baino lehen sartutakoak.

\*22 adingabe (14 kasu berri)

Iturria: BFAren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila.

Honako grafiko honetan ikus daiteke etxebizitza-zerbitzu honetara iritsitako **kasu berrien** bilakaera. 2022ko datuak ezin dira alderatu<sup>2</sup>, aldaketak izan baitziren zerbitzuaren konfigurazioan eta testuinguruan, eta horrek eragina du zentro- eta plaza-kopuruan. Horrekin batera, kontuan hartu behar da **beste foru-zerbitzu batzuk** jarri direla abian, eta zerbitzu horiek testuinguru komunitarioan jarduten dutela eta **ostatu-laguntza** hartzen dutela barnean. Horietara bideratzen dira lehen egonaldi ertaineko zerbitzuan artatzeko modukoak ziren kasuak. Horrela, biktimen premiei ematen zaien erantzuna dibertsifikatu egiten da, eta beste estaldura bat eman dakieke egoitza-sarrerarik behar ez duten kasuei. Horrek guztiak azaltzen du datuak zergatik ez datozen bat. Txosten honetan grafikoari eustea erabaki da, **egungo testuinguruaren aurrekariak** islatzen baititu –eskariaren goranzko joerarekin plano horretan–.



Oharra: 2022ko datuak ezin dira alderatu, aldaketak izan baitziren zerbitzuaren konfigurazioan eta testuinguruan.  
 Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarritzat hartuta egina. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.


## Egonaldiaren iraupena

Indarkeria-egoeraren ondoriozko esku-hartze espezifikoak bukatutzat jo ondoren, emakumeak foru-zerbitzuan emango duen denbora honako baldintza hauen arabera izango da: nahikoa diru-sarrera izatea (dela lanagatik, dela gizarte-laguntzengatik) eta haren etxebizitza-beharrek asetzen dituen etxebizitza bat izatea. Aipatu beharra dago hartutako emakumeen egoera ekonomikoa gero eta prekarioagoa dela; izan ere, gero eta gehiago, diru-sarrerarik ez izateaz gain, ordaindu beharreko zorrak ere izaten dituzte.

Emakume etorkinen kasuan, harrera-zerbitzuen erabiltzaileen artean gero eta gehiago izanik, baliabide ekonomikoak eta etxebizitza eskuratzeko beste hainbat arazo sortzen dira. Izan ere, etorkin izate horren ondorioz, maiz, biktimak bizi duen indarkeria-egoera are kalteberagoa bihurtzen da, eta harrera-baliabideetan aterpetzeko denbora luzatzea beharrezkoa bihurtzen da.

<sup>2</sup> 2022ko eta 2023ko datuak ezin dira alderatu, ez aurreko urtekoekin, ez haien artean. 2023ko eta 2024ko datuak, aldiz, alderatu daitezke beren artean, baina ez aurreko urtekoekin.

2024an, egonaldiaren batez besteko iraupena **bederatzi hilabete eta erdikoa izan da (286 egun)**. Aurreko atalean azaldu diren Zerbitzuaren konfigurazio-aldaketen ondorioz, 2022ko datuak ezin dira aurreko urteetakoekin alderatu. Hala ere, testuinguru gisa, adierazlearen ibilbidea erakusten duen grafikoa mantentzen da. Datuen arabera, bada urtebete baino gehiagoko egonaldia egin izan duena (2015).



**Oharra:** kalkulua egiteko, egonaldia erreferentziako urtean bukatu duten kasuak hartu dira kontuan. Iturria: BFAren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

Ondoren, 2024an harrera-modalitate honen bidez artatu diren bederatzi **kasu berrien** ezaugarri nagusiak aurkezten dira.

### Indarkeria mota

2024ko erabiltzaile berri guztiak **bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeriaren** ondorioz sartu dira.

### Familien egitura

Zortzi erabiltzaile **seme-alabekin** sartu dira: 1ekin (% 50); 2rekin (% 25); edo 3rekin edo gehiagorekin (% 25).

### Erabiltzaileen ezaugarriak


#### Adina

- % 44k ez du 30 urte baino gehiago. Gehienek **40 urte baino gutxiago dituzte (% 78)**.
- Batez besteko adina 34 urte da. Urteetan zehar, adierazle horren balioa 24 eta 36 urte bitartekoa izan da.

- Amekin sartzen diren adingabeei dagokienez, urtebetetik beherako haurren kasuak erregistratu dira, guztira 17. Taldearen batez besteko adina zortzi urte da. Adin-tarteak kontuan hartuz gero, erdiek baino gehiagok (% 57) ez dituzte bost urte baino gehiago.

### Jaioterria

2024an sartutako bederatzi emakumeak (**% 100 atzerriko herrialdeetan jaiotakoak dira**). Berehalako Harrera Zerbitzuan bezala, atzerriko jatorria duten erabiltzaileak nagusi dira epe ertaineko harrera-modalitatean (aurreko ataletan bezala, aldagaiaren banaketa irudikatzen duen bilakaera-grafikoa mantentzen da).



Iturria: BFAren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila.

Urteko datuen arabera, % 67 Magrebetik (Maroko) dator. Gainerako ehunekoa, Afrikako eta Latinoamerikako beste herrialde batzuetakoa da.

**Interpretazio-zerbitzua** –telefono bidezkoa, eta batez ere, aurrez aurrekoa– gero eta beharrezkoagoa da etxebizitza-zerbitzu hauetan egiten diren esku-hartzeetarako; izan ere, gora egin du **hizkuntza-oztopoak** dituzten emakumeen kopuruak. Zentroetan dauden emakume horiek interprete bat behar izaten dute zentroan bertan, astean hainbat egunetan, itzulpenaren bitartez zentroko lanbide arteko taldeak egiten duen lana ahalbidetzeko. 2024an, interpretazio-zerbitzuak **arabieraz** eman dira.

## 1.1.2. Harrera Baliabide Espezifikoak udalerrietan eta mankomunitateetan

### A. Erakundeak, baliabideak eta tokiak

Bizkaian, Foru Aldundiak lurralde osorako eskaintzen dituen zerbitzuez gain, zenbait udalerri eta mankomunitatek ere egoitza-baliabide espezifikoak dituzte indarkeriaren biktima diren emakumeei eta haien ardurapean dauden pertsonen laguntzeko, **eta xede horretarako bakarrik**.

2024an, **28 harrera-baliabide espezifiko** daude Bizkaian, **16 erakundek** eskaintzen dituztenak (12 udalek eta lau mankomunitatek), lurraldeko herritarren % 71rentzat<sup>3</sup>. Aurreko urtearekin alderatuta, **etxebizitza bat gehiago erregistratu da Sestaon**.

1.5 taula. Indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa emateko udal-baliabide espezifikoak: kopurua eta lekuak. Bizkaia. 2024.

| Erakunde titularra                | Baliabide kop. | Leku kop. | Biztanleria 2024an | Baliabidea eskura duten beste udal batzuk (biztanle kop.) |
|-----------------------------------|----------------|-----------|--------------------|-----------------------------------------------------------|
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | 1              | 5         | 9.409              |                                                           |
| Amorebieta-Etxano                 | 1              | 4         | 19.678             |                                                           |
| Arrigorriaga                      | 2              | 10        | 11.952             |                                                           |
| Barakaldo                         | 1              | 16        | 101.984            |                                                           |
| Basauri                           | 1              | 6         | 40.388             |                                                           |
| Bilbo                             | 11             | 53        | 348.089            |                                                           |
| Durango                           | 1              | 5         | 29.887             |                                                           |
| Ermua                             | 1              | 4         | 15.627             | Mallabia (1.157)                                          |
| Galdakao                          | 1              | 5         | 24.774             |                                                           |
| Leioa                             | 1              | 5         | 32.683             |                                                           |
| Santurtzi                         | 1              | 5         | 46.247             |                                                           |
| Sestao                            | 2              | 4         | 28.228             |                                                           |
| Busturialdeko M.                  | 1              | 5         | 29.617             |                                                           |
| Enkarterriko M.                   | 1              | 5         | 35.245             |                                                           |
| Lea-Artibaiko Amank.              | 1              | 3         | 23.496             |                                                           |
| Mungialdeko M.                    | 1              | 6         | 24.790             |                                                           |

Oharra: baliabide bakoitzeko toki-kopurua erakunde titularrak egindako balorazioaren arabera da.

Iturria: BLHko udalerriek eta mankomunitateek emandako datuetan oinarrituta egin da.

<sup>3</sup> Baliabideen titulartasuna duten erakundeetako biztanleria eta Bizkaiko gizarte-zerbitzuen maparen arabera Gizarte Zerbitzuetako Eskualde gisa zerbitzuen estaldura jasotzen duten erakundeetako biztanleria ere jasotzen ditu.

Erakunde titularrek emandako informazioaren arabera, 2024an harrera-baliabide horiek guztira **141 leku** eskaintzen dituzte, eta erdiak Bilboko (% 38) eta Barakaldoko (% 11) baliabideei dagozkie.

Baliabide mota hori EAEn arautzen duen legediaren arabera<sup>4</sup>, gehienak **harrerako etxebizitza** modalitatekoak dira; Barakaldoko Udalarena da **harrera eta arreta osoko zentro** bakarra, berehalako harrera eta egonaldi ertaina eta luzea eskaintzen dituen.


## Bilakaera

Lurraldeko lehenengo harrera-etxebizitzak Bilbon eta Ermuan (1988) ireki ziren. Urte gutxi batzuk geroago, Galdakaon (1991) eta Basaurin (1993) ere ireki zituzten. 2001ean sinatu zen (I) *Etxeko tratatu txarren eta sexu-indarkeriaren biktimak diren pertsonen arreta hobetzeko erakunde arteko hitzarmena*. Eta, haren ondoren, handituz doa udalek eskaintzen dituzten baliabideen kopurua, eta 2002 eta 2010 bitartean zortzi erakunde gehiagok eskaintzen dute zerbitzu hori. Urte horretatik aurrera ez zen baliabide berririk zabaldu 2018ra arte; urte horretan 30 urte bete ziren Bizkaian lehen etxebizitzak zabaldu zirenetik, eta Arrigorriagako, Leioako, Enkarterriko eta Mungialdeko bost baliabide berri gehitu zituzten lurralde-mapan. 2019an, Lea-Artibai izan zen horrelako baliabideak hornitu zituen laugarren mankomunitatea.

---

<sup>4</sup> 148/2007 Dekretuak, irailaren 11koak, etxeko tratatu txarren biktimak diren emakumeentzako harrera-baliabideak arautzen dituenak (2007/09/27ko EHAA, 187 zk.) baliabideen sailkapen hau egiten du: berehalako harrera-zerbitzuak, egonaldi ertain edo luzeko harrera-etxebizitzak eta egonaldi ertain edo luzeko harrera-zentroak.

## 1.1 irudia. Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako harrera-baliabideak dituzten udalerriak eta mankomunitateak, lehenengo baliabidea sortu zeneko urtearen arabera<sup>5</sup>. Bizkaia. 2024.



Iturria: BLHko udalerriek eta mankomunitateek emandako datuetan oinarrituta egin da.

Lurraldean baliabide berriak jarri direnez, leku kopurua ugartu egin da urteen joanean. Nolanahi ere, alderdi horretan izandako joeran, kontuan hartu behar da EAEn 2007an onartu zen harrera-baliabideei buruzko araudiak<sup>4</sup> aldaketa asko eragin zituela baliabideen egituretan eta ezaugarrietan; besteak beste, etxebizitza edo zentro bakoitzeko leku kopurua mugatu zen araudi horren bidez (eta beraz, baliabide batzuetan, hasieran aurreikusitako leku kopurua baino gutxiago jarri ziren).

<sup>5</sup> Bilbori dagokionez, urte hauetan ireki ziren harrera-etxebizitzak: 1988, 1995, 2004, 2005, 2008, 2021 eta 2023an. Barakaldon, harrera-etxebizitza bat ireki zen 2007. urtean, baina 2009an itxi egin zen, harrera integraleko zentro bat jarri baitzuten abian.

## B. Eskaera artatua

Baliabide espezifiko hauek urtero erregistratzen dituzte erabiltzaileak, oro har.

2024an, **13** erakundek artatu dituzte kasuak, eta, guztira, **164 pertsonari** eman diete arreta: **78 emakume eta 86 seme-alaba**. Bilakaerari dagokionez, emakumeen kopurua bere serieko **baliorik altuena** da.

**1.6 taula. Emakumeen aurkako indarkeriazko egoeretarako baliabide espezifikoetan dauden pertsonen kopurua. Bizkaia. 2024.**

| Erakunde titularra                | Emakumeak | Semeak/alabak | Guztira |
|-----------------------------------|-----------|---------------|---------|
| Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | 5         | 3             | 8       |
| Amorebieta-Etxano                 | 1         | 0             | 1       |
| Arrigorriaga                      | 3         | 4             | 7       |
| Barakaldo                         | 17        | 21            | 38      |
| Basauri                           | 0         | -             | 0       |
| Bilbo                             | 33        | 43            | 76      |
| Durango                           | 5         | 6             | 11      |
| Ermua                             | 2         | 0             | 2       |
| Galdakao                          | 0         | -             | 0       |
| Leioa                             | 3         | 1             | 4       |
| Santurtzi                         | 2         | 2             | 4       |
| Sestao                            | 1         | 1             | 2       |
| Busturialdeko Mankomunitatea      | 1         | 2             | 3       |
| Enkarterriko Mankomunitatea       | 2         | 2             | 4       |
| Lea-Artibaiko Amankomunazgoa      | 0         | -             | 0       |
| Mungialdeko Mankomunitatea        | 3         | 1             | 4       |

Oharra: 2024an ez da erregistratu erabiltzailearen ardurapeko pertsona helduren sarrerarik.  
 Iturria: BLHko udalerriek eta mankomunitateek emandako datuetan oinarrituta egin da.

**1.7 taula. Emakumeen aurkako indarkeriazko egoeretarako baliabide espezifikoetan dauden pertsonen kopurua. Bizkaia. 2004-2024.**

|                | 04        | 05        | 06        | 07        | 08         | 09         | 10         | 11         | 12         | 13         | 14        | 15         | 16         | 17         | 18         | 19         | 20         | 21         | 22         | 23         | 24         |
|----------------|-----------|-----------|-----------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|-----------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| Emakumeak      | 40        | 44        | 31        | 47        | 55         | 50         | 55         | 53         | 64         | 61         | 37        | 57         | 47         | 51         | 63         | 65         | 63         | 63         | 76         | 71         | 78         |
| Seme-alabak    | 34        | 43        | 27        | 38        | 58         | 50         | 49         | 54         | 70         | 60         | 31        | 52         | 53         | 54         | 83         | 78         | 75         | 61         | 93         | 88         | 86         |
| Beste batzuk   | *         | *         | *         | *         | *          | 0          | 5          | 6          | 2          | 1          | 0         | 0          | 0          | 2          | 0          | 0          | 0          | 2          | 0          | 1          | 0          |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>74</b> | <b>87</b> | <b>58</b> | <b>85</b> | <b>113</b> | <b>100</b> | <b>109</b> | <b>113</b> | <b>136</b> | <b>122</b> | <b>68</b> | <b>109</b> | <b>100</b> | <b>107</b> | <b>146</b> | <b>143</b> | <b>138</b> | <b>126</b> | <b>169</b> | <b>160</b> | <b>164</b> |

Oharra: Datuak interpretatzean, aintzat hartu behar da baliabide gehiago zabaldu direla eta leku-kopurua handitu egin dela.  
 Iturria: BLHko udalerriek eta mankomunitateek emandako datuetan oinarrituta egin da.



Tokiko udal-erakundeek emandako datu guztiak kontuan hartuta, 2024an baliabide hau erabili duten emakumeek ezaugarri hauek dituzte:

### Emakumezkoak

- Gehienetan tratatu txarren eragileak **bikotekideak edo bikotekide ohiak izan dira (% 85)**.
- Ohikoa denez, udal-baliabide horiek familiekin batera erabili dituzten emakume gehienak (% 64) **Bilboko** (% 42) eta **Barakaldoko** zerbitzuetan (% 22) daude<sup>6</sup>: 76 pertsona Bilbon (33 emakume eta 43 seme-alaba) eta 38 pertsona Barakaldon (17 emakume eta 21 seme-alaba).
- **Hamar emakumetik zazpi** (% 73,1) atzerriko herrialderen batean jaioak dira.
- Adinari dagokionez, herena 21 urtetik 30 urtera bitarteko adin-tartean dago. Hurrengo bi tarteei dagokienez, bakoitzak kasuen laurden bat inguru biltzen du (% 23, 31 eta 40 urte bitartekoek, eta % 26, 41 eta 50 urte bitartekoek).
- Erabiltzaile batek desgaitasuna du (% 1,3).

### Seme-alabak

- Udal-baliabideetara iritsi diren emakume ia guztiak **seme-alabekin** joan dira (% 97).
- 86 seme-alaba dira guztira, gehienak (% 85) **adingabeak**.
- 39 neska (% 53,4) eta 34 mutil (% 46,6) beren amekin egon dira udaleko harrera-baliabideetan urtean zehar.

### Udalen arabera


Lehenik eta behin, kontuan izan behar da **baliabideak izatea bera eta haietara iristeko erraztasunak** azaltzen dutela, askotan, eskaria handiagoa edo txikiagoa izatea.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak eta Barakaldoko Udalak kudeatutako baliabideek erabiltzaile-kopuru handiak agertzen dituzte modu jarraituan; gainerako tokiko egoitza-baliabideetan, berriz, alderantzizkoa gertatzen da. Hortaz, baliabideen okupazioari dagokionez, lurralde osoa kontuan hartuta, joera nolabait bikoitza dela esan daiteke. **Bilboko eta Barakaldoko udalerriek** tokiko baliabideak erabili behar dituzten emakumeen % 80 inguru artatzen dituzte, modu jarraituan.

---

<sup>6</sup> Bizkaiko emakumeen % 39,3 biltzen dute bi udalerri horiek batera.

**1.12 grafikoa. Harrera udal-baliabide espezifikoetan dauden emakumeen %, erakunde titularren arabera. 2004-2024**



**1.8 taula. Udaletako eta mankomunitateetako-baliabide espezifikoetan hartutako pertsona-kopurua (emakumeak eta haien ardurapekoak\*). Bizkaia. 2004-2024.**

|      | ABA<br>G (E) | ZOR<br>G (E) | ARR<br>G (E) | BAR<br>G (E) | BAS<br>G (E) | BIL<br>G (E) | DUR<br>G (E) | ERM<br>G (E) | GAL<br>G (E) | LEI<br>G (E) | SAN<br>G (E) | SES<br>G (E) | BUS<br>G (E) | ENK<br>G (E) | LEA<br>G (E) | MUN<br>G (E) |
|------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| 2004 | -            | -            | -            | -            | 5 (3)        | 54 (29)      | -            | 4 (2)        | 2 (1)        | -            | 0 (0)        | 2 (1)        | 4 (2)        | -            | -            | -            |
| 2005 | -            | -            | -            | -            | 7 (4)        | 56 (26)      | -            | 5 (4)        | 7 (4)        | -            | 0 (0)        | 2 (1)        | 7 (3)        | -            | -            | -            |
| 2006 | -            | -            | -            | -            | 3 (3)        | 34 (19)      | -            | 3 (2)        | 9 (3)        | -            | 1 (1)        | 4 (1)        | 3 (1)        | -            | -            | -            |
| 2007 | -            | -            | -            | 13 (9)       | 11 (5)       | 56 (28)      | -            | 2 (2)        | 2 (2)        | -            | 1 (1)        | 0 (0)        | 0 (0)        | -            | -            | -            |
| 2008 | -            | -            | -            | 16 (9)       | 4 (2)        | 75 (35)      | 1 (1)        | 6 (3)        | 8 (3)        | -            | 1 (1)        | 0 (0)        | 2 (1)        | -            | -            | -            |
| 2009 | -            | 0 (0)        | -            | 14 (8)       | 0 (0)        | 61 (32)      | 8 (3)        | 0 (0)        | 8 (3)        | -            | 4 (2)        | 2 (1)        | 0 (0)        | -            | -            | -            |
| 2010 | 0 (0)        | 3 (1)        | -            | 29 (18)      | 1 (1)        | 64 (28)      | 2 (1)        | 2 (1)        | 2 (2)        | -            | 3 (1)        | 2 (1)        | 0 (0)        | -            | -            | -            |
| 2011 | 0 (0)        | 3 (1)        | -            | 27 (14)      | 0 (0)        | 67 (31)      | 5 (2)        | 3 (2)        | 0 (0)        | -            | 4 (1)        | 1 (1)        | 3 (1)        | -            | -            | -            |
| 2012 | 4 (2)        | 0 (0)        | -            | 38 (19)      | 3 (2)        | 72 (32)      | 2 (1)        | 3 (2)        | 3 (1)        | -            | 8 (3)        | 3 (2)        | 0 (0)        | -            | -            | -            |
| 2013 | 4 (2)        | 0 (0)        | -            | 35 (20)      | 3 (2)        | 60 (28)      | 4 (2)        | 0 (0)        | 5 (2)        | -            | 6 (2)        | 5 (3)        | 0 (0)        | -            | -            | -            |
| 2014 | 0 (0)        | 1 (1)        | -            | 25 (13)      | 0 (0)        | 27 (14)      | 4 (4)        | 7 (3)        | 0 (0)        | -            | 0 (0)        | 1 (1)        | 3 (1)        | -            | -            | -            |
| 2015 | 0 (0)        | 0 (0)        | -            | 39 (19)      | 3 (1)        | 58 (31)      | 0 (0)        | 2 (1)        | 1 (1)        | -            | 4 (2)        | 2 (2)        | 0 (0)        | -            | -            | -            |
| 2016 | 2 (1)        | 0 (0)        | -            | 29 (13)      | 0 (0)        | 55 (26)      | 5 (2)        | 0 (0)        | 3 (1)        | -            | 5 (3)        | 1 (1)        | 0 (0)        | -            | -            | -            |
| 2017 | 0 (0)        | 0 (0)        | -            | 26 (15)      | 2 (1)        | 50 (23)      | 4 (2)        | 3 (1)        | 3 (2)        | -            | 10 (3)       | 7 (3)        | 2 (1)        | -            | -            | -            |
| 2018 | 1 (1)        | 6 (1)        | 12 (4)       | 35 (15)      | 0 (0)        | 65 (32)      | 5 (2)        | 1 (1)        | 3 (1)        | (')          | 11 (3)       | 2 (1)        | 3 (1)        | 0 (0)        | -            | 2 (1)        |
| 2019 | 0 (0)        | 0 (0)        | 6 (2)        | 37 (21)      | 0 (0)        | 68 (28)      | 5 (3)        | 4 (1)        | 5 (4)        | (')          | 6 (2)        | 8 (2)        | (')          | 2 (1)        | (')          | 2 (1)        |
| 2020 | 0 (0)        | 3 (1)        | 0 (0)        | 42 (24)      | 3 (1)        | 60 (26)      | 2 (1)        | 4 (1)        | 0 (0)        | 4 (1)        | 4 (1)        | 6 (1)        | 2 (1)        | 2 (2)        | 4 (2)        | 2 (1)        |
| 2021 | 0 (0)        | 3 (1)        | 4 (1)        | 36 (21)      | 0 (0)        | 56 (27)      | 4 (2)        | 0 (0)        | 3 (1)        | 0 (0)        | 4 (2)        | 6 (3)        | 3 (2)        | 0 (0)        | 2 (1)        | 5 (2)        |
| 2022 | 5 (2)        | (')          | 0 (0)        | 42 (21)      | 0 (0)        | 85 (31)      | 6 (4)        | 2 (1)        | 3 (1)        | 0 (0)        | 10 (5)       | 8 (4)        | (')          | 1 (1)        | 0 (0)        | 7 (6)        |
| 2023 | 9 (4)        | 1 (1)        | 2 (1)        | 40 (17)      | 2 (1)        | 81 (35)      | 3 (1)        | (')          | 2 (1)        | 3 (2)        | 2 (1)        | 6 (4)        | (')          | 7 (2)        | 0 (0)        | 2 (1)        |
| 2024 | 8 (5)        | 1 (1)        | 7 (3)        | 38 (17)      | 0 (0)        | 76 (33)      | 11 (5)       | 2 (2)        | 0 (0)        | 4 (3)        | 4 (2)        | 2 (1)        | 3 (1)        | 4 (2)        | 0 (0)        | 4 (3)        |

G – Pertsonak guztira; E – Emakumeak

(\*) 2004tik 2008ra, "haien ardurapekoetan" *adingabeak* soilik sartzen dira. 2009-2011 aldian, *mendeko beste pertsona batzuk* ere hartzen dira: 2009an kategoria horretako kasurik ez zen erregistratu inongo erakundetan; 2010ean Bilbon 5 kasu erregistratu ziren, eta baliteke kasu horietan adinez nagusiak diren seme-alabak ere kontuan hartu izana. 2012tik aurrera, erakunde guztiek seme-alaba adingabeak eta adinez nagusiak hartu dituzte kontuan, baita mendeko beste pertsona batzuk ere.

(-) Erakundeak ez dauka baliabiderik. (') Ez dago horri buruzko datuak.

|                                        |                |                                    |
|----------------------------------------|----------------|------------------------------------|
| ABA: Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena | DUR: Durango   | BUS: Busturialdea (Mankomunitatea) |
| AMO: Amorebieta-Etxano                 | ERM: Ermua     | ENK: Enkarterriak (Mankomunitatea) |
| ARR: Arrigorriaga                      | GAL: Galdakao  | LEA: Lea-Artibai (Amankomunazgoa)  |
| BAR: Barakaldo                         | LEI: Leioa     | MUN: Mungialde (Mankomunitatea)    |
| BAS: Basauri                           | SAN: Santurtzi |                                    |
| BIL: Bilbo                             | SES: Sestao    |                                    |

Iturria: BLHko udalerriek eta mankomunitateek emandako datuetan oinarrituta egin da.

Datuek erakusten dutenez, populazio-dentsitate handia duten zenbait udalerritan harrera-baliabidea oso gutxi erabiltzen da edo ez da erabiltzen. Itxura guztien arabera, baliabidearen eskaririk ez izatea baino, arrazoi teknikoetatik harago doazen beste faktore batzuk daude horren atzean.

Zehazki, 2024an, epe ertaineko harrera-zerbitzuan sartzen diren emakumeen erdia baino gehiago (% 55,5) harrera-baliabide espezifikoak dituzten udalerrietan/mankomunitateetan bizi dira.



## 1.2. AHOlkularitza JURIDIKOA

### Testuingurua eta egoera orokorra

Bizkaiko Lurralde Historikoan, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak ematen duen Arreta Soziojuridikoko Zerbitzuarekin batera, **auzi aurreko aholkularitza juridikoko doako zerbitzuak** ere badira Bizkaiko zenbait udalerritan eta mankomunitatetan.

Zerbitzu horien bidez, indarkeria-motaren bat jasaten duten emakumeei jakinarazi nahi zaie zer aukera ematen dizkien ordenamendu juridikoak: zer eskubide dauzkaten, nola eta noren aurrean salatu behar dituzten gertaerak, nola eskuratu ditzaketen baliabide juridiko eta sozialak... Eta horrez gain, beharrezkoa izanez gero, nola esku hartu dezaketen prozesu judizialean.

#### 1.2.1. Bizkaiko Foru Aldundiaren baliabidea

##### Zerbitzuaren ezaugarriak

Bizkaiko Foru Aldundiaren Arreta Soziojuridikoko Zerbitzuan, besteak beste, familia-zuzenbideari buruzko informazio juridikoa ematen da, bai eta tratatu txarren eta/edo sexu-erasoen egoerei buruzkoa ere, ezkontza- edo bikote-hausturen ondorioz askotan sortzen diren familia-gatazkak baretzeko eta familian sortu daitekeen edozein indarkeria-mota saihesten laguntzeko.

Doako zerbitzua da, eta astelehenetik ostiralera ematen da, astean 25 orduz, gutxienez.

##### Eskaera erregistratua

Herritar guztien eskura dago Zerbitzua, baina emakumeak dira, batik bat, haren erabiltzaile. Zerbitzuaren beste ezaugarri nabarmen bat da urtean hasitako kasu asko erregistratzen direla (kasu berriak); izan ere, prestazioaren izaeraren beraren ondorioz, kontsulta puntualak izaten dira gehien-gehienetan.

2024an zehar, 307 emakumek jaso dute aurrez aurreko<sup>7</sup> aholkularitza juridikoa (guztizkoaren % 98), eta haietatik 267 kasu berriak dira (% 87).


---

<sup>7</sup> Kontsulta telematikoa egiteko aukera ere ematen du Zerbitzuak. Atal honetan azaldutako datuek aurrez aurreko kontsultak baino ez dituzte jasotzen.

Erabiltzaile berri horien **% 46,4** —hamarretik ia bost— indarkeria-motaren batekin lotutako egoera batean zeuden<sup>8</sup>:

- % 31,8k aholkularitza jaso dute bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik (85 emakume).
- % 7,1ek familia barruko indarkeriagatik (19 emakume).
- eta % 7,5ek sexu-indarkeriari buruz, aurreko bi eremuetatik kanpo (20 emakume).

Aurreko urtearekin alderatuta, Zerbitzuko indarkeria-kasuek % 7,5 egin dute behera (gainerako kasuak % 2,7 jaitsi dira). Perspektiba epealdi osora zabalduz, 2020ko osasun-krisiaren aurreko urteetako datuetara iritsi gabe jarraitzen du. Txosten honen aurreko argitalpenetan adierazi den bezala, 2020an bizitako egoeraren ondoriozko ziurgabetasuna ere islatzen dute datuek, eta ziurgabetasun horrek inhibizio-faktore gisa eragin du bizitzako aldaketa-prozesuei aurre egiteari dagokionez; adibidez, Zerbitzu honetan eskaintako laguntzarekin lotutako prozesuei. Kontuan hartu behar dira, halaber, arreta-programen testuinguruko aldaketak, prestazioen artean aholkularitza juridikoa jasotzen duten beste baliabide batzuk garatuta, hala nola BFaren arreta komunitarioko programak edo sexu-indarkeriaren biktimentzako arreta integraleko zerbitzua (hori ere foru-aldundiarena da).



**Oharra:** 2020tik aurrerako datuek aurrez aurre artatutako kasuak soilik jasotzen dituzte, modu telematikoan ere arreta ematen den arren. **Iturria:** BFaren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila.

<sup>8</sup> Zuzenean egoera horietakoren bati buruzko kontsultak egin dituzten kasuak zein bestelako gairen bati buruzkoak zenbatu dira, haietan amaieran arazoa indarkeriarekin lotuta dagoela ikusi denean.



Dena dela, garrantzitsua da adieraztea epealdi osoan 2024ko indarkeria-kasuen ehunekoa serieko bigarren **zifrarik altuena** izan dela, eta serie horrek gorako joera agerikoa duela; izan ere, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriako kasuak gero eta ugariagoak izan dira. Grafikoak erakusten du **arazo horren intzidentziak goranzko joera izan duela zerbitzuaren erabiltzaile diren emakumeen artean; alegia, gero eta gehiago direla urtean baliabidera jo duten emakume erabiltzaileen artean erregistratutako kasu berriak**. Artatutako erabiltzaileen guztizko kopuruaren gorabeherak alde batera utzita, kasuistika honen goranzko joera erregularra eta ia etengabea izan da.


Aldiaren hasieran (2004), indarkeria-kasuak % 10 baino gutxiago ziren; azken urtean, berriz, % 46,4 izan dira. Proportzioa modu erregularrean hazi da aztertutako bi hamarkadetan, eta 2017an maximoa ezarri zen balio absolututan: 186 emakume, hau da, 16 erabiltzaile berri hilean.

Jarraian, 2024ko erabiltzaileen (kasu berriak) ezaugarri nagusiak aurkezten dira, eta baita epealdi osoan zehar aldagaiek izandako bilakaera ere, indarkeria-motaren arabera.

## A. Bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeria

2024an **85 erabiltzaile berriri** eman zitzairen arreta indarkeria-mota horrengatik, eta, kasu horien artean, gehienetan (**% 73**) **ezkontidea edo bikotekidea** izan zen erasotzailea; gainerako kasuetan (% 27), berriz, erasotzailea ezkontide edo bikotekide ohiak izan zen.

2020tik, arreta-eskaera ehunka kasutik behera dago, eta ez da aurreko urteetako mailara itzuli. Azken urteetako datu ezohikoak alde batera utzita, epealdi osoan ikus daiteke **bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria etengabe ugartu dela** foru-zerbitzu honetan.



**\*Oharra:** 2020tik aurrerako datuek aurrez aurre artatutako kasuak soilik jasotzen dituzte, modu telematikoan ere arreta ematen den arren.

**Iturria:** BFaren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.


## Salaketa eta Babes Agindua (BA)

Zerbitzura iritsi aurretik, erabiltzaileen % 56k salaketa jarria zuten. 48 emakume dira guztira, eta heren batek baino gehiagok (% 35) Babes Agindua zeukaten beren alde.

## Adina

Indarkeria-mota honetan, behin eta berriz, tarteko adinak dira baliabidean presentzia handiena daukatenak: 2024an, **hamar erabiltzailetik sei (% 60) 31 eta 50 urte artekoak dira.**

Aurreko urtearekin alderatuta, 41 urtetik gorako adin-tarteek garrantzia hartu dute eta gainerakoek behera egin dute. 2024an ez zen erregistratu adingabeko erabiltzailerik.



Iturria: BFAren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna sustatzeko Saila.


## Jaioterria

Zerbitzu honetan ohikoa denez, **EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak** erabiltzen dute **gehienbat**: 58 emakume, hau da, % 68,2; atzerriko herrialdeetan jaiotako emakumeak, berriz, % 31,8. Atzerriko herrialdeetan jaiotako 27 emakumek jo dute Zerbitzura, eta Europako, Afrikako eta, batez ere, Amerikako 13 herrialdeetakoak dira jatorriz (% 67 Latinoamerikakoak).

Aurreko urtearekin alderatuta, lehenengoak % 16 jaitsi dira, eta bigarrenak, berriz, 2023ko datuetan mantendu dira, atzerriko jatorriko 28 erabiltzaile baitaude (serie historikoko zifrarik altuena).

Aldi horretan, bi taldeen arteko portzentajezko erlazioari eutsi zaio, eta EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako erabiltzaileak dira nagusi, eta horiek osatzen dute zerbitzuaren eskaeraren gehiengoa. Grafikoan ikusten diren portzentaje-pisuen aldaketen zergatia kopuru-jaitsiera da.

**1.16 grafikoa. Bikote/bikote ohiaren indarkeriagatik BFAko Arreta soziojuridikoko Zerbitzuan artatu diren emakumeak (kasu berriak) jaioterriaren arabera. 2012-2024**



**\*Oharra:** 2020tik aurrerako datuek aurrez aurre artatutako kasuak soilik jasotzen dituzte, modu telematikoan ere arreta ematen den arren.

**Iturria:** BFAren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila.

## Bizitoki den udalerria

Zerbitzua Bilbon dago kokatuta, eta Bizkaiko **31 udalerritan** bizi diren emakumeak artatu ditu 2024an.

Epealdi osoan zehar, eskatzaileen bizitokiaren araberako banaketa zabaldu egin da: 2005ean 16 udalerritako emakumeak erregistratu ziren, eta 2015ean, berriz, inoizko gehiena, 39 udalerritako emakumeak.

Aurreko urteetan bezala, 2024an ere udalerrri horietako askok dauzkate aholkularitza juridikoko **baliabide propioak**, eta haietan biltzen dira foru-baliabideak artatzen dituen erabiltzaile berri gehienak (% 91,8).

Ohikoa da hori gertatzea; urtero, udalerrian edo mankomunitatean aholkularitza juridikoko baliabide propioen bat daukaten emakume erabiltzaileen ehuneko handi bat erregistratzen da (Bizkaiko toki-entitate askok daukate baliabide-mota hori).

Horren arrazoia izan daiteke bizi-ingurunetik kanpoko zerbitzu batera jotzeak anonimotasuna dakarkiola biktimari; jokabide hori babes-neurritzat hartu daiteke, inguruneak biktimatzat identifika ez dezan. Beste arrazoi bat izan daiteke biktimek kontsulta bat baino gehiago egiten dutela eskura dauzkaten aholkularitza juridikoko baliabideetan, profesionalek emandako informazioa egiaztatzeko.

Nolanahi ere, datuek **erakusten dute premiazkoa dela baliabide-eskaintza zabal eta eskuragarria egiten jarraitzea**, biktimei arreta-sistemara gerturatzen laguntzeko.

**1.9. taula. BFaren Arreta Soziojuridikoko Zerbitzuan bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatik artatutako emakumeen % (kasu berriak), arreta-baliabide propioak dauzkaten BLHko udalerrri edo mankomunitateetan bizi izanik. 2024.**

|                                                       | %           |
|-------------------------------------------------------|-------------|
| Barakaldo                                             | 9,4         |
| Basauri                                               | 3,5         |
| Bermeo                                                | 2,4         |
| Bilbo                                                 | 30,6        |
| Erandio                                               | 1,2         |
| Etxebarri                                             | 1,2         |
| Galdakao                                              | 1,2         |
| Getxo                                                 | 2,4         |
| Leioa                                                 | 4,7         |
| Muskiz                                                | 1,2         |
| Ortuella                                              | 1,2         |
| Portugalete                                           | 2,4         |
| Santurtzi                                             | 1,2         |
| Sestao                                                | 3,5         |
| Arratiako Udalen Mankomunitatea                       | 2,4         |
| Busturialdeko M.                                      | 3,5         |
| Durango Amank.                                        | 2,4         |
| Enkarterriko M.                                       | 3,5         |
| Lea-Artibaiko Amank.                                  | 1,2         |
| Mungialdeko M.                                        | 1,2         |
| Uribe Kostako M.                                      | 11,8        |
| <b>Baliabideak dauzkaten BLHko entitateak guztira</b> | <b>91,8</b> |
| <b>Gainerako BLHko entitateak, baliabiderik gabe</b>  | <b>8,2</b>  |

Iturria: BFaren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

## Behar espezifikoa

Foru-zerbitzu honetan bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin lotuta aholkularitza juridikoa jasotzen duten emakumeen **% 6 desgaitasun-egoera batean daude**.

Datu hori jasotzen hasi zenetik, urtero erregistratu dira desgaitasuna daukaten emakumeen kasuak. 2017an jaso ziren baliorik altuenak, balio absolutu nahiz erlatibotan.

**1.10. taula. BFAren Arreta Soziojuridikoko Zerbitzuan bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatik artatutako emakumeak (kasu berriak), desgaitasunen bat izanik. 2012-2024.**

|                             | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|-----------------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| Emakume-kopurua             | 7    | 8    | 4    | 14   | 10   | 21   | 9    | 15   | 9    | 6    | 6    | 13   | 5    |
| % (erabiltzaile guztiekiko) | 7,2  | 7,8  | 3,5  | 9,7  | 9,3  | 13,8 | 6,8  | 12,6 | 12,5 | 7,9  | 6,7  | 13,4 | 6,0  |

Iturria: BFAren datuetan oinarrituta. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

## B. Familia barruko indarkeria

Familia barruko indarkeriagatik, Zerbitzuak **19 emakume berri** artatu ditu aurrez aurreko kontsultan.

- Erasotzailearekiko harremana: Erasotzaile gehienak kontsulta juridikoa egiten duen emakumearen aurreko ahaideak (% 63,2) edo ondorengoak (% 26,3) dira, familia-esparruko beste harreman batzuen aldean.
- Salaketa eta Babes Agindua: erabiltzaileen erdiak baino gehiagok (10) gertakariak salatu zituzten Zerbitzua erabiltzen hasi baino lehen, eta, hiru kasutan (% 30), beren aldeko Babes-agindua zeukaten.
- Adina: 10 erabiltzailetik ia 6 adin txikikoak dira, zehazki 14 urtetik beherakoak (% 58). Gainerakoak 41 eta 64 urte bitarteko tartean daude. Normalean, familia barruko indarkerien kasu gehienak 50 urtetik gorako emakumeetan eta adin txikiko emakumeetan gertatzen dira.
- Jaioterria: Hiru emakume (% 16) atzerrian jaioak dira, European eta Latinoamerikan. Ez da ohikoa atzeritar jatorriko erabiltzaileen kontsultak jasotzea familia barruko indarkeriarekin lotuta.
- Udalerria: Bizkaiko 11 udalerritan bizi dira, gehienak arreta-baliabide propioekin; erabiltzaileen % 84ren kasua da hori.



## C. Sexu-indarkeria

2024an zehar, foru-zerbitzuak aholkularitza juridikoa eman die (aurrez aurreko kontsultak) **20 emakumeri (kasu berriak)** sexu-indarkeriarekin lotuta —bikotekidearen edo familiaren esparrutik:

- Erasotzailearekiko harremana: Ia kasu guztietan (19) biktimak erasotzailea ezagutzen du.
- Salaketa eta Babes Agindua: Erabiltzaileen erdiek baino gutxiagok salaketa jarri dute Zerbitzuan sartu aurretik (% 40), eta horietako batek ere ez du Babes Agindurik.
- Adina: Adinaren arabera banaketa indarkeria-mota honetan ohikoa dena da, hau da, gazteenen artean nagusitzen da, % 40 20 urtetik beherakoa baita, eta % 60 30 urtetik beherakoa.
- Jaioterria: Sexu-indarkeriarekin lotuta kontsulta egin duten emakumeen artetik bi atzerrian jaioak dira (% 10).
- Udalerrria: Bizkaiko 13 udalerritan bizi dira, gehienak arreta-baliabide propioekin; (erabiltzaileen % 85en kasua da hori).
- Desgaitasuna: Bi emakumek desgaitasunen bat zuten (% 10).

## 1.2.2. Udalerrien eta mankomunitateen mendeko baliabideak

### Baliabide erabilgarriak

2024an, **udal-izaerako 27 toki-entitatek** daukate auzi aurreko aholkularitza juridikoko zerbitzua Bizkaian: 20 udalerriri eta 7 mankomunitateri. Herritar askori eskaintzen diete zerbitzua, batera hartuta Bizkaiko populazio osoaren % 93rengana iristen baitira.

Aurreko urteko egoerarekin alderatuta, **bi baliabide berri jarri dira martxan Bermeon eta Ondarroan.**

Udaleko aholkularitza juridikoko baliabideak gizarte-ongizateko edo berdintasuneko arloetatik kudeatzen dira, berariaz emakumeei (% 44) edo herritar guztiei zuzenduta.

### **Ezaugarriak**

Baliabide horiek eskuragarri izateak ez du beti esan nahi gai honen inguruko premia guztiei erantzuten zaienik; izan ere, aurrerago ikusiko dugunez, txikiegia izan daiteke entitate batzuek zerbitzua emateko eskaintzen duten ordu-kopurua.

Udalerriek eta mankomunitateek ematen dituzten zerbitzuak **homogeneoak** dira prestazioaren **edukiari dagokionez**<sup>9</sup>, eta funtsezko helburuen artean nabarmentzen da familia-zuzenbideari buruzko eta tratu txarren eta/edo sexu-erasoen egoerei buruzko aholkularitza juridikoa ematea.


**Irisgarritasun**-maila, ordutegiari dagokionez, oso aldakorra da (hurrengo taula). Batez ere, erakundeek **astean bost ordu baino gutxiagoko** ordutegia dute zerbitzua emateko (**% 69**).

Arreta emateko **maiztasunari** dagokionez, aurreko urteko egoera bera da: entitateen % 80,8k astero ematen dute zerbitzua, eta, normalean, asteko egun batean bakarrik (asteko arreta duten 21 erakundeetatik 17). Maiztasun txikiagoa daukatenak aintzat hartzen baditugu (hamabostean edo hilean behin), udal-baliabide horietako gehienak (**% 77**) **astean behin soilik edo gutxiagotan eskaintzen direla** ikusiko dugu, horren ondorio izanik arreta jasotzeko sortzen diren zailtasunak.

---

<sup>9</sup> Informazio gehiago nahi izanez gero, Behatokiaren urteko dokumentua kontsulta daiteke: “Foru baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Emakumeen kontrako indarkeria matxista”. Helbide elektroniko honetan dago eskuragarri: <https://www.bizkaia.eus/eu/ovm/indarkeria-matxistaren-inguruko-politika-publikoak>


1.17. grafikoa. BLHko udal eta mankomunitateetako Aholkularitza Juridikoko baliabideen arreta maiztasuna. 2024



Iturria: Geuk egina, BLHko udalerrietako eta mankomunitateetako datuekin.

Zerbitzua erabiltzeko entitateek eskaintzen dituzten ordutegien aukeran ikusten diren aldeak ez dira biztanle-kopuruaren irizpideen arabera bakarrik. Grafiko honetan ikus daitekeenez, eskaintzen diren arreta-orduen kopurua eta toki bakoitzeko biztanleen bolumena (biztanle guztiak edo, programaren helburuaren arabera, emakumeak soilik) lotuz gero, Basaurik du arreta-beharrei erantzuteko ordutegi-eskuragarritasun handieneko baliabidea. Hori erakusten du grafikoa ageri den indize teorikoak.

1.18 grafikoa. BLHko udalerrien eta mankomunitateen aholkularitza juridikoko baliabideak. Ordu-estalduraren indizea, biztanleria-bolumenaren arabera. 2024



**Oharra:** Indizea = Hileko orduak / Biztanleria hartzailea\*1.000.

Iturria: Geuk egina, BLHko udalerrietako eta mankomunitateetako datuekin.

**1.11. taula. Udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak zenbat ordu dauden zabalik hilean aholkularitza juridikoa emateko. Bizkaia. 2006-2024.**

|                       | 2006   | 2007   | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022  | 2023  | 2024 |
|-----------------------|--------|--------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|-------|-------|------|
| Abanto y C./Ab.-Z.    | 16     | 20     | 16   | 16   | 8    | 8    | 8    | 16   | 8    | 8    | 8    | 8    | 16   | 16   | -    | 16   | 16    | 16    | 16   |
| Amorebieta-Etxano     | AD     | AD     | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 4    | 4    | 4    | 4    | 4    | 4    | 4    | 4    | 4    | -     | -     | -    |
| Arrigorriaga          | 16     | 14     | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16    | 16    | 16   |
| Balmaseda             | 16     | 16     | 16   | 12   | 12   | -    | -    | -    | -    | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | -     | -     | -    |
| Barakaldo             | 32     | 32     | 32   | 32   | 32   | 32   | 32   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16    | 16    | 16   |
| Basauri               | 80-112 | 136    | 144  | 144  | 144  | 144  | 144  | 144  | 136  | 136  | 136  | 136  | 136  | 136  | 80   | 140  | 140   | 140   | 140  |
| Bermeo                | 16     | 16     | 12   | 12   | 12   | 12   | 16   | 16   | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -     | -     | 16   |
| Bilbo                 | AD     | 284    | 284  | 204  | 204  | 204  | 204  | 204  | 196  | 196  | 196  | 196  | 196  | 196  | 203  | 203  | 203   | 203   | 203  |
| Erandio               | -      | -      | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | 12   | 10   | 10   | 10   | 10   | 10   | 12    | 12    | 12   |
| Ermua                 | 5      | 3      | 3    | 3    | 3    | 3    | 3    | 3    | 3    | 3    | 3,5  | 3    | 3    | 3,5  | 3    | 3    | 3     | 3     | 3    |
| Etxebarri             | 8      | 8      | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8     | 8     | 8    |
| Galdakao              | 28     | 14     | 14   | 11   | 11   | 11   | 11   | 11   | 11   | 11   | 11   | 11   | 17   | 12,5 | 12,5 | 12,5 | 12,5  | 12,5  | 14   |
| Getxo                 | 6      | 6      | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 12    | 12    | 12   |
| Leioa                 | 14     | 20     | 20   | 16   | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 48   | 48   | 48   | 56   | 48   | 48    | 48    | 48   |
| Muskiz                | 10     | 8      | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 6*   | 6*   | 8    | 8    | 8    | 8    | 9    | 10    | 10    | 12   |
| Ondarroa              | -      | -      | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -     | -     | 6    |
| Ortuella              | 16     | 16     | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 8     | 8     | 8    |
| Portugalete           | -      | -      | -    | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 12   | 20   | 20   | 20   | 20   | 20    | 20    | 20   |
| Santurtzi             | 160    | 160-32 | 32   | 32   | 32   | 32   | 32   | 40   | 32   | 32   | 32   | 32   | 32   | 32   | 32   | 16   | 16    | 16    | 20   |
| Sestao                | -      | -      | -    | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 24   | 24   | 24   | 24   | 16   | 16    | 16    | 16   |
| Ugao-Miraballes       | -      | -      | 4    | 4    | 2    | 2    | 2    | 2    | 2    | 2    | 2    | 2    | 2    | 2    | 2    | 2    | 2     | 2     | 2    |
| Urduña/Orduña         | 8      | 8      | 12   | 8    | 8    | 8    | 8    | 8    | 16   | 4    | 4    | 4    | 4    | 4    | 4    | 4    | 4     | 4     | 4    |
| V. Trápaga-Trapag.    | -      | -      | 9    | 9    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -     | -     | -    |
| Zalla                 | 16     | 16     | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | (')  | (')  | (')  | (')  | (')  | (')  | (')  | (')  | 7**  | -     | -     | -    |
| Busturialdeko M.      | 16     | 16     | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 20   | 20   | 20   | 20   | 20   | 20   | 20   | 20   | 20    | 20    | 20   |
| Enkarterriko M.       | -      | -      | -    | -    | -    | -    | -    | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | -    | -    | -    | -    | 12+AD | 12+AD | AD   |
| Lea-Artibaiko Am.     | 36     | 40     | 40   | 40   | 40   | 40   | 40   | 40   | 40   | 40   | 40   | 40   | 40   | 40   | 40   | 40   | 40    | 40    | 40   |
| Lea Ibarrako M.       | 2      | 3      | 3    | 3    | 3    | 1    | 1    | 1    | 2    | 4    | 4    | 4    | 8    | 10   | 8    | 10   | 10    | 10    | 8    |
| Durangoko Mer. Amank. | -      | 28     | 28   | 28   | 28   | 28   | 38   | 38   | 38   | 38   | 38   | 38   | 38   | 38   | 24   | 24   | 24    | 24    | 24   |
| Mungialdeko M.        | 4      | 4      | 4    | 4    | 4    | 4    | 4    | 4    | 4    | 6    | 6    | 5,5  | 5,5  | 5,5  | 5,5  | 5,5  | 5,5   | 5,5   | 5,5  |
| Uribe Kostako M.      | 12-15  | 12     | 12   | 12   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 16   | 12   | 16   | 16    | 16    | 16   |

EA: eskaeraren arabera.

Oharrak:

-Bilbo: Orduak hiru Modulu Psikosozaletan banatzen dira: 152 ordu hilean Auzolanen (bi aholkulari aldi berean); 48 ordu hilean Deustun, eta 18 ordu hilean (gutxienez) Errekalden.

-Balmaseda: Bertan behera geratu zen 2010eko urtarrilean, eta berriz ezarri zen 2015ean, 2021 arte.

-Bermeo: Bertan behera geratu zen 2014ko urtarrilean.

-Trapagaran: Bertan behera geratu zen 2009ko maiatzean.

-Enkarterriko M.: Martxan, 2013tik 2018ko urtarrilera arte. 2022an berriri aktibatu zen, eta, aldi berean, ordura arte Balmasedan eta Zallan zeuden baliabideei baja eman zitzaizen. Bi udalerrri horiek zerbitzu mankomunatu berriaren arretagune izaten jarraitzen dute. 2023an, zerbitzua urtarrietik uztailera eman da soilik.

-Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena: Bertan behera geratu zen 2019ko ekainaren 30ean, eta berriz ezarri zen 2021eko maiatzean.

\*Eta beste sei ordu gehiago hilean, koordinazio- eta ikuskatze-lanetarako.

\*\*Aurrekontuan sartutako orduak. Gerta daiteke eskaeraren mendeko benetako arreta-orduekin bat ez etortzea.


Iturria: Geuk egina, BLHko udalerrietako eta mankomunitateetako datuekin.

## Erabiltzaileak oro har

Udalerriek eta mankomunitateek emandako datuek erakusten dutenez, foru-aldundiko aholkularitza juridikoko zerbitzuan gertatzen den bezala, emakumeek egiten dituzte kontsulta gehienak tokiko baliabide horietan, kasu batzuetan zerbitzua biztanleria osoarentzat eskaintzen den arren.

Baliabide-mota horretara jotzen duten emakumeen ehunekoak, oro har, ez du dagokion udalerriko emakume-kopuruaren % 2ko langa gainditzen (hurrengo grafikoa).

2024an, Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena izan da emakume gehien artatu dituen entitatea, Bizkaiko beste udalerriekin edo mankomunitateekin alderatuta. Bizkaiko batezbestekotik gorako ehunekoak dauzkaten entitate gehienek antzeko datuak ageri ohi dituzte; eta, orokorki, **aldaketa gutxi** izaten da grafikoan **urtetik urtera**.



### Oharrak:

1. Kalkulua egiteko datuak eman dituzten udalerriak eta mankomunitateak soilik sartu dira grafikoan.
2. Ondarroa zerbitzua urrian hasi zen, beraz, arreta-datuak urteko azken hiruhilekoak dira soilik.


Iturria: Geuk egina, BLHko udalerrietako eta mankomunitateetako datuekin.

Faktore askok azaldu dezakete **baliabideen erabilera hainbesteko aldea egotea udalerrien artean**. Baliabidearen ordutegiaz gain, beste faktore batzuek ere eragin handia daukate, hala nola baliabide horren kokapena udalerrian, udalaren gizarte-zerbitzuak oro har zenbateraino erabiltzen diren (hor eragin handikoa da biztanleriak zerbitzuak daukan ezagutza-maila, zuzeneko edo zeharkakoa, bai eta zerbitzuan eskaintzen dituzten programena ere), komunitateak zerbitzu publikoak aintzat hartzen dituen, foru-zerbitzura joaten diren, inguru horretan erakundez kanpoko beste baliabiderik dagoen...

## Bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barruko indarkeria eta/edo sexu-indarkeriako kasuak

Bizkaiko udalerriek eta mankomunitateek emandako datuen arabera, 2024an ia guztiek (entitate batek izan ezik) artatu dituzte emakumeen aurkako indarkeria matxistako kasuak, bikotekideak / bikotekide ohiak eragindakoa, familia barrukoa edo sexu-indarkeria izan –aurreko bi esparruetatik kanpo.

Urteko datuek erakusten dute entitate gehienetan indarkeria-kasuen ehunekoa % 30etik beherakoa edo % 30 ingurukoa dela.



\*Indarkeria-kasuak: bikotekideak eragindako indarkeria, familia barruko indarkeria eta/edo sexu-indarkeria jasan duten emakumeen egoerak dira, kontsultaren arrazoa hori izan ez bada ere.

Oharrak:

1. Kalkulua egiteko datuak eman dituzten baliabideak soilik sartu dira grafikoa.
2. Kontsultaren arrazoa indarkeria izan bada soilik zenbatzen dituzte egoera horiek Uribe Kostan, eta ez dira egoera horiek zenbatzen beste eskaeraren batek eragindako esku-hartzeetan hauteman badira.
3. Ondarroako zerbitzua urrian hasi zen, beraz arreta-datuak azken hiru hilabeteak dira soilik.

Iturria: Geuk egina, BLHko udalerrietako eta mankomunitateetako datuekin.

Udaleko lau baliabide gainerakoetatik bereizten dira, indize altuenekin: **Ondarroa (% 83,3), Bilbo (% 72), Ermua (% 61) eta Barakaldo (% 60)**. Oro har, Bilbon —kronologikoki programa errotuena— eta Barakaldon gertatu ohi dira indarkeria-motaren bat duten kasuen proportzio handiena.

Horri dagokionez, ezin da ahaztu hiri handietako anonimotasunak erraztu egiten duela baliabideetara jotzea; beraz, ona litzateke jakitea zenbat diren anonimotasun ezagatik beren udalerrietako laguntza-zerbitzuetara jo ez eta laguntza beste udalerrri batzuetan bilatzen duten pertsonak. Egia da, dena den, zenbait faktorek zaildu egin dezaketela bizilekutik urrun dauden baliabideetara jotzea; adibidez, hauek: ordutegi murrizta, mugikortasun-arazoak eta maiztasun txikiko garraiobide publikoekiko mendekotasuna.

Bestalde, indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko erakundeek ahalegin handia egiten dutela ukaezina bada ere, ezin dira ahaztu arlo horretako sentsibilizazioan eta prestakuntzan entitateen artean dauden desberdintasunak; izan ere, zenbait kasutan eskasak izanik, zaildu egiten dute indarkeria-kasuak *hautematea* eta *bereiztea*. Hortaz, zifren balorazioa egitean **okerrak egon daitezkeela** ere pentsa dezakegu, **behar baino kasu gutxiago hautemateagatik**.

### Artatutako kasuen ezaugarri nagusiak

#### ▪ Bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeria

Datuak eman dituzten entitateen artean, guztiek, Ugao-Miraballes izan ezik, bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeriako kasuak artatu dituzte 2024an.

Beste ekitaldi batzuetan gertatu izan den antzera, Bilbon zerbitzua ematen duten Modulu Psikosozialek **erregistratu dituzte** Bizkaiko tokiko baliabideetan artatutako tratu txarren kasu **gehienak**. 2024an, ia erdia (% 48). Zehazki, Auzolan moduluak Bizkaiko kasuen % 39,4ri eman die arreta.

Eta ohikoa den legez, 2024an tokiko baliabide hauetan kontsultaren bat egin duten emakumeen **ia bi heren** (% 63) **kasu berriak** dira (urte horretan hasitakoak), eta, oro har, ezaugarri hauek dauzkate:

- Adin-tarte guztietako biktimak erregistratu ziren. Adinaren arabera, ia bi herenek **(% 64) 31 eta 50 urte artean dituzte**, eta homogeneoki banatzen dira bi adin-tarteetan (% 30, 31-40 urte artean, eta % 34, 41-50 urte artean).
- Entitate guztiek atzerriko herrialdeetan jaioetako emakumeak artatu dituzte. Udal-programa guztietako datuak batera hartuta, **atzeritar jatorriko** emakumeen ehunekoa **% 35ekoa** da.
- Zortzi kasutan, desgaitasunen bat dute (% 1,3).

## ▪ Familia barruko indarkeria

Familia barruko indarkeriarekin lotuta, hamabost udalerrik eta mankomunitatek arreta eman diete emakumeei, aholkularitza juridikoko baliabideen bitartez.

Tokiko baliabideetan familia barruko indarkeriagatik artatutako 10 erabiltzailetik zazpi kasu berriak dira:

- Kasu horietan, indarkeria **ondorengoek (% 47) edo aurrekoek (% 43)** egiten dute, familia-esparruko beste harreman batzuen aldean.
- Adin-tarte guztietako biktimak erregistratu ziren. Erabiltzaile gehienak (% 70) nahiko proportzionalki banatzen dira 31 eta 64 urte bitarteko adin nagusien taldeetan.
- Ia laurden bat (% 24) atzerritar jatorrikoak dira.
- Desgaitasuna duten hiru kasu identifikatu dira.

## ▪ Sexu-indarkeria

Eskura dauden datuen arabera, 2024an zehar, tokiko baliabideek 41 emakumeri (39ri, 2023an) eman diete aholkularitza juridikoa, sexu-indarkeriarekin lotuta. Zehazki, Bizkaiko hamabi udalerri eta mankomunitatetan banatzen dira kasuak.

Haietatik, 32 kasu berriak dira. Datuak batera hartuta, erabiltzaileek ezaugarri hauek dauzkate:

- Adinaren arabera, kasuen **erdiak (% 53) 30 urtetik beherako** emakume gazteei dagozkie. **Hamarretik zortzi** 40 urtetik beherako emakumeak dira (% 81,3).
- Hiru **adingabek** sexu-indarkeriarekin lotutako kontsultaren bat egin dute Bizkaiko tokiko baliabideetan. % 9,4 dira, eta eskaerak bi entitatetan banatzen dira.
- 14 emakume **atzerriko herrialdeetan** jaio ziren, hau da, **% 44**.
- Bi emakumek desgaitasunen bat zuten (% 6,3).

**1.12 taula. Udalerrietako eta mankomunitateetako aholkularitza juridikoko baliabideetan artatutako emakumeak: kasu guztiak eta indarkeria-kasuak. BLH. 2024.**

|                 | Kasuak<br>GUZTIRA              | Indarkeria-kasuak | INDARKERIA-MOTA                  |                     |                 |     |
|-----------------|--------------------------------|-------------------|----------------------------------|---------------------|-----------------|-----|
|                 |                                |                   | Bikotekidea /<br>bikotekide ohia | Familia<br>barrukoa | Sexu-indarkeria |     |
| Udalerriak      | Abanto y Ciér.-Abanto Zierb.   | 116               | 12                               | 10                  | 2               | 0   |
|                 | Arrigorriaga                   | 92                | 6                                | 6                   | 0               | 0   |
|                 | Barakaldo                      | 155               | 93                               | 84                  | 6               | 3   |
|                 | Basauri                        | 165               | 51                               | 45                  | 3               | 3   |
|                 | Bermeo                         | 37                | 12                               | 9                   | 0               | 3   |
|                 | Bilbo                          | 860               | 619                              | 555                 | 45              | 19  |
|                 | Erandio                        | 107               | 6                                | 5                   | 1               | 0   |
|                 | Ermua                          | 28                | 17                               | 17                  | 0               | 0   |
|                 | Etxebarri                      | 66                | 11                               | 11                  | 0               | 0   |
|                 | Galdakao                       | 108               | 18                               | 12                  | 5               | 1   |
|                 | Getxo                          | 79                | 13                               | 12                  | 1               | 0   |
|                 | Leioa                          | 192               | 22                               | 22                  | 0               | 0   |
|                 | Muskiz                         | 68                | 9                                | 7                   | 1               | 1   |
|                 | Ondarroa (a.)                  | 12                | 10                               | 8                   | 0               | 2   |
|                 | Ortuella                       | 36                | 5                                | 4                   | 1               | 0   |
|                 | Portugalete                    | 96                | 20                               | 18                  | 2               | 0   |
|                 | Santurtzi                      | 219               | 50                               | 42                  | 4               | 4   |
|                 | Sestao                         | 61                | 15                               | 12                  | 2               | 1   |
|                 | Ugao-Miraballes                | 22                | 0                                | 0                   | 0               | 0   |
|                 | Urduña/ Orduña                 | (')               | (')                              | (')                 | (')             | (') |
| Mankomunitateak | Busturialdeko M.               | 231               | 22                               | 12                  | 10              | 0   |
|                 | Enkarterriko M.                | 63                | 20                               | 19                  | 1               | 0   |
|                 | Durangoko Merindadearen Amank. | 167               | 57                               | 53                  | 2               | 2   |
|                 | Lea-Artibaiko Amank.           | 53                | 10                               | 9                   | 0               | 1   |
|                 | Lea Ibarako M.                 | (')               | (')                              | (')                 | (')             | (') |
|                 | Mungialdeko M.                 | 32                | 5                                | 5                   | 0               | 0   |
|                 | Uribe Kostako M. (b)           | 62                | 19                               | 16                  | 2               | 1   |

a. 2024an, urrian jarri zen martxan baliabidea; datuak 4. hiruilekokoak dira.

b. Kotsultaren arrazoia indarkeria izan bada soilik zenbatzen dituzte egoera horiek, eta ez dira egoera horiek zenbatzen beste eskaeraren batek eragindako esku-hartzeetan hauteman badira.

(') Ez daukagu daturik.

Iturria: Geuk egina, BLHko udalerrietako eta mankomunitateetako datuekin.

## 1.3. ARRETA PSIKOLOGIKOA

### Eremua eta egoera orokorra

1/2004 Lege Organikoak, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babes emateko neurriak buruzkoak, II. tituluan **genero-indarkeriaren biktima direnen (emakumeak eta adingabeak) eskubideak**<sup>10</sup> jasotzen ditu. Bertan, 19. artikulua **gizarte-laguntza osorako** eskubidea ezartzen du (besteak beste, **arreta psikologikoa**), eta adierazten du halako zerbitzuak antolatzen dituztenean kontuan hartu beharko dituztela printzipio hauek: etengabeko arreta, presako jardutea, prestazioen espezializazioa eta diziplina-aniztasun profesionala.

Bestalde, EAEn, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak — **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legea**, martxoaren 3ko 1/2022 Legeko 1. artikulua ezarritakoaren arabera— honako hau dio: *“Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten administrazioek (...) emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima guztiei bermatu behar diete katalogoan eta sistema horren prestazio eta zerbitzuen zorroan jasotako zerbitzuak ematea, haien beharren arabera eta berehalakoan, haien egoera administratiboa edozein dela ere (...)”*, eta zerbitzu horien artean sartzen da laguntza psikosoziala eta psikologikoa, bai eta ingurune intimoko senide eta adiskideei segurtasun eta laguntza sozial eta psikologikoa emateko neurriak ere (56. artikulua).

Zorro hori eta bere prestazio eta zerbitzuetara heltzeko eskakizun, irizpide eta prozedurak **urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan** arautzen dira, **Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan**, hain zuzen ere. Horien artean daude, besteak beste, *emakumeen aurkako etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen egoeretan laguntza soziojuridikoa eta psikosoziala emateko zerbitzuak*. Osasun-prestazioen artean **laguntza psikologikoa (terapia psikologikoa)** ezartzen da, eta bi zerbitzu-mota hartzen dira kontuan: tratatu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako ekintzen biktimentzakoa; eta ekintza horiek eragiten dituzten erasotzaileentzakoa.

Bizkaian, Foru Aldundia **1992an** hasi zen arreta psikologikoko zerbitzu espezializatua ematen familietan esku hartzeko, tratatu txarrak eta sexu-erasoak direnean, eta biztanle guztiei zuzenduta dago. Gaur egun, zerbitzuaren izena Indarkeria matxistaren biktimei laguntza psikologikoa emateko zerbitzua «Esnatu» da.

---

<sup>10</sup> 2015ean, adingabeak ere genero-indarkeriaren biktima gisa hartu ziren. Uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoak, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duenak, (BOE, 2015/07/23) aldatu egiten du genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriak buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 1. artikulua; hala, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeen seme-alaba adingabeak ere indarkeria horren biktimatzat jotzen dira.



Era berean, arreta psikologikoko programak kudeatzen dituzte Bizkaiko zenbait udalerri eta mankomunitatek. Gehienak orokorrak dira, eta ez daude indarkeriara berariaz bideratuta. Programa horietako batzuek biztanleria osoa dute jomuga, eta beste batzuek, emakumeak soilik.

### 1.3.1. Bizkaiko Foru Aldundiaren baliabidea

#### Ezaugarriak: zerbitzuaren edukia eta egitura

Bizkaiko Foru Aldundiak ematen duen **indarkeria matxistaren biktimenezako arreta psikologikoko zerbitzua (ESNATU)** zenbait programaren bidez ematen da, xede dituen kolektiboen eta arazoen arabera:

- Bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako eta familia barruko indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren biktimei arreta, izan helduei, izan adingabeei, bai eta zuzeneko zein eta zeharkako biktimei.
- Indarkeria-mota horiek eragin dituzten erasotzaileei arreta.

Esku-hartzea honela egiten da:

- Diagnostikoa eta balorazioa.
- Banakako arreta psikologikoa: banakako tratamenduak, pertsona onuradunei laguntza psikologikoa eta psikoterapia eskaintzeko.
- Taldeko arreta psikologikoa, banako arreta psikologikoan esku-hartze osagarria egiteko.
- Artatutako kasuen jarraipena.
- Artatutako kasuen ebaluazioa.

2006ra arte, zerbitzua modu zentralizatuan eskaintzen zen, Bilbon. Hortik aurrera, deszentralizazio-prozesu bat hasi zen, eta, 18 urte geroago, **2024an, 11 arreta-puntu** ditu Bizkaian; hori dela eta, askoz ere biztanle gehiagok dute eskura arreta psikologiko espezializatua.

Horiek horrela, Bilbokoaz gain, Markina-Xemeinen ere arreta-puntu bat jarri zen 2006an, Lea-Artibai eskualdean bizi diren biztanleek Bilbora joateko izan zitzaketen zailtasunak arintzeko. 2009an, eskualde-estaldura Enkarterrira zabaldu zen –orduko Enkarterriko Mankomunitateko udalerriak eta Balmaseda barne–. 2013ko ekainean, Nerbioi eskualdean jarri zen martxan neurria. 2014an, beste bi arreta-puntu ezarri ziren. Bata, Durangon, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoari eta Berriz udalerriari estaldura emateko (azken hori, egun, mankomunitate horretan sartuta dago); eta, bestea, Gernika-Lumon, Busturialdeko herritarrek



artatzeko. 2015eko ekainean, zerbitzua Arratiako Mankomunitatera deszentralizatu zen. 2023an hiru arreta-puntu berri ireki ziren: Getxon, Leioan eta Portugaleten; eta **2024an prozesuak aurrera jarraitu du, eta arreta Bermeora hurbildu du.**

Epealdi horretako zati handi batean, programaren egitura aldatzeaz gain, zerbitzua emateko **ordutegiak ere zabaltu** dira, behar bezala erantzun ahal izateko **urtez urte haziz doan eskaerari**, hurrengo ataletan jasotako kopuruen bilakaerak erakusten duen moduan. 2024an, zehazki, **astean 628 zerbitzu-ordu** eskaini dira gutxienez, 11 arreta-guneetan banatuta.

Era berean, zerbitzua ematen duten profesionalen kopuruak ere gora egin du epealdi horretako zenbait unetan. 2024an, **koordinatzaile batek (psikoterapeuta) eta 23 psikoterapeutak osatzen dute taldea.**

### Erabiltzaileak: ezaugarri nagusiak

2024an zehar, guztira **1.920 lagunek** (% 92,3 emakumeak) jaso dute arreta zerbitzu espezializatu honen bitartez.

Kopuru horren barruan, programak heltzen dien indarkeria moten **biktima diren 1.772 emakume heldu eta neska gazte** daude.

Zerbitzuan artatutako pertsona guztien artetik, 1.190 kasu berriak dira, urtean tratamendua hasten dutenak. Kasuen **% 62** dira.

Taula honetan urtean zehar arreta jaso duten pertsonen –helduak eta adingabeak– banaketa ageri da, indarkeria-motaren eta zerbitzua osatzen duten programen arabera sailkatuta.

1.13. taula. Arreta Psikologikoko Zerbitzuan artatutako pertsonak (BFA). 2024.

|                                          | GUZTIRA      | EMAKUMEAK    | GIZONAK    |
|------------------------------------------|--------------|--------------|------------|
| <b>HELDUAK</b>                           | <b>1.748</b> | <b>1.656</b> | <b>92</b>  |
| + Bikote barruko indarkeriaren biktimak  | 1.301        | 1.296        | 5          |
| + Familia barruko indarkeriaren biktimak | 95           | 88           | 7          |
| + Sexu-indarkeriaren biktimak            | 177          | 169          | 8          |
| + Zeharkako biktimak                     | 91           | 78           | 13         |
| + Bestelako kasuen biktimak*             | 34           | 24           | 10         |
| + Erasotzaileak                          | 50           | 1            | 49         |
| <b>ADINGABEAK</b>                        | <b>172</b>   | <b>117</b>   | <b>55</b>  |
| + Indarkeriaren biktimak                 | 171          | 117          | 54         |
| + Erasotzaileak                          | 1            | 0            | 1          |
| <b>GUZTIRA</b>                           | <b>1.920</b> | <b>1.773</b> | <b>147</b> |


\* Bestelako kasuak: seme-alaba helduak, diskriminazioa/indarkeria lan-ingurunean, aurreko kategorietatik kanpoko ziberindarkeria.

Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

2024an artatutako pertsonen kopurua, beste behin ere, **serie historikoko baliorik handiena da (2005etik).**

- Aurreko urtearekin alderatuta, **% 7,9 handitu da** (2023an, 1.779 pertsona artatu ziren).
- Ikuspegia epealdiaren hasierara zabaltzen badugu, ikus daiteke 2024an artatuko pertsonen kopurua 2005ekoa baino ia hiru aldiz handiagoa dela.


Bilakaerari erreparatuta, zerbitzuan artatutako eskariak **goranzko joera egonkorra** du, oro har, eta beheranzko mugimendu gutxi izan ditu, deszentralizazio-prozesuarekin eta ordutegia zabaltzearekin batera. Urteen arteko igoera handienak zerbitzuak zabalkundea izan duen uneetan erregistratu dira: 2015ean % 17,4 handitu zen (2013etik 2015era bitartean lau arreta-puntu berri ireki ziren); eta 2023an ere antzeko aldaketa bat erregistratu da (% 17,7), Bizkaiko udalerrri handietako (25.000 biztanletik gora) hirutan arreta-puntuak zabaltzearekin bat etorriz.



Oharra: 2007az geroztik, *zeharkako biktimen* datuak hartzen dira kontuan zenbaketa orokorrean; aurreko bi urteetan ez ziren kontuan hartzen. 2024an, aurreko taulan zehaztutako bestelako kasuak ere hartu dira kontuan.

Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

Epealdian zehar, goranzko joera nabari da artatutako taldeetan, arazoa eta profila edozein direla ere; erasotzaileen taldeak soilik ditu irregulartasunak.



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

Hurrengo ataletan, kolektibo horietako bakoitzaren datu nagusiak aurkezten dira, erabiltzaileen kopuruaren eta dituzten ezaugarri garrantzitsuenen arabera, bai 2024. urteari dagokionez bai 2005az geroztik izandako bilakaerari dagokionez.

### 1.3.1.1. HELDUENTZAKO ARRETA

Zerbitzu honetan, arreta ematen zaie bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako eta/edo familiako indarkeriaren biktimei, bai eta sexu-indarkeriaren biktimei ere, bai zuzeneko biktimei, bai zeharkakoei –biktimarekin zuzeneko harremana duten eta haren sufrimendu-egoerak emozionalki gogor eragiten dien pertsonak–.


Horrez gain, programak erasotzaileei ere ematen die arreta.

## A. ESKU-HARTZEA BIKTIMEKIN

### Bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeria

Zerbitzuak dituen datuen arabera, 2024an **1.296 emakume** artatu dira bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriaren eraginez. Horien % 62 **kasu berriak** dira: **803 emakume**, aurreko urtekoaren oso antzeko kopurua (2023an, 797).

2024ko kasu berrien datuak esan nahi du **egunean 2 emakumek hasi dutela terapia Esnatun bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik (hilean 67 emakume)**. Adierazle horren beraren arabera, epealdiaren hasieran, hilean 23 emakumek hasten zuten terapia bat arrazoi horrengatik (2006). Datu horiek agerian uzten dute indarkeria-mota horren ondorioz erantzundako eskaera nabarmen handitu dela, eta **epealdian zehar pixkanaka** egin duela **gora**.



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

**1.14 taula. Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatik BFAko Arreta Psikologikoko Zerbitzuan artatutako emakumeen (kasu berriak) aldakuntza (%). 2006-2024**

|                          | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015  | 2016  | 2017  | 2018  | 2019 | 2020 | 2021  | 2022 | 2023  | 2024  |
|--------------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|-------|-------|-------|-------|------|------|-------|------|-------|-------|
| <b>Emakume kop.</b>      | 281  | 296  | 273  | 338  | 321  | 365  | 370  | 386  | 477  | 619   | 581   | 583   | 569   | 551  | 543  | 447   | 431  | 797   | 803   |
| Aldakuntza 2006tik (%)   | -    | 5,3  | -2,8 | 20,3 | 14,2 | 29,9 | 31,7 | 37,4 | 69,8 | 120,3 | 106,8 | 107,5 | 102,5 | 96,1 | 93,2 | 59,1  | 53,4 | 183,6 | 185,8 |
| Aldakuntza(%) urtez urte | -    | 5,3  | -7,8 | 23,8 | -5,0 | 13,7 | 1,4  | 4,3  | 23,6 | 29,8  | -6,1  | 0,3   | -2,4  | -3,2 | -1,5 | -17,7 | -3,6 | 84,9  | 0,8   |

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

Aurrez adierazi denez, hurbileko arreta-puntuak ugaritzeak (deszentralizazioa) eta ordutegiak zabaltzeak zerbitzurako sarbidea erraztu dute, eta emandako arretaren datuetan ikusten da hori.

Epealdi horretan, nabarmentzekoa da 2015ean izandako igoera. Aldaketa hori bat dator etapa baten amaierarekin eta Nerbioi eskualdean eta Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoan eta Busturialdeko eta Arratiako mankomunitateetan arreta-puntuak jartzearekin. Urte horretan izan zen datu-erregistroko lehen hamarkadako baliorik altuena, 619 emakume (paziente berri) artatu baitziren. Hurrengo bost urteetan, laguntza-eskaria urteko 500 kasu berritik gora mantendu zen. Bi urteko jaitsiera izan ondoren (2021 eta 2022), 2023an gora egin zuen eta 800 kasu berri inguru izatera iritsi zen. **2024an** zifra hori gainditu da, eta **serie historikoko maximo berrira** iritsi da. Aurreko paragrafoetan adierazi den bezala, 2023an eta 2024an zerbitzuaren lau arreta-puntu berri sortu dira.


## Adina

2024an artatutako emakumeen batez besteko adina 42 urtekoa izan da. Adierazle hori 39 urte eta 42 urte artean egon da epealdi osoan zehar. Azken urtean, adin-tartea 18 eta 86 urte bitartekoa izan da.

Tarteen arabera, **hamarretik sei (% 62) erdiko adinean daude**, eta banaketa homogeneoa dute erdiko bi adin-taldeetan artean: % 32 41 eta 50 urte bitartekoak dira, eta % 30 aurreko tartekoak (31-40 urte).

Datuak erregistratzen hasi zenetik, oro har, nahiko egonkor mantendu da adinaren arabeko arreta-eskaera, eta urtez urte antzeko banaketa izan du:

- Erabiltzaileen bi heren inguruk 31 eta 50 urte bitartean dituzte. Hori da erabiltzaile gehien dituen taldea.
- 40 urte arteko erabiltzaileak dira guztizkoaren % 45-50.
- Kasuen % 15 eta % 20 artean 50 urtetik gorakoek eta 30 urtetik beherakoek hartzen dituzte.



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

## Jaioterria


2024an, paziente berrien % 62 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak dira (497 emakume). Aldiz, % 38 atzerrian jaiotakoak dira (306 emakume). Aurreko urtearen aldean, bi talde horien aldakuntza alderantzizkoa da: lehenengoek behera egin dute (-%14) eta bigarrenak % 38 egin dute gora.

Azken horien kasuan, bai kopuru absolutua bai balio erlatiboa serieko **altuenak** dira, baita jatorri-herrialdeen aniztasuna ere (34 herrialde 2024an):

- Kontinenteka eta eskualdeka aztertuta, ohikoa denez, **Latinoamerikako** herrialdeetan jaiotakoak dira ugarienak: **%77**. Aurrekoak, Afrikako (% 10,5) –Magreb, nagusiki–, Europako (% 10,5) eta Asiako hainbat herrialdeetakoak dira.

- Herrialdeka, Kolonbia nabarmentzen da, kasuen laurdenak hangoak baitira (% 24). Hurrengoak, alde handiarekin: Paraguai (% 8); eta Bolivia, Nikaragua, Peru, Maroko eta Errumania (% 7 bakoitzak).

Talde bakoitzaren bilakaerak erakusten duenez, bertako eta beste autonomia-erkidego batzuetako emakumeek eragin dute epealdian izandako kasu-kopuruaren gorakada. 2013-2015 hirurtekoan handitu zen bereziki, eta urte horretatik aurrera jaisten hasi zen. 2023an gora egin zuen berriro ere, serieko maximoak erregistratu ziren. Bestalde, artatutako emakume atzerritarren kopurua modu neurritsuan igo da epealdi gehienez, baina etenik gabe, jaitsiera-une gutxiarekin. Azken hirurtekoan urteko igoerak nabarmenagoak izan dira; 2024ko datua 2007ko hasierakoaren boskoitza baino altuagoa izatera iritsi da, eta **serieko baliorik altuena** lortu du.



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

Hala ere, talde bakoitzeko 15 urte eta gehiagoko emakumezko biztanleriaren kopuru orokorrean erreparatuta, garrantzitsua da nabarmentzea **emakume biktimen tasa nabarmen handiagoa dela atzerrian jaiotakoen artean**. EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoen tasa 10.000 emakumeko 10,8koa da, eta atzerritar jatorriko emakumeen kasuan, berriz, 41,7koa; hau da, *ia lau aldiz altuagoa* da azken horien kasuan. Antzeko zerbait gertatzen da beste baliabide eta esku hartzeko esparru batzuetan, eta kasu honetan ere argi gelditzen da ahalegin handiagoa egin behar dela **arreta psikologiko espezializatuko baliabidea errazago eskuratzeko, horretarako egon litezkeen zailtasunak eta oztopoak ezabatuz**.



## Desgaitasuna

Zerbitzuak identifikatu duenez, 2024an bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria dela eta artatutako emakumeen artetik 40k dute **desgaitasunen bat (% 5)**. Kopuru absolututan, serieko baliorik altuena da.

## Emakumeen ardurapeko pertsonak

Paziente berrien bi herenek baino gehiagok (**% 68**) **adin desberdinetako seme-alabak dituzte beren kargura**, eta horiek ere indarkeria horren biktimak dira. Ehuneko hori guztizkoaren % 70 eta % 85 artekoa izan ohi da, hein handi batean baliabidera jotzen duten emakume gehienek adina dela eta.

2024an, **548 emakume** artatu dira guztira, gehienak adingabeko seme-alabaren batekin (% 88). Gainera, 41 emakumek beste pertsona batzuk dituzte ardurapean (aita, ama eta familiako beste pertsona batzuk).

## Bizileku duten udalerria

Programaren eskaeren lurralde-banaketa oso zabala da, eta horretan lagundu du zerbitzua pixkanaka deszentralizatzeak, eta, horrenbestez, **irigarritasun geografikoa hobetzeak**.

Zehazki, 2024an, erabiltzaileak (kasu berriak) **73 udalerritan** bizi ziren, eta udalerri horiek lurraldeko emakumeen **% 96** biltzen dituzte. Udalerrien tamainari eta kokapen geografikoari erreparatuta, orain arte erregistratu den **aniztasun handiena** da.

Udalerriaren tamainari erreparatuta eta INEren habitataren sailkapenaren arabera<sup>11</sup>, ESNATUn bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatik artatutako erabiltzaileak (**% 78,1**) nagusiki **10.000 biztanletik gorako hiri-udalerrietan** bizi dira. % 15,1 tamaina ertaineko udalerrietako emakumeak eta kasuen % 5,2 landa-eremuetan bizi dira (udalerri txikiak).

- **10.000 biztanletik gorako udalerri guztietan identifikatu da kasuren bat.**
- Tamaina ertaineko udalerri gehienetan ere (2.000-10.000 bizt.) kasuak izan dira; multzo horretako bost udalerri soilik ez dira agertu kasuen erregistroan: Berango, Lezama, Plentzia, Urduña/Orduña eta Usansolo.
- Udalerri txikien kasuan (2.000 biztanlera arte), erdiak baino gutxiagok (% 41) erregistratu du erabiltzailearen bat Esnatu programan.

---

<sup>11</sup> Hiri-udalerria: 10.000 biztanletik gora; Tamaina ertaina: 2.000-10.000 bizt.; udalerri txikiak edo landatarrak: 2.000 biztanle arte.  
<http://www.ine.es>




### Udalerri handiak eta mankomunitateak: artatutako biktimen tasa

Lurraldeko hamar udalerri handien multzoari erreparatuz gero (20.000 biztanle baino gehiago), azken urtean, balio erlatiboetan (10.000 emakumeko tasa), **Leioak** izan du tasa altuena: **biztanleria-indizea aintzat hartuta, udalerri horretan bizi diren emakumeek jotzen dute gehien zerbitzura**. Hurrengoak Bilbo eta Sestao dira, eta biak **lurraldeko batezbestekoaren (13,4) gainetik** daude. Multzo horretako gainerako udalerriak baterako batezbestekoaren azpitik daude; horien artean, Erandiok du tasarik baxuena.


Mankomunitateen arabera –nagusiki udalerri txikiak biltzen dituzte–, ohikoa denez, **Arratia** nabarmentzen da tasarik altuenarekin, eta hurrengoak Lea-Artibai eta Enkarterriak dira (hiru eremu horietan zerbitzua deszentralizatua dago). Azken urtean, ez da erregistratu Lea Ibarreko udalerrietako erabiltzailerik.

**1.26. grafikoa. Bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeriagatik BFAko Arreta Psikologikoko Zerbitzuan artatutako emakumeen (kasu berriak) tasa\*. 2024**

**a. 20.000 biztanletik gorako udalerriak**



**b. Mankomunitateak**



\*Tasa 10.000 emakumeko

Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.



## Familia barruko indarkeria

2024an **88 emakume** artatu dira Esnatu programan familia barruko indarkeriagatik. Erdiak inguru kasu berriak dira (45 emakume):

- Hamar kasutik ia zazpitan (**% 69**) **erasotzailea emakumearen aurreko ahaidea** izan da, eta kasuen % 24 ondorengoei dagokie; % 7k beste familia-lotura batzuk dituzte.
- Erabiltzaileen erdia baino gehiago (**% 53**) **18 eta 30 urte bitartekoak** izan dira. Ia bi heren (% 64,4) ez dira 40 urtera iristen.
- Gehienak EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaioetako emakumeak dira (% 84,4), eta % 15,6, berriz, atzerrian jaioetako emakumeak (kasu guztietan, Latinoamerikako herrialdeetakoak).
- Bizkaiko 20 udalerritan bizi dira, % 78 20.000 biztanletik gorako udalerri handietan (multzo horretako udalerrietatik, Erandion soilik ez da kasurik erregistratu).
- Hiru emakumek desgaitasunen bat dute (% 6,7).


## Sexu-indarkeria

Arreta psikologikoko zerbitzuak duela gutxi edo aspaldi gertatutako sexu-indarkeriaren biktimei tratamendua eskaintzen die; biktima horiek pairatzen dituzten ondorio psikologikoak gainditzea du xede –trauma-ondoko estresa eta horrekin lotutako sintoma psikopatologikoak–.

Emandako datuen arabera, 2024an **169 emakumek** jaso dute laguntza psikologikoa sexu-indarkeriagatik. Datu hori ezin da aurreko urteetakoekin alderatu; izan ere, zerbitzuaren zenbaketa-irizpideetan izandako aldaketengatik, senitartekoek eragindako sexu-indarkeriako kasuak ere barne hartzen ditu, eta 2005-2023 aldiko datuak, berriz, bikotekide- eta familia-esparrutik kanpoko sexu-indarkeriako kasuetara mugatzen dira.

Zerbitzuko sexu-indarkeriaren kopuruaren bilakaerari buruzko alderaketak egin ahal izateko, 2024ko kasu berrien zifra aztertu eta birkalkulatu da, eta senideek eragindako indarkeria-kasuak kendu zaizkio. Era horretan, kasu berrien seriea konparatzeko modukoa bihurtu da, eta 2024ak aurreko lau ekitaldietako kasu-bolumenaren parekoarekin itxi du bosturtekoa (70-75 kasu berri). Honako grafiko honek kasu horien bilakaera erakusten du. Bolumenak goranzko joera nabarmena du 2016az geroztik, aurreko ataletan adierazi den bezala.

1.27 grafikoa. BFAko Arreta Psikologikoko Zerbitzua. Sexu-indarkeria. Artatutako emakumeak, kasu motaren arabera. BLH. 2005-2024



**Oharra:** 2024ko guztizkoak senideek eragindako sexu-indarkeriako kasuak ere barne hartzen ditu, eta, beraz, ezin da alderatu aurreko urteetakoarekin, bikotekide- eta familia-esparrutik kanpoko sexu-indarkeriari buruzkoak soilik baitira. Bilbearekin eta kolore-aldaketarekin adierazita dago datuen puntuan. Kasu berrien serieak konparagarritasunari eusten dio, 2024ko zifra (110) birkalkulatu baita, senideen indarkeria-kasuak (37) kenduta.


**Iturria:** BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

Jarraian, 2024an Esnatun artatutako kasu berri guztien (110) ezaugarri nagusiak adierazten dira.

### Erasotzailearekiko harremana

Sexu-indarkeriagatik Esnatun artatutako kasuen artean, **erasotzaile gehienak (% 85) biktimaren ezagunak dira**, izan senideak (% 37), izan ingurukoak (% 48). Azken horiek 48 kasu biltzen dituzte, eta honela banatzen dira: harremanik ez duen pertsona ezaguna (% 20); laguna (% 9,1); lan-, ikasketa- edo aisialdi-ingurune pertsona (% 8,2); eta beste batzuk (% 6,4). Horrez gain, sei emakume artatu dira taldeko erasoak direla eta (pertsona ezagunenak eta ezezagunenak).

1.28 grafikoa. BFAko Arreta Psikologikoko Zerbitzua. Sexu-indarkeria. Artatutako emakumeak erasotzailearekiko harremanaren arabera (kasu berriak). 2024



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.




## Adina

Kasu berrien ia erdiak (% 47,3) **18 eta 30 urte**

bitartekoenak dira: 52 kasu, hain zuzen.

Adin horretatik aurrera, kasuak nabarmen murritzten dira. Datuek indarkeria-mota horrekin lotuta zerbitzuan artatu diren pertsonen ohiko adin-profila erakusten dute, eta **behera egiten du adinean gora egin ahala**.

1.29 grafikoa. BFAko Arreta Psikologikoko Zerbitzua.  
Sexu-indarkeria. Artatutako emakume % adinaren arabera (kasu berriak). 2024



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

## Jaioterria

**% 53** EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak dira (58 emakume), eta % 47, berriz, atzerrian jaiotakoak (52 emakume).

Azken horien jatorria Latinoamerikako herrialdeetakoak da nagusiki (% 86,5). Gainerakoak Europako (% 5,8), Afrikako (% 3,8) eta Asiako (% 3,8) herrialdeetakoak izan dira.

## Desgaitasuna

Zerbitzuaren datuen arabera, desgaitasuna duten zazpi emakume daude azken urtean hartutako kasu berrien artean (% 6,4).

## Bizileku duten udalerria

Artatutako emakumeak **35 udalerritan** bizi dira; orain arte **erregistratu den aniztasun handiena** da bizilekuari dagokionez, indarkeria-mota horretan.


Hamar pertsonatik zazpi (% 71) Bizkaiko hamaika udalerrri handietakoren batean bizi dira, 20.000 biztanletik gorakoetan. Multzo horretako udalerrri guztietan izan da erabiltzaile berriren bat 2024an.

### Zeharkako biktimak

Foru Aldundiaren arreta psikologikoko zerbitzuan, indarkeriaren biktimaren inguruko pertsoneri ematen zaie laguntza, biktimak bizi duen egoerak psikologikoki eragiten badie. Funtsean, biktimaren senideak izan ohi dira (gurasoak, anai-arrebak...), bai eta, batzuetan, biktimarekin harreman estua duten lagunak ere.

2024an zehar, **zeharkako 91 biktima** artatu dira guztira Esnatun, aurreko urtean baino % 12,5 gutxiago. Ohikoa denez, gehienak **emakumeak** dira: **% 86**.

Bilakaerari dagokionez, eta programaren ibilbide globalarekin batera, zeharkako biktimen kopuruak ere goranzko joera erakusten du, eta une gutxitan jaitsi da aintzat hartutako urteetan zehar.



Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

1.15 taula. Arreta Psikologikoko Zerbitzuan (BFA) artatutako zeharkako biktimak kasu-motaren arabera. 2007-2024

|         | 07 |    | 09 |    | 11 |    | 13 |    | 15 |    | 17  |     | 19  |    | 21 |    | 23  |    | 24 |    |
|---------|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|-----|-----|-----|----|----|----|-----|----|----|----|
|         | G  | E  | G  | E  | G  | E  | G  | E  | G  | E  | G   | E   | G   | E  | G  | E  | G   | E  | G  | E  |
| Guztira | 24 | 23 | 42 | 37 | 72 | 59 | 60 | 50 | 79 | 70 | 118 | 100 | 114 | 92 | 95 | 84 | 104 | 92 | 91 | 78 |
| KB      | 11 | 11 | 31 | 28 | 40 | 30 | 37 | 32 | 56 | 51 | 61  | 49  | 71  | 56 | 50 | 45 | 62  | 56 | 53 | 46 |

G- Guztira / E- Emakumeak / KB- Kasu berriak  
 Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

Jarraian, 2024an Esnatun artatutako kasu berri guztien (53) ezaugarri nagusiak adierazten dira.

- **Sexua**

Azken urtean terapia hasi duten 53 zeharkako biktimen artetik 46 emakumeak dira (% 87) eta 7, berriz, gizonak (% 13).

- **Arretaren eragilea (zuzeneko biktimak jasandako indarkeria-mota)**

Zuzeneko biktimak jasandako indarkeria-motaren arabera, erdia baino gehiago sexu-indarkeriarekin lotutakoak dira (% 57), heren bat inguru bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin (% 32) eta gainerakoak (% 11) familia barruko indarkeriarekin.

- **Jaioterria**

Artatutako zeharkako biktimen % 57 EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotakoak dira (30 pertsona), eta % 43 atzerriko herrialdeetan jaiotakoak (23 pertsona).

## **B. ESKU-HARTZEA ERASOTZAILEEKIN**


Bizkaiko Foru Aldundiko Arreta Psikologikoko Zerbitzuak erasotzaileentzat egiten duen esku-hartzea biktima diren emakumeei ematen zaien arreta psikologikoaren osagarri da, eta aitzindaria da estatuan. Emakumeen ongizate psikologikoa ziurtatu nahi du, bai erasotzailearekin bizitzen jarraitzen dutelako, bai bikotea banantzen bada erasotzaileak etorkizunean tratu bera eman diezaiokeelako beste emakume bati, bai eta indarkeria seme-alabengana irits dadin eragotzi nahi delako ere.

2024an, **49 gizon**ek jaso dute arreta programan (guztira artatutako erasotzaileen % 98k). % 27 gutxiago dira 2023ko zifrarekin alderatuta (67 erasotzaile artatu ziren 2023an).

Kasuen erdiak baino gehixeago urte horretako kasu berriak dira (% 53):

- **% 76 bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeriagatik daude programan** (19 kasu); eta % 20 familia barruko indarkeriagatik (5 kasu) eta % 4 sexu-indarkeriagatik (kasu 1).
- Adin-banaketan aldeak daude indarkeria-motaren arabera. Bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aurkako indarkeria-kasu gehienak (% 74) tarteko adinean daude, 31-50 urte bitarteko taldean (erdia baino gehiago, % 53, 41 eta 50 urte bitartean). Familia barruko indarkerian, gehienak 18 eta 40 urte bitartekoak dira (% 80). Sexu-indarkerian, adin-tarte gazteenak ageri dira (18-20 urte).
- Jaiolekua kontuan hartuta, % 72 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaioak dira, eta % 28, atzerriko herrialdeetan.

Hurrengo grafikoan erasotzaileen kasu berriek 2004tik izan duen bilakaera ikusten da; zatirik handiena gizonen osatzen dute. Bi hamarkadetan zehar, 827 gizon erasotzailek hasi dute terapia zerbitzuan, eta **urtean, batez beste, 40 kasu berri izan dira**. Ia urtero, % 90 baino gehiago erasotzaileak izan diren bikotekide / bikotekide ohien kasuak dira.



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

2013an eta 2017an artatu ziren gizon gehien (52 kasu). Ondoren, kopuruak lau urtez behera egin zuen, 2021era arte. Hurrengo bi urteetan, % 50eko eta % 67ko igoerak erregistratu ziren. 2024an berriro egin du behera, eta aldiko zifrarik txikienera du.


### 1.3.1.2. ADINGABEENTZAKO ARRETA

2024an, **171 adingabeko biktimek** jaso dute arreta psikologikoa Esnatun: 117 neskek (% 68) eta 54 mutilek (% 32). Aurreko urtearekin alderatuta, adingabeen kopurua % 6,2 igo da. % 68,2 kasu berriak dira: guztira 116 adingabe, 76 neska eta 40 mutil.

Adingabeen guztizkoa, bai eta, zehazki, mutilen datua ere, **aldiko punturik altuenera** iritsi dira, 2024an zerbitzuak erregistratu dituen mutilen kasu berrien gorakadak eraginda.

Grafiko honek erakusten du zer **bilakaera** izan duten programan arreta jaso duten **kasu berriek**. Indarkeria-mota horietakoren bat jasaten duten **nesken kasuak ugaritzeak** eragin du, argi eta garbi, goranzko joera. Zerbitzuan artatu diren gainerako kolektiboekin gertatzen den bezalaxe, kasu honetan ere, izandako gorakadak agerian utzi du deszentralizazioaren eta arreta-orduak zabaltzearen eragina, programan sartzeko bidea errazten baitu arreta-orduak zabaltzeak.

2004 eta 2024 bitartean, adingabeen tratamendu berrien **1.159** espediente ireki edo berriz ireki dira; **neskak dira gehienak (% 73,2).**



Oharra: 2013tik aurrera, zenbaketan kontuan hartzen da bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktima diren adingabeen kopurua.

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna sustatzeko sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

### Adingabeko biktimen ezaugarriak (kasu berriak)


#### ▪ Sexua

2024. urtean, guztira, adingabeen 116 kasu berri jaso dira; **% 65,5 neskak dira, eta % 34,5 mutilak.**

#### ▪ Indarkeria-mota edo -testuingurua

- Neskak: Kasuen 3/4etan, familia barruko indarkeriak (% 42,1) edo amaren aurkako genero-indarkeriako testuinguruak (% 32,9) eragin dute zerbitzuan arreta psikologikoa jasotzeko beharra. % 18,4k sexu-indarkeria jasan du, eta gainerako % 6,6 adingabeari bere bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria-kasuak dira.
- Mutilak: Ia guztiak amaren aurkako genero-indarkeriaren ondorioz (% 62,5) edo familia barruko indarkeriaren ondorioz (% 35) sartu dira programan.

**1.33. grafikoa. BFAko Arreta Psikologikoko Zerbitzua. Adingabeak (kasu berriak) sexuaren eta indarkeria-motaren arabera. 2024**



Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

#### Adina

Zerbitzuaren datuetan ohikoa den bezala, adina 5 urte baino gutxiagotik 17 urte artekoa izan da, baina 12 eta 17 urte bitarteko **nerabeak izan dira gehienak (% 65)**; nesken artean nabarmenagoa da hori (% 75) mutilen artean baino (% 48).

**1.16 taula. Arreta Psikologikoko Zerbitzuan (BFA) arrera jasotzen duten adingabeak (kasu berriak), sexuaren eta adinaren arabera. 2024**

|                | Neskak    | %            | Mutilak   | %            | GUZTIRA    | %            |
|----------------|-----------|--------------|-----------|--------------|------------|--------------|
| 0-5 urte       | 0         | 0,0          | 1         | 2,5          | 1          | 0,9          |
| 6-7 urte       | 4         | 5,3          | 5         | 12,5         | 9          | 7,8          |
| 8-9 urte       | 6         | 7,9          | 8         | 20,0         | 14         | 12,1         |
| 10-11 urte     | 9         | 11,8         | 7         | 17,5         | 16         | 13,8         |
| 12-13 urte     | 17        | 22,4         | 6         | 15,0         | 23         | 19,8         |
| 14-15 urte     | 19        | 25,0         | 9         | 22,5         | 28         | 24,1         |
| 16-17 urte     | 21        | 27,6         | 4         | 10,0         | 25         | 21,6         |
| <b>Guztira</b> | <b>76</b> | <b>100,0</b> | <b>40</b> | <b>100,0</b> | <b>116</b> | <b>100,0</b> |

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarritzat hartuta egina.  
Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

**Indarkeria-motak** adinaren arabera banan-banan aztertzean, ezaugarri hauek hauteman dira:

- Amaren aurkako genero-indarkeriak adin guztietako adingabeei eragin die.
- 2024an, sexu-indarkeriako kasuek, bereziki, neskei eragin diete, eta 11 urtetik aurrerakoetan izan dira.
- Azken urtean, beren bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria 15 eta 17 urte bitarteko nesketan soilik erregistratu da.
- Familia barruko indarkeria-kasuak 7 urtetik aurrerako adingabeetan erregistratu dira. Nesken artean, gehienak 12 eta 17 urte bitarteko nerabeak dira (% 75). Mutilen



banaketa zabalagoa dute: kasuen erdiek 12 urte edo gutxiago dituzte, eta beste erdiek adin horretatik gora daude.

### 1.3.2. Udalerrien eta mankomunitateen mendeko baliabideak

Kapitulu honen hasieran adierazi den bezala, Foru Aldundiaren programa espezializatuaz gain, Bizkaiko zenbait udalerrik eta mankomunitatek beren baliabideak dituzte arreta psikologikoa emateko. **Programa heterogeneoak** dira, **espezializatu gabeak gehienak**, eta, zenbaitetan, biztanle guztiak dituzte helburu eta ez, bereziki, biktimak<sup>12</sup>. Alde horretatik, kasu askotan, mota horretako arazo espezifiko bat hautematen denean, biktimei arreta emateko Foru Aldundiaren programa espezializatura bideratzen dira pazienteak.

Programa horiei dagokienez, zaila da erakundeak alderatzea eta baliabide batzuen eta besteen arteko loturak ezartzea, bai eta epe luzerako denbora-segidak aztertzea ere. Besteak beste, datuak hainbat lekutatik datozenek, zaila da horiek bateratzea. Batzuetan, erakundeek irizpide desberdinak kontuan hartuta biltzen dute informazioa; zerbitzu gehienak ez daude gai honetan espezializaturik, eta beste arazo psikologiko batzuk ere biltzen dituzte; eta datuak zenbatzeko ezarritako kategoriak ez dira beti homogeneousak izaten. Hori guztia dela eta, kontuz balioetsi behar dira datuak eta atera behar dira ondorioak.

2001ean, *Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasotzen dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko l. akordioa* izenpetu zenez geroztik ezarri ziren baliabide horietako gehienak. Data hori baino lehen, lau toki-entitatek bakarrik zituzten laguntza psikologikoko zerbitzuak: Bilbon<sup>13</sup>, 1982az geroztik; Leioan, 1985az geroztik; eta Galdakaon eta Mungialdeko Partzuergoa zenekoan, 2000. urteaz geroztik.

2024. urtearen bukaeran, guztira **18 erakundek<sup>14</sup> (15 udalerrik eta hiru mankomunitatek)** dituzte biktimei arreta psikologikoa emateko baliabide propioak. Udalerririk horietan 275.700 emakume baino gehiago bizi dira, guztira; hau da, lurralde osoan emakumeen **% 46**. Foru Aldundiaren zerbitzua lurralde osoan pixkanaka deszentralizatzek desberdintasunak sortu ditu tokiko baliabideen mapan, udal-programa horietan hautemandako kasuak Foru Aldundiaren arreta espezializatura bideratzen baitira.

---

<sup>12</sup> Informazio gehiago nahi izanez gero, BIMBen dokumentu honetara jo dezakezu: *“Foru-baliabideak eta udalerrietako eta mankomunitateetako baliabideak. Emakumeen kontrako indarkeria matxista”*. Sarbidea: <https://www.bizkaia.eus/eu/ovm/indarkeria-matxistaren-inguruko-politika-publikoak>.

<sup>13</sup> Gaur egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren arreta psikologikoko programara igortzen dira Bilbon indarkeriaren biktima diren eta arreta psikologikoa behar duten emakumeak; hala eta guztiz ere, Emakumeen Udal Zerbitzuak hitzarmen bat dauka Modulu Psikosozialekin, biktimei arreta emateko itxaron-zerrenda badago. Ohiz kanpoko egoeretan, aipaturako kasuetako bat horietara igortzeko erabakia har dezake Udalak egoki irizten badu, Foru Aldundiaren programa ematerakoan atzerapenik ez badago ere.

<sup>14</sup> Azaldu berri den arrazoa dela eta, Bilbo udalerririk ez da zenbaketa horretan sartzen.



1.17. taula. Arreta psikologikoko baliabide propioak dituzten udalerriak eta mankomunitateak. BLH. 2006-2024

|            | 2006               | 2007 | 2008 | 2009 | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 | 2015 | 2016 | 2017 | 2018 | 2019 | 2020 | 2021 | 2022 | 2023 | 2024 |
|------------|--------------------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|------|
| UDALERRIAK | Amorebieta-Etxano  | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Barakaldo          | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Basauri            | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Berriz             | -    | -    | -    | -    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    |
|            | Bilbo (a.)         | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  | (*)  |
|            | Elorrio            | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | ✓    |
|            | Erandio            | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Ermua              | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Galdakao           | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Gernika-L. (b.)    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | -    | -    |
|            | Getxo              | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Leioa              | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | -    | -    |
|            | Muskiz             | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Orozko             | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Portugalete        | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Santurtzi          | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Sestao             | -    | -    | -    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Urduña/ Orduña     | -    | ✓    | ✓    | -    | -    | -    | -    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | -    | -    | -    | -    | -    | ✓    | ✓    |
|            | Zalla (c.)         | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    |
|            | Zierbena           | -    | -    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
| MANK.      | Durangoko MM. (d.) | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    |
|            | Enkarterriko M.    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | ✓    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    |
|            | Mungialdeko M.     | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Txorierriko M.     | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | -    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |
|            | Uribe Kostako M.   | -    | -    | -    | -    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    | ✓    |

Oharra:

(a.)(\*) Bilboko Udalak kasuak BFAko arreta psikologikoko programara bideratzen ditu, eta azkar artatu ezin direnean soilik bidaltzen ditu Modulu Psikosoziatara (hitzarmena du haiekin). Ohiz kanpoko egoeretan, aipatutako kasuetako bat modulu horietara igortzeko erabakia har dezake Udalak egoki irizten badu, Foru Aldundiaren programa ematerakoan atzerapenik ez badago ere.

(b.) 2001etik 2017ra, udalerriko baliabideak Busturialdeko gainerako udalerriei ere zerbitzua ematen zien. 2018ko irailean zerbitzua berriz martxan jarri zen, baina, orduz geroztik, Gernika-Lumoko emakumeei bakarrik eman die zerbitzu.

(c.) Enkarterriko Mankomunitateko gainerako udalerriei ere ematen zien zerbitzua.

(d.) 2014ko apirilaren 1era arte egon zen martxan, zonalde hartan foru-baliabidea deszentralizatu arte.

Iturria: Geuk egina, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien eta mankomunitateen datuekin.


## Biztanle erabiltzaileak

Kontu handiz, tokiko baliabide horietatik eskuratutako datuekin egin bezala, erakunde titularrek emandako datuak deskribatuko ditugu, laburki.

Oro har, baliabide hauek erabiltzaile gutxi izan dituzte. 2024ko datuen arabera, erregistrorik altuena 191 lagunekoa da, eta txikiena, bost lagunekoa.

Hurrengo grafikoan erakundeak mailakatu dira, urtean hartutako erabiltzaile guztien artean indarkeria zenbatek jasan duten kontuan hartuta. Santurtzik, Barakaldok, Elorriok eta Erandiok emakumeen aurkako indarkeria matxistan berariaz esku hartzeko programak dituzte.

Aurreko kapituluan aholkularitza juridikoko tokiko baliabideez jardutean adierazi denaren ildo beretik, erakundeen arteko aldeak aztertzean, baliabide publikoen erabilera-maila desberdinari lotutako alderdiak kontuan izateaz gain, ezin dira baztertu, besteak beste, kasuen **infraidentifikazioagatiko alborapen** posibleak. Izan ere, erakundeen artean desberdintasunak daude emakumeen aurkako indarkeriari buruzko sentsibilizazioaren eta prestakuntzaren alorrean, eta behar besteko mailarik ez denean, oztopo bihurtzen dira kasuak *hautemateko eta aztertze*ko.



Iturria: Geuk egina, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien eta mankomunitateen datuekin.



## Bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeria, familia barruko indarkeria eta/edo sexu-indarkeriako kasuak

Tokiko udal-erakundeen programetan bildutako zenbatekoak aztertzean, kontuan hartu behar da, besteak beste, baliabide horiek gero eta estaldura zabalagoa dutela, tresna gehiago jarri baitira, eta, horrenbestez, kasu gehiago hautematen direla; bai eta Foru Aldundiaren zerbitzu espezializatua lurraldeko hainbat eremutara deszentralizatu dela ere, eta, horren ondorioz, udal-baliabideetan hautemandako kasuak bideratu egin direla.

Ohi bezala, 2024an ere **Barakaldon** izan zen indarkeria-kasuen kopuru handiena: 122 emakume (artatutako kasuen % 100).

Berrito azpimarratu behar da datu horiek kontu handiz hartu behar direla lehen ere adierazitako arrazoiengatik, bai eta, oharretan azaldu denez, zenbait kasutan ekitaldi osoko daturik ez dagoelako ere.

**1.18 taula. Udalerrietako eta mankomunitateetako arreta psikologikoko baliabideetan arreta jaso duten eta indarkeria pairatu duten emakumeen kopurura. BLH. 2004-2024.**

|                 | 04 | 05  | 06  | 07  | 08  | 09  | 10  | 11       | 12  | 13  | 14  | 15  | 16  | 17  | 18  | 19  | 20  | 21  | 22  | 23  | 24  |
|-----------------|----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|----------|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|-----|
| Amorebieta-E.   | /  | 20  | 52  | 13  | 5   | 11  | 11  | 9        | 12  | 8   | 17  | 14  | 10  | 9   | 11  | 7   | 8   | 19  | (') | 17  | 14  |
| Barakaldo (a.)  | /  | 21  | 30  | 28  | 73  | 69  | 79  | 23       | 73  | 90  | 81  | 65  | 68  | 73  | 74  | 91  | 115 | 106 | 117 | 107 | 122 |
| Basauri         | 20 | 26  | 22  | 26  | 13  | 19  | 19  | 16       | 21  | 18  | 17  | 17  | 25  | 33  | 43  | 45  | 49  | 56  | 38  | 39  | 40  |
| Berriz          | /  | /   | /   | /   | /   | /   | (') | (')      | 3   | 5   | (-) | (-) | (-) | (-) | (-) | (-) | (-) | (-) | (-) | (-) | (-) |
| Elorrio         | /  | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /        | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | 7   |
| Erandio         | /  | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /        | /   | /   | /   | /   | /   | /   | (') | 22  | (') | 41  | 53  | 82  | 83  |
| Ermua           | 12 | 7   | 12  | 14  | 13  | 14  | 7   | 11       | 20  | 15  | 13  | 14  | 11  | 6   | 16  | 27  | 26  | 27  | 29  | (') | 43  |
| Galdakao        | 33 | 21  | 34  | 34  | 28  | 32  | 45  | 14       | 63  | 43  | 45  | 32  | 59  | 64  | 42  | 59  | 57  | 62  | 87  | 86  | 64  |
| Gernika-L. (b.) |    | 22  | 7   | 7   | 11  | 14  | 14  | 17       | 9   | 10  | 18  | 15  | 14  | (') | 1   | 9   | 3   | 9   | 12  | /   | /   |
| Getxo           | 31 | 1   | 21  | 23  | 26  | 15  | (") | 12       | 9   | 4   | 16  | 14  | 13  | 13  | 10  | 16  | 15  | 15  | 14  | 16  | 7   |
| Leioa           | 7  | 4   | 6   | 5   | 13  | 16  | 23  | 14       | 12  | 20  | 11  | 14  | 7   | 9   | 9   | (') | 10  | 8   | 11  | /   | /   |
| Muskiz          | 4  | 0   | 1   | 1   | 0   | 4   | 11  | 11       | 9   | 5   | 5   | 5   | 4   | 4   | 3   | 4   | (') | 9   | 4   | 7   | 8   |
| Orozko          | /  | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /        | /   | /   | /   | /   | /   | (') | (') | (') | (') | 0   | 3   | 2   | 4   |
| Portugalete     | /  | 2   | 12  | 14  | 7   | 14  | 7   | 11       | 18  | 18  | 33  | 15  | 16  | 23  | 19  | 20  | 31  | 11  | 55  | 63  | 54  |
| Santurtzi       | /  | 0   | 36  | 52  | 37  | 48  | 59  | 69       | 60  | 72  | 74  | 71  | 53  | 61  | 72  | 68  | 56  | 47  | 55  | 74  | 65  |
| Sestao          | /  | (-) | (-) | (-) | (-) | 8   | 3   | 10       | 26  | 32  | 27  | 17  | 17  | 17  | 22  | 21  | 12  | 26  | 77  | 58  | 68  |
| Urduña/Orduña   | /  | /   | (') | 3   | 0   | (') | /   | /        | /   | /   | 0   | 0   | 0   | (') | /   | /   | /   | /   | /   | 9   | 14  |
| Zalla (c.)      | 11 | 5   | 1   | 15  | 9   | (-) | (-) | 8<br>(-) | 9   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   |
| Zierbena        | /  | /   | /   | (') | (') | (') | (') | (')      | (') | (') | (') | (') | (') | (') | (') | (') | (') | (') | 1   | 5   | 5   |
| Durangoko M.M.  | /  | /   | 6   | 17  | 31  | 40  | 53  | 45       | 28  | 27  | 8   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   |
| Enkart. M.      | /  | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /        | /   | 6   | (-) | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /   |
| Mungiald. M.    | 13 | 10  | 6   | 9   | 4   | 3   | 27  | 26       | 12  | 10  | 7   | 6   | 9   | 11  | (') | 5   | 10  | 12  | 16  | 12  | 12  |
| Txorierriko M.  | /  | /   | /   | /   | /   | /   | /   | /        | /   | /   | /   | /   | /   | /   | 11  | 2   | 15  | 9   | (') | 29  | 36  |
| Uribe Kost. M.  | /  | /   | /   | /   | /   | /   | 21  | 10       | 10  | 5   | 5   | 3   | 5   | 4   | 8   | (') | 17  | 11  | 7   | 8   | 26  |

/ Erakundeak ez dauka baliabiderik.

(-) Indarkeria-kasuak eskualdean deszentralizatutako BFaren arreta psikologikoko programa espezializatura bideratzen dira.

(') Ez dugu daturik.

(a.) 2011ko datua 2011ko azaroaren 15etik abenduaren 31ra bitartekoa da soilik, erakunde horrek ez baitu informazio gehiago.



(b.) 2017ra arte, baliabideak Busturialdeko gainerako udalerriei ere ematen zien zerbitzua. 2018tik aurrera, Gernika-Lumoko emakumeei bakarrik zuzentzen zaie. 2018ko datua ekainetik abendura bitartekoa da.

(c.) Baliabideak Enkarterriko Mankomunitateko gainerako udalerriei ematen zien zerbitzua.

Iturria: Geuk egina, Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrien eta mankomunitateen datuekin.

## Artatutako kasuen ezaugarri nagusiak

### ▪ Bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeria

Arreta psikologikoko baliabidea duten **erakunde guztiek** hartu dituzte 2024an bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeria jasan duten emakumeak.

Datuen guztizkoa aintzat hartuta, erdia inguru kasu berriei dagokie ( % 48,3), eta ezaugarri hauek dituzte:

- Ia hamarretik lau (**% 38**) **atzerriko herrialdeetan jaioak** dira. Kasu berriak erregistratu dituzten erakunde guztiek atzerritar jatorriko erabiltzaileak artatu dituzte.
- **Adin-tarte guztietan** identifikatu dira **kasuak**. Gehien ageri den adin-tartea emakume heldu gazteena da, 31 eta 40 urte bitartekoa (% 39); eta, horien ondoren, 41 eta 50 urte bitarteko taldea (% 23): **hamar emakumetik sei tarteko adin horietakoa** da. Muturretako adinei erreparatuta, 7 adingabek jo dute tokiko baliabideetara ( % 2,7) bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeriagatik. Beste muturrean, 65 urte edo gehiagoko emakumeei dagozkie artatutako kasu guztien % 7 (20 emakume), eta bederatzi erakundetan banatuta egon dira.
- Desgaitasuna duten sei emakume daude artatutako kasuen artean (% 2,3).

### ▪ Familia barruko indarkeria

Arreta psikologikoko baliabidea duten 18 erakundeetatik 16tan artatu dira emakumeak familia barruko indarkeriagatik, tokiko programa horien bidez.

Kasuen erdiak baino gehiago urte horretako kasu berriak dira (% 57):

- Batez ere, **aurreko ahaideek (% 51,1) eta ondorengoek (% 42,2)** eragindako indarkeria izan da. Gainerako % 6,7k beste era bateko familia-lotura zuen.
- Indarkeria-mota horretan ere adin-tarte guztietako kasuak agertu dira. **41-50 urte** bitartekoen tartea da ugariena, eta erabiltzaileen herena biltzen du. Adin horretatik gorakoak dira erabiltzaileen % 27; eta hortik beherakoak gainerako % 40a.
- Batez ere, **EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak (% 80)** sartu dira udal-programetan familia barruko indarkeriagatik; % 20, aldiz, atzerritar jatorriko emakumeak izan dira.



- Desgaitasuna duten bi kasu identifikatu dira (% 4,4).

#### ▪ Sexu-indarkeria

Arreta psikologikoko zerbitzua duten 18 erakundeetatik 12k sexu-indarkeriako kasuak erregistratu dituzte azken urtean, eta, guztira, 52 emakume artatu dituzte, ia-ia aurreko urteko kopuru bera (51 izan ziren 2023an).

Kasuen erdiak erabiltzaile berrienak izan dira (26 emakume). Erakundeen datuen arabera, hauek dira adierazle nagusiak:

- Kasu gehienak 40 urtetik beherakoei dagozkie (% 69). Ia herenak **(% 31) 20 urte baino gutxiago** ditu, eta horien artean bost adingabe daude.
- Jaiolekua kontuan hartuta, **% 77** EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaioak dira, eta % 23, atzerriko herrialdeetan.
- Bi emakumek desgaitasuna dute (% 7,7).

## 1.4. SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMENTZAKO ARRETA INTEGRALA (24 ORDUKO KRISI-ZENTROA)

### Eremua eta egoera orokorra

Arreta-mota hori sexu askatasunaren berme integralari buruzko 10/2022 Lege Organikoan sartzen da, zeinak sexu-indarkeriaren biktimek arreta integrala, espezializatua eta eskuragarria jasotzeko duten eskubidea ezartzen baitu. Legean xedatutakoaren arabera, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, sexu-indarkeriaren biktimei arreta, babes eta erreparazio osoa emateko zerbitzu publiko espezializatuak daudela eta eskura dituztela bermatzeko legezko betebeharra dute.

Zehazki, 35.1 artikuluan, legeak ezartzen du 24 orduko krisi-zentroak jarri beharko direla martxan, honela definituta:

- a) *24 orduko krisi-zentroak: laguntza psikologikoa, juridikoa eta soziala ematen duten zerbitzuak. Etengabeko arretaren eta premiazko jardunaren irizpideei jarraiki, krisi-egoeretan laguntza eta babesa emango zaie biktimei, senideei eta inguruko pertsonei. Zentro horietan, telefono bidezko eta aurrez aurreko laguntza eta informazioa emango da urteko egun guztietan, eguneko 24 orduetan.*

Legeak ezartzen du, halaber, errekonferazio integraleko zerbitzuak eskuragarri daudela, epe luzean biktimen suspertze psikologikorako.

Bizkaian, Foru Aldundiak sexu-indarkeriaren biktimei laguntzeko baliabide bat du; horretarako, hiru zerbitzu bereizi eta osagarri ditu, artatutako pertsonen premiei erantzun koordinatua, espezializatua eta jarraitua bermatzeko:

- a) Larrialdi- eta krisi-egoeran daudenentzat 24 orduko arreta-zerbitzua, arreta psikologikoa, juridikoa eta soziala eskaintzen duena, 10/2022 Lege Organikoaren lege-xedapenei jarraituz.
- b) Herritarrentzako arreta-zerbitzua, baliabide hauek eskaintzen dituena: informazioa eta aholkularitza, gizarte-arreta, aholkularitza juridikoa, banakako laguntza psikologikoa, itzulpena eta prestakuntza.
- c) Errekuperazio integraleko zerbitzu bat da. Errekuperazio psikologikoko eta laguntza sozialeko, gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza, baita laguntza soziolaboraleko eta soziojuridikoko diziplina arteko zerbitzuak ditu, eta biktimen errekonferazio psikologikoan babesa emateko lan egiten du epe luzean, bai eta aipatutako laguntza-beharrei erantzuteko ere.

Kapitulu honen xedea da **24 orduko krisi-zentroan** artatutako eskaeren bolumena eta ezaugarriak aztertzea; izan ere, errekupeazio integralaren esku-hartzea txosten honetako arreta psikologikoaren atalean jorratzen da (1.3 kapitulua), sexu-indarkeriari dagokion puntuan.

## 24 orduko krisi-zentroko erabiltzaileak: alderdi orokorrak

24 orduko krisi-zentroa 2023ko abenduaren 15ean jarri zen martxan, eta, beraz, 2024an artatutako kasu guztiak –funtzionamenduko lehen urtea– kasu berriak dira.

Zerbitzuaren datuen arabera, 2024an sexu-indarkeriaren biktima diren **198 pertsona** artatu dira guztira (% 96,5 emakumeak).

Hurrengo taulan, urtean zehar arreta jaso duten pertsonen –helduak eta adingabeak– banaketa jasotzen da, kasu-motaren arabera sailkatuta. Artatutako 198 pertsonetatik, 178 (% 90) helduak dira eta 20 (% 10) adingabeak.

1.19 taula. 24 orduko krisi-zentroan artatutako pertsonak (BFA). 2024.

|                      | GUZTIRA    | EMAKUMEAK  | GIZONAK  |
|----------------------|------------|------------|----------|
| <b>HELDUAK</b>       | <b>178</b> | <b>172</b> | <b>6</b> |
| + Biktima zuzenak    | 130        | 130        | -        |
| + Zeharkako biktimak | 48         | 42         | 6        |
| <b>ADINGABEAK</b>    | <b>20</b>  | <b>19</b>  | <b>1</b> |
| <b>GUZTIRA</b>       | <b>198</b> | <b>191</b> | <b>7</b> |

*Iturria:* BFAren datuetan oinarrituta egin da. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

## Biktima zuzenak (helduak)

2024an zehar, **130 emakume (heldu)** artatu dira zuzeneko biktima gisa.


## Larrialdiko arreta edo arreta arrunta

Horietatik 22k premiazko arreta jaso zuten (% 16,9) eta 108k arreta arrunta (% 83,1); beraz, kasu gehienak larrialdiko edo berehalako esku hartzeko testuingurutik kanpo egin ziren.

## Erasotzailearekiko harremana

Biktimaren eta erasotzailearen arteko harremanari dagokionez, **kasuen % 77 baino gehiagoren erasotzailea pertsona ezaguna izan da**, eta % 22,3arena ezezaguna.

1.35 grafikoa. 24 orduko krisi-zentroa (BFA). Zuzeneko biktima diren emakumeen %, erasotzailearekiko harremanaren arabera. 2024



Iturria: BFaren datuetan oinarrituta egin da. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

1.20 taula. 24 orduko krisi-zentroan (BFA) artatutako zuzeneko biktima diren emakumeak, erasotzailearekiko harremanaren arabera. 2024.

|                                               | Kop.       | %            |
|-----------------------------------------------|------------|--------------|
| <b>Pertsona ezaguna</b>                       | <b>101</b> | <b>77,7</b>  |
| + Familiako kidea                             | 34         | 26,2         |
| + Inguruko pertsona                           | 67         | 51,5         |
| <i>Lan-, ikasketa-, aisia-/kirol-esparrua</i> | 19         | 14,6         |
| <i>Adiskidetasuna</i>                         | 20         | 15,4         |
| <i>Harremanik gabeko pertsona ezaguna</i>     | 18         | 13,8         |
| <i>Beste kasu batzuk</i>                      | 10         | 7,7          |
| <b>Pertsona ezezaguna</b>                     | <b>29</b>  | <b>22,3</b>  |
| <b>GUZTIRA</b>                                | <b>198</b> | <b>100,0</b> |

Iturria: BFaren datuetan oinarrituta egin da. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

Pertsona ezagunen kasuak **senideei (% 26,2) edo inguruko pertsonari (% 51,5) dagozkie**. Azken kategoria horretan, biktimaren zirkulu-sozialaren barruan, honako hauek sartzen dira: lagunak, lan-eremuko pertsonak, ikasketa-esparruko edo aisialdi-/kirol-arloko pertsonak, baita zuzeneko loturarik ez duten pertsona ezagunak ere.

## Indarkeria-mota

**Helduen aurkako sexu-erasoak guztizkoaren ia hiru laurden dira (% 73).**


Helduen aurkako sexu-erasoez gain, 2024an erregistratutako sexu-indarkeria motak hauek dira: sexu-erasoa haurtzaroan (% 13,8); sexu-jazarpena (% 6,2); prostituzioa (% 3,1); eta % 3,8 indarkeria digitalaren, exhibizionismoaren eta beste modu batzuen kasuei dagokie.

## Adina

Zerbitzua martxan egon den lehen urte honetan, adin askotako emakumeak sartu dira zentroan, 18 eta 81 urte bitartekoak. 35 urtekoa da batezbesteko adina.

**Artatutako emakumeen ia erdiak 18 eta 30 urte bitartekoak dira (% 48).**

Adin-talde bakoitzean erregistratutako kasuen kopurua talde horretan dauden emakumeen guztizkoarekin alderatzean, adinaren arabera biktima-tasa lortzen dugu. Horrek adierazten du zer adin-tartetan biltzen diren kasu gehien, biztanleria-tamainari dagokionez. Bizkaia osoan, biktimen tasa 2,2koa da 10.000 emakumeko, eta balio horretatik gora daude 18-20 urtekoak (3,8) eta, bereziki, 21-30 urteko tarteak (6,5).



Iturria: BFaren datuetan oinarrituta egin da. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

## Jaioterria

Artatutako emakumeen erdia baino zertxobait gehiago (**% 53,1**) **atzerriko herrialdeetan jaiotakoak dira**, 69 emakume guztira. % 46,9 EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaiotako emakumeak dira (61 emakume).

Atzerrian jaiotakoen kasuan, nabarmentzekoa da jatorri-aniztasun handia: Europako, Afrikako eta Amerikako **19 herrialde**.

- Kontinenteei erreparatuz, Amerikatik etorritako emakumeen taldea da ugariena (% 58). Ondoren, % 34,8 afrikarrak dira, eta % 7,2 europarrak.
- Eremu geografikoen arabera, ordezkapenik handiena **Latinoamerikak du (% 58)**, eta bigarren postuan **Magrebeko herrialdeak daude (% 23,2)**.



- Herrialdeen arabera, ugarienak **Kolonbia (% 26,1), Maroko, (% 14,5) eta Peru (% 10,1)** dira.

## Udalerrria (erroldatzea)

Bizkaiko 24 udalerritako kasuak erregistratu dira. Horrek agerian uzten du **eskaera oso sakabanatuta dagoela lurraldean zehar**, eta zerbitzuaren ezagutza- eta eskuragarritasun-maila esanguratsua iradokitzen du. Hori bereziki garrantzitsua da, zentroaren lehen funtzionamendurtea baita.

Kasuen % 67 Bizkaiko 11 udalerri handietatik (20.000 biztanletik gorakoak) etorri dira, biztanleria-bolumenari dagokionez (% 69,4). Multzo horretako udalerri guztiek erregistratzen dute kasuren bat zentrora joaten diren emakumeen artean.

## Desgaitasuna

Artatutako emakume guztietatik 11k desgaitasunen bat zuten (% 8,5).


## Aurretiazko salaketa

56 kasutan (% 43) aurretiazko salaketa bat zegoen, eta 74 kasutan (% 57) ez zegoen salaketarik jarrita arreta eman zitzaien unean.

## Zerbitzurako sarbidea

Zentrora sartzeko bideei buruzko datuek adierazten dute **hainbat sarrera-kanal** daudela. Nabarmenezkoa da kasuen erdietan baino gehiagotan (% 53,1) biktimak bere kabuz jotzen duela (% 37,7) edo gertuko pertsonak bultzatuta (% 15,4), eta horrek adierazten du baliabidearen ezagutza-maila nabarmena dela herritarrengan. Gainerako kasuetan, gizarte-erakundeetatik, udaletako gizarte-zerbitzuetatik, gizarte-larrialdietako zerbitzuetatik eta beste erakunde-eremu batzuetatik egindako deribazioak sartzen dira, baliabidearen eskuragarritasuna hainbat erakunde- eta komunitate-eremutatik adierazten dutenak.

Banaketa horrek sarbide anitza islatzen du, eta horretan bat egiten dute banakako ekimenek nahiz bideratzeko mekanismo instituzional edo sozialek.



Iturria: BFAren datuetan oinarrituta egin da. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

## Ostatuaren beharra

Zerbitzuak larrialdiko ostatu laguntza eskaintzen du (5 plazako pisu bat), biktimaren segurtasuna eta euspena bermatu behar diren egoeretarako.

2024an, zentroan artatutako emakumeen % 14k erabili behar izan zuen prestazio hori; guztira, **18 emakumek, bi seme-alabarekin batera**. Baliabideko egonaldiaren batez besteko iraupena 60 egunekoa izan zen. Horietatik gehienak (**% 83,3**) **harrerako baliabideetara edo antzeko gailuetara bideratu ziren** ondoren. Horrek agerian uzten du kasu horiek zaurgarriak direla gizarte-, ekonomia- eta/edo familia-aldeak, eta mota horretako baliabideak egokiak direla jarraitasun handiagoko beste baliabide batzuekiko zubi-neurri gisa.

## Zeharkako biktimak (helduak)

2024an zehar **zeharkako 48 biktimak** artatu dira, zuzeneko biktimak jasandako sexu-indarkeriaren eragin emozional edo psikologikoaren eraginpean:

- Sexuaren arabera, biktimak horiek honela banatzen dira: 42 emakume (% 87,5) eta 6 gizon (% 12,5).
- Emakumeen kasuak, biktimak zuzenen amak izan ohi dira gehienbat, beste senide baten kasu batean izan ezik. Bestalde, zentroan zeharkako biktimak gisa artatutako gizonak zuzeneko biktimen gurasoak dira kasu guztietan.



- Jaioterriaren arabera banaketak sexuaren arabera aldea dute, baina kontuan hartu behar da gizonen kopurua oso txikia dela, eta horrek izan dezakeela eragina ezberdintasun horretan. Emakumeen kasuan, % 52,4 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaioak dira, eta % 47,6 atzerriko herrialdeetan. Gizonetan, berriz, % 100 EAEn edo beste autonomia-erkidego batzuetan jaioak dira.

## Biktima adingabeak: Haurrak eta nerabeak

Krisi-zentroaren funtzionamenduko lehen urtean, **20 adingaberi** eman zaie arreta: 19 neska (% 95) eta mutil 1 (% 5).

### Larrialdiko arreta edo arreta arrunta

Nesketako bakar bati eman zitzaion arreta larrialdi-egoeran; adingabeei emandako arretak fase kritikotik kanpo egin ziren.

### Erasotzailearekiko harremana

Erasotzailearekiko harremanari dagokionez, artatutako biktima adingabeen kasuan ere, sexu-indarkeria ingurune hurbileko pertsonak gauzatzen dute gehienbat. **Kasuen % 75 pertsona ezagunei dagokie, eta % 25 pertsona ezezagunei.**

Pertsona ezagunak **senideen (% 30) eta inguruko pertsonen (% 45) artean banatzen dira.** Azken talde horren barruan, proportziorik handiena zuzeneko loturarik ez duten pertsonen dagokie (guztizkoaren % 25).


1.21 taula. 24 orduko krisi-zentroan (BFA) artatutako zuzeneko biktima diren adingabeak, erasotzailearekiko harremanaren arabera. 2024.

|                                               | Kop.      | %            |
|-----------------------------------------------|-----------|--------------|
| <b>Pertsona ezaguna</b>                       | <b>15</b> | <b>75,0</b>  |
| <b>+ Familiako kidea</b>                      | <b>6</b>  | <b>30,0</b>  |
| <b>+ Inguruko pertsona</b>                    | <b>9</b>  | <b>45,0</b>  |
| <i>Lan-, ikasketa-, aisia-/kirol-esparrua</i> | <i>1</i>  | <i>5,0</i>   |
| <i>Adiskidetasuna</i>                         | <i>1</i>  | <i>5,0</i>   |
| <i>Harremanik gabeko pertsona ezaguna</i>     | <i>5</i>  | <i>25,0</i>  |
| <i>Beste kasu batzuk</i>                      | <i>2</i>  | <i>10,0</i>  |
| <b>Pertsona ezezaguna</b>                     | <b>5</b>  | <b>25,0</b>  |
| <b>GUZTIRA</b>                                | <b>20</b> | <b>100,0</b> |

Iturria: BFAren datuetan oinarrituta egin da. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

## Adina

Adinaren arabera, 2024an artatutako biktima adingabeak 7 eta 17 urte bitartekoak dira. Gehienak nerabeak dira; izan ere, 20 kasuetatik erdia baino gehiago (% 55) 15-17 urteko adin-tartean biltzen dira. Presentzia handiena duen bigarren taldea 11 eta 14 urte artekoa da (% 35). Gainerakoak 7 eta 10 urte artean daude (% 10).



Iturria: BFAREN datuetan oinarrituta egin da. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.

## Jaioterria

Biktima adingabeen erdiak baino gehiago **atzerriko herrialdeetan jaiotakoak dira (% 55,5)**. Guztira, 11 adingabe dira, eta Latinoamerikatik (% 90,9) eta Magrebetik (% 9,1) etorriak dira.

% 44,5 EAEan eta beste autonomia-erkidego batzuetan jaio dira (9 adingabe).

## Udalerrria (erroladatzea)

Bizkaiko 8 udalerritatik datoz. Udalerrri horien erdiek 20.000 biztanle baino gehiago dituzte.

## Desgaitasuna


Desgaitasuna duen kasu bat identifikatu da (% 5).

## Aurretiazko salaketa

Kasuen % 70ek (14 adingabe) gertakarien salaketa jarri zuen zentrori iritsi aurretik, eta berriz, kasuen % 30ean (6 adingabe) ez zen salaketarik formalizatu arretaren unean.

## Zerbitzurako sarbidea

Biktima adingabeekin ere, zentrora sartzeko hainbat bide daudela erakusten dute datuek. Kasu honetan, erdia baino gehiago (% 55) erakundeen edo gizarte-instantzien bideratzeei dagokie, nahiz eta banakako sarbiderik ohikoena **inguruko pertsonen egiten duten, guztizkoaren % 35.**



Iturria: BFAren datuetan oinarrituta egin da. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila.

## Ostatuaren beharra

Bi adingabek (% 10) zentroak eskaintzen duen ostatu-baliabidea erabili behar izan dute, batez beste zortzi egunez.

## 1.5. GIZARTE- ETA HEZKUNTZA-ARLOKO ETA ARLO PSIKOSOSIALEKO ESKU-HARTZEA: ARRETA KOMUNITARIOKO ZERBITZUAK

### Testuingurua eta egoera orokorra

Bizkaiko Foru Aldundiak esku-hartzeko hainbat programa garatzen ditu testuinguru komunitarioan, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei zuzenduta, hurbileko arreta emateko helburuarekin.

Programa horiek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroan sartzen dira<sup>15</sup>, *Familiekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzuak* atalean, eta honela definitzen dira:

«... harreman-prestazioen multzo bat dira, familia- edo bizikidetza-unitateei gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza eta/edo arlo psikosozialeko laguntza ematera bideratuta daudenak, honako helburu hau izanik: ohitura, portaera, iritzi, sentimendu eta jarrera desagokiaren ordez ohitura, portaera, iritzi, sentimendu eta jarrera egokiagoak izaten laguntzea, baita bizikidetza egokia izateko eta/edo kargura dituzten pertsonak behar bezala zaintzeko beharrezkoak diren gaitasunak (jarrerak, jakintzak, irizpideak, jarraibideak, trebetasunak) hartzen edo garatzen laguntzea (...); bizikidetza-testuinguruaren narriadura handiagoa izateko aukera prebenitzea; horretarako, portaera desagokiak edo krisi-egoerak geldiarazi egingo dira eta ekin egingo zaie».

Programa horien bidez, kasuen beharretara eta helburuetara egokitutako zenbait motatako esku-hartzeak gauzatzen dira: gizarte- eta hezkuntza-arlokoa, arlo psikosozialekoa, laguntza soziojuridikoa, lagun-egite soziala, arlo okupazionalakoa, etab. Modu osagarrian, beste alternatibarik ez daukaten emakumeei ostatu-laguntza ematen dieten programak dira.

Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen bidez sartzen dira erabiltzaileak, BFaren Indarkeria Matxistaren aurkako Babes Zerbitzuak eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak indarkeria matxistaren ondoriozko babesgabetasun-egoera baloratu ondoren<sup>16</sup>.

<sup>15</sup> 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa (2015/10/29ko EHAA, 206. zk.)

<sup>16</sup> Bizkaiko Foru Aldundiaren Indarkeria matxistak eragindako babesgabetasunaren Balorazio Zerbitzua: <https://www.bizkaia.eus/eu/gaia-xehetasuna/-/edukia/dt/12470>



## 2024ko zerbitzuak eta biztanle erabiltzaileak

2024an zehar, Foru Aldundiaren zerbitzuen zorroan **zortzi programaren** bidez esku hartu da, eta horietako batzuk bestelako arazoak ere badituzten kolektiboei bideratutakoak izan dira (osasun mentala, mendekotasunak...). Esku-hartzeak gizarte-zerbitzuetako prestazioak, osasun-prestazioak eta prestazio osagarriak konbinatzen ditu; horien artean, beste, ostaturako laguntza dago, eta programa guztien artean 80 leku inguru eskaintzen dira.

- **ZERIZAN:** Ikuspegi integral batetik jorratzen du emakumeek eta familiek jasaten dituzten sexu-askatasunaren aurkako balizko egintzetatik eta indarkeria matxistaren egoeretatik sortzen den kalte soziala. Ostaturako laguntza barne hartzen du (20 leku).
- **SUA:** Indarkeria matxistak eragindako ondorioak babesgabetasun-egoera larrian dauden emakumeengan eta haien ardurapeko adingabeengan tratatzeko programa, gizarte- eta hezkuntza-laguntzaren eta/edo laguntza psikosozialaren bidez. Laguntza psikologikoa eta ostaturako laguntza barne hartzen du (20 leku).
- **BEREGAIN:** Emakumeekin eta haien seme-alabekin gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean modu espezializatuan esku-hartzea. Laguntza psikologikoa eta ostaturako laguntza du (14 leku).
- **CASA H.:** Indarkeria matxistaren biktima diren eta babesgabetasun-egoeran dauden emakumeentzako arreta integrala, intentsitate ertain-altuko gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntzak eta arlo psikosozialeko laguntzak behar dituztenean. Ostaturako laguntza ere barne hartzen du (6 leku). (\*)
- **HAZIAK:** Indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeei laguntzeko zerbitzua da, gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza eta/edo laguntza psikosozialeko harreman-prestazioen multzo bat eskaintzen dituen. Ostaturako laguntza du (7 leku).
- **MADARIAGA:** Zerbitzu orokorra eta adikzioetan aditua, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonenei zuzendua. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako leku espezifikokoak ditu.
- **EKIN:** Indarkeria matxistaren biktima diren eta beste arazo batzuk ere badituzten emakumeentzako laguntza indibidualizatuan oinarritua. Osasun-prestazioak (osasun-zentroekiko koordinazioa, osasun-tratamenduen kontrola eta jarraipena...) eta ostaturako laguntza (7 leku) barne hartzen ditu.
- **BEGIRA:** 2024an aktibo egondako programa pilotua, indarkeria matxista jasan duten, babesgabetasun-egoeran dauden eta beste arazo batzuk (droga-kontsumoak edo patologia mentalak) dituzten emakumeen autonomia eta gizarteratzea hobetzera bideratutakoa. Osasun-prestazioak (osasun-zentroekin koordinazioa, osasun-tratamenduen kontrola eta jarraipena...) eta ostaturako laguntza (4 leku) barne hartzen ditu.

(\*) 2024/10/01etik aurrera zerbitzuaren konfigurazioa aldatu da: ostatu-leku bat eta eguneko zerbitzu bat gehitu zaizkio.

### 1.1 koadroa. BFAko Arreta Komunitarioko Zerbitzuak eta prestazio-motak. 2024

| Programak | Gizarte-zerbitzuen prestazioak (1) | Osasun-prestazioak (2) | Prestazio osagarriak (3) | Oharrak                                      |
|-----------|------------------------------------|------------------------|--------------------------|----------------------------------------------|
| ZERIZAN   | ☑                                  | -                      | ☑                        | 20 ostatu-leku                               |
| SUA       | ☑                                  | ☑                      | ☑                        | 20 ostatu-leku                               |
| BEREGAIN  | ☑                                  | ☑                      | ☑                        | 14 ostatu-leku                               |
| CASA H.   | ☑                                  | -                      | ☑                        | 6 ostatu-leku<br>(2024/10/01etik aurrera, 7) |
| HAZIAK    | ☑                                  | -                      | ☑                        | 7 ostatu-leku                                |
| MADARIAGA | ☑                                  | -                      | -                        | -                                            |
| EKIN      | ☑                                  | ☑                      | ☑                        | 7 ostatu-leku                                |
| BEGIRA    | ☑                                  | ☑                      | ☑                        | 4 ostatu-leku                                |

(1) Gizarte-zerbitzuen prestazioak honako hauek izan daitezke: Beharren balorazioa, informazioa eta orientazioa, jarraipenaren balorazioa, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea, estimulaziorako eta errehabilitaziorako esku-hartzea, informazio psikosoziala, gizarte-laguntza, arreta soziojuridikoa, gizarte-gaitasunak garatzeko bitartekotza, modu independentean bizitzen laguntzea, laguntza pertsonala eta etxeko laguntza.

(2) Osasun-prestazioak hauek izan daitezke: terapia psikologiko espezializatua (banakakoa eta/edo taldekoa), sendagaiak ematea, osasun-tratamenduen kontrola eta jarraipena, osasun-zentroekin koordinatzea, kontsultetara laguntzea.

(3) Prestazio osagarriak hauek izan daitezke: ostatua, mantenua, dokumentuen interpretazioa eta itzulpena, laguntza juridikoa.

Iturria: BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailak emandako datuetan oinarrituta egina.

Datuak oro har hartuta, **400 pertsona inguruk** jaso zuten arreta 2024an, emakumeak eta haien ardurapeko seme-alabak aintzat hartuta, gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko programa horien bidez. Horietatik 250 baino zertxobait gehiago emakumeak izan dira, eta ezaugarri hauek dituzte:

- Esku-hartzeko beharra eragin duen indarkeria-mota nagusia **bikotekidearen / bikotekide ohiaren indarkeria** izan da: **% 80tik gorakoa** da zerbitzu guztietan.
- Indarkeria matxistan esku hartzeko beste arlo batzuetan gertatzen den bezala, adina faktore esanguratsua da arreta eskuratzeko orduan. Ia programa guztietan, **emakume erabiltzaileen bi heren baino gehiago 40 urtez azpikoak** dira. Bi kasutan soilik (Haziak eta Madariaga) dute proportzioa txikiagoa, baina erdiak baino gehiago dira horietan ere. Bi kasu horietan, adin nagusiagoko taldeek presentzia gehiago dute. Programa guztiei batera erreparatuta, 2024an artatutako erabiltzaileen adin-tartea 18 eta 62 urte artekoa da.
- Jaiolekua kontuan hartuta, **atzerriko herrialdeetan jaioetako erabiltzaileek** biltzen dituzte programa horien bidez artatutako kasuen **% 50 eta % 90 artean**; Madariagaren kasuan soilik da talde horren proportzioa erdia baino zertxobait txikiagoa (% 44).



- Programa guztietan nagusitzen dira **seme-alabak** –haien ardurapekoak zein ez– **dituzten erabiltzaileak**, eta egoera horrek areagotu egiten du haien zaurgarritasuna. Kopuruei dagokienez, oro har, **bi heren baino gehiago** dira.
- **Desgaitasuna** duten erabiltzaileen ehunekoak txikiak dira, oro har, arazo gehigarriak dituzten biktimei berariaz zuzendutako gailuen kasuan izan ezik (gaixotasun mentala, esaterako); horren ondorioz, erabiltzaileek desgaitasuna izan dezakete.
- Programa horietan artatutako kasu gehienetan **indarkeria-mota bat baino gehiago jasaten dituzte aldi berean**. Indarkeria fisikoa eta psikologikoa dira gehien identifikatzen diren indarkeria-motak.
- Aldagai garrantzitsu bat da programa horiek duten **ostatu-baliabidearen erabilera handia**. Horietatik erdietan baino gehiagotan, **erabiltzaile guztiek** erabili behar izan dituzte ostatu-laguntzarako plazak.



1.2 koadroa. BFAko Arreta Komunitarioko Zerbitzuak. 2024ko adierazle nagusiak.

| BFAko KOMUNITATE ARRETARAKO ZERBITZUAK/PROGRAMAK |                                                           |         |         |          |         |         |           |       |        |
|--------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------|---------|---------|----------|---------|---------|-----------|-------|--------|
| ADIERAZL.                                        |                                                           | ZERIZAN | SUA     | BEREGAIN | CASA H. | HAZIAK  | MADARIAGA | EKIN  | BEGIRA |
| 1                                                | Pertsona-kop. guztira                                     | 136     | 78      | 42       | 11      | 81      | 34        | 10    | 6      |
| 2                                                | Emakume kop.                                              | 68      | 45      | 18       | 11      | 66      | 34        | 10    | 6      |
| 3                                                | Seme-alaba kop. (adin txikiko kop.)                       | 68 (60) | 33 (33) | 24 (24)  | -       | 15 (14) | -         | -     | -      |
| 4                                                | Emakume kop. -kasu berriak-                               | 15      | 11      | 7        | 8       | 50      | 9         | 10    | 6      |
| 5                                                | Bikotekideak / bikotekide ohiak eragindako indarkeria (%) | 91,2    | 84,4    | 83,3     | 90,9    | 89,4    | 100,0     | 100,0 | 83,3   |
| 6                                                | Familia barruko indarkeria (%)                            | 8,8     | 8,9     | 16,7     | 0,0     | 4,5     | 0,0       | 0,0   | 16,7   |
| 7                                                | Sexu-indarkeria (%)                                       | 0,0     | 6,7     | 0,0      | 9,1     | 6,1     | 0,0       | 0,0   | 0,0    |
| 8                                                | 40 urte baino gutxiagokoak (%)                            | 66,7    | 63,6    | 100,0    | 62,5    | 54,0    | 55,6      | 80,0  | 66,7   |
| 9                                                | Batez besteko adina                                       | 35,5    | 36      | 29,5     | 34,9    | 36,9    | 35        | 25    | 34,4   |
| 10                                               | Adin-tartea                                               | 23-55   | 18-51   | 22-35    | 20-56   | 19-62   | 18-52     | 20-48 | 19-48  |
| 11                                               | Seme-alabak beren kargura dituztenen edo ez dituztenen %  | 86,7    | 54,5    | 100,0    | 75,0    | 58,0    | 77,8      | 60,0  | 66,7   |
| 12                                               | Atzerrian jaiotakoak (%)                                  | 53,3    | 90,9    | 85,7     | 50,0    | 60,0    | 44,4      | 50,0  | 66,7   |
| 13                                               | Desgaitasunen bat dutenak (%)                             | 6,7     | 0,0     | 0,0      | 0,0     | 12,0    | 77,8      | 10,0  | 100,0  |
| 14                                               | Indarkeria-mota bat baino gehiago jasan dutenak (%)       | 100,0   | 100,0   | 100,0    | 75,0    | 98,0    | 100,0     | 100,0 | 83,3   |
| 15                                               | Ostatua behar zutenak (%)                                 | 46,7    | 72,7    | 85,7     | 100,0   | 100,0   | -         | 100,0 | 100,0  |
| 16                                               | 20.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi direnak (%)   | 53,3    | 45,5    | 85,7     | 62,5    | 72,0    | 89,0      | 80,0  | 100,0  |

Oharra: 8-16 adierazleak, kasu berriei buruzkoak (4. adierazlea)

Iturria: BFAren datuetan oinarrituta egin da. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.



## 1.6. FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA, GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN ADINGABEETAN ESPEZIALIZATUA

### Testuingurua eta egoera orokorra

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak, otsailaren 18koak —**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea**, martxoaren 3ko 1/2022 Legeak 1. artikuluan ezarritakoaren arabera— honela dio: *Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten administrazio publikoek (...) arreta espezializatuko zerbitzuak bermatuko dituzte, bai emakumeen kontrako indarkeria matxista zuzenean pairatzen duten neska txiki eta neska nerabeentzat, bai indarkeria hori gauzatzen den ingurune batean bizi diren haur eta nerabeentzat eta emakumeen kargura dagoen beste edonorentzat. Hildako biktimen seme-alabentzako babesa eta laguntza indartuko dira, haien zaurgarritasun-egoera berezia dela-eta, eta protokoloak ezarriko dira kasu horietan (56.3 art.).*

Bizkaian, Foru Aldundiak, EAEn aitzindaria izan zen **Familian Esku Hartzeko programa** bat jarri zuen abian 2016ko azken hiruhilekoan, **genero-indarkeriaren biktima diren adingabeei arreta espezializatua** emateko. Programaren helburu nagusiak hauek dira: tratu txarreko adingabeengan eta amen eta seme-alaben arteko loturan zer kalte duten balioztatzea, egin beharreko esku-hartzea planifikatzea eta antolatzea, etengabeko ebaluazioa egitea, eta gizarte-eragileak koordinatzea eta horiekin lan egitea.

Hauek izan daitezke programaren onuradun:

1. Genero-indarkeria bizi izan duten haurrak eta nerabeak (3 urtetik gorakoak).
2. Haur horien amak (genero-indarkeriaren biktimak) bizikide direnean, edo haur horiek zaintzen dituzten erreferentziazko zaintzaileak.
3. Seme-alaben aitak (ez badira erasotzaileak); haurrekin bizi diren familiako kideak, edo indarkeria horren menpe dauden pertsonak.
4. Seme-alaben aitak, erasotzaileak direnean. Hala ere, baldintza batzuk bete behar dituzte; esaterako, seme-alabekin harremana izatea, esku-hartzea eskatzea eta esku-hartze horretan parte hartzeko prest egotea, betiere, esku-hartzeak ez baditu arriskuan jartzen ez seme-alabak ez ama.
5. Bikotekidearen eskuetan hildako emakumearen seme-alabak, eta haiekin bizi diren pertsonak.


Programak **esku-hartze pertsonalizatua** eskaintzen du, adingabearen ongizatean oinarrituta; eta programa horretan parte hartzeko hainbat bide jarraitu daitezke. Programaren esku-hartzea bi motatakoa izan daiteke: **psikoterapeutikoa soilik** edo **psikoterapeutikoa eta gizarte eta hezkuntza arlokoa aldi berean**. Esku-hartze hori aurrera eramateko oinarri hartuko dira indarkeriak adingabeetan eta amaren eta seme-alaben arteko loturan izan dituen ondorioak, bai eta eragin psikologikoak ere. Horretarako, babes-faktoreak sustatuko dira.

## 2024ko erabiltzaileak: alderdi orokorrak

2024an, guztira **101 pertsonak** jaso zuten arreta programa horren bidez: 58 adingabe, 39 emakume (adingabe horien amak, genero-indarkeriaren biktimak) eta 4 ahaide.

Aurreko urtearekin alderatuta (serieko mailarik altuena), adingabeen kopuruak behera egin du (-% 17). Aurretik, 2020. urtean bakarrik jaitsi dira kasuak, programaren ibilbidearen ezaugarri nagusia **urte arteko ondoko ondokoigoerak** izan baitira ia urte guztietan.

1.40 grafikoa. Familian Esku Hartzeko Programa, Genero-Indarkeriaren Biktimak diren Adingabeetan Espezializatua (BFA). Artatutako pertsonak. 2017-2024



\*Beste pertsona batzuk: aita ez-erasotzaileak eta adingabeekin bizi diren beste senide batzuk

Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak oinarritzat hartuta egina. Enplegua, Gizarte Kohesioa eta berdintasuna Sustatzeko Saila.

Guztira, **29 familiatako** pertsonen eman zitzaizkien arreta (2023an 47ri). Aurreko urteetan bezala, familia mota ohikoena adingabe 1 edo 2 dituzten familiak dira (% 79). Gainerakoek hiru edo gehiago dituzte (% 21).



## Kasu berrien ezaugarriak

### Adingabeak

2024an aztertutako kasuen laurden bat baino zertxobait gehiago **kasu berriak dira (% 27,6)**. Hala, **16 adingabe** dira, eta ezaugarri hauek dituzte:

- 5 mutil (% 31) eta 11 neska (% 69) ziren.

Ez da harritzekoa programa honetan sexuaren araberako banaketan desoreka egotea; izan ere, horrek adieraz dezake iritsitako kasuak bideratzean/identifikatzean alborapena egotea. 2017an eta 2018an, haurren ehunekoa % 79ra eta % 63,3ra iritsi zen, hurrenez hurren, eta berriro ere % 66ra 2023an.

- Adinari dagokionez, erregistratu ziren kasurik gazteenek sei urte zituzten. Batez besteko adina **11 urte** da. Datuak tarteka sailkatuz gero, erdia adin hori baino gazteagoa da: mutilen % 40 eta nesken % 55.

Sexuaren eta adinaren araberako banaketan, aldea ikusten da azken adin-tarteari dagokionez (15-17 urte). Programa martxan egon den urteetako datu guztiak kontuan izanda, aipatu beharra dago programaren laguntza jaso duten **15 eta 17 urte arteko nerabeen % 74** mutila dela.

- 2024ko kasu berrien artean, bi adingabe **umezurtz geratu dira genero-indarkeriaren ondorioz**.
- Lau adingabek (% 25) **beren aitaren aurkako Babes-agindua** dute. Urtero daude horrelako kasuak (2020an izan ezik); kasuen % 15-% 33 izan ohi dira.
- 2024an programan sartu diren kasuak Bizkaiko **9 udalerritan** bizi dira (% 81 20.000 biztanletik gorako udalerriren batetik datoz). Tamainari, dentsitateari eta jarduerari dagokionez profil heterogeneoa dute udalerririak dira, eta horrek adieraz dezake bideratzaileak izan daitezkeen erakunde guztiek zergatik ez duten programa berdin ezagutzen.

## Emakumeak (genero-indarkeriaren biktima diren amak)

Amei dagokienez, 11 kasu berri egon dira 2024an, eta artatutako kasuen % 28 izan dira:

- Batez besteko adina 43 urtekoa da, aurreko urteetakoaren antzekoa. Adin-tarteei dagokienez, % 91 erdiko adin-tarteetan dago (31-50 urte), eta, batez ere, **41-50 urteko tartean (% 73)**.
- Lau atzerriko herrialdeetan jaiotakoak dira, hau da, kasuen herena baino zertxobait gehiago (% 36).
- **% 64ak** (7 emakumek) beren alde ezarritako **babes-agindu bat du edo izan du**, eta datu hori programaren ohiko datua baino baxuagoa da (% 75etik gora).



## 1.7. INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI INFORMAZIOA ETA ARRETA EMATEKO ZERBITZU ESPEZIALIZATUA (900 840 111)

### Eremua eta egoera orokorra

**Genero-indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren** 18. artikulua honako hau ezartzen du: *“Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eskubidea dute euren egoera pertsonalaren inguruko informazio osoa eta aholkularitza egokia izateko”, eta informazio horretan jasoko dira “biktima horien babesari eta segurtasunari buruz Lege honetan ezarritako neurriak, hala nola aurreikusten diren eskubideak eta laguntzak, bai eta arreta, larrialdi, babes eta sendabide osorako zerbitzuak emango diren lekuari buruzko argibideak ere”.*

Euskal Autonomia Erkidegoan, 2006an jarri zen abian **Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei informazioa eta arreta emateko egungo zerbitzu espezializatua (900 840 111)**<sup>17</sup>. 2024an, zerbitzu horren kudeaketa Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailak eraman du<sup>18</sup>.

Autonomia-eremuko doako telefono-zerbitzua da, eta urteko 365 egunetan 24 orduko arreta eskaintzen du; azken helburua emakumeari tratatu txarren egoera horretatik ateratzen laguntzea da. Etengabe eskaintzen die arreta psikologikoa, informazioa eta orientazioa indarkeria-egoeretan bizi diren eta, ondorioz, ahultasun-egoeran dauden emakumeei. 51 hizkuntzatan erantzuten die deiei, eta prestatuta dago entzuteko eta/edo hitz egiteko desgaitasunen bat duten pertsonak artatzeko.

Hona hemen haren zenbait zeregin:

- Zerbitzuaren hartzaileei entzute aktiboa eskaintzea, euskarri emozionala emateko eta arretarako eta laguntzarako prozesuen kudeaketa errazteko.
- Esku-hartzeko prozesuei buruzko informazioa eta aholkua ematea, modu indibidualizatuan.

---

<sup>17</sup> Hasiera batean, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak kudeatu zuen, 2008ra arte. 2009tik 2012aren amaierara arte, kudeaketa Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailaren Genero Indarkeriaren Biktimei Arreta emateko Zuzendaritzaren ardurapean egon zen, eta, gero, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitu zitzaion ardura hori. 2013ko abenduan, zerbitzua berriro esleitu zitzaion Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Politiketako arlo eskudunari.

<sup>18</sup> 2013ko abenduaren 10ean, Lehendakariaren abenduaren 2ko 34/2013 Dekretua (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena) argitaratu ondoren (2013/12/10eko EHAA), berriro ere esleitu zitzaion Zerbitzu hori Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari.



- Genero-indarkeria mota guztien biktimak dagozkien arreta- eta laguntza-zerbitzuekin harremanetan jartzea, beren behar eta eskarien arabera, eta zerbitzu horietara bideratzea.
- Arretarako baliabide eta zerbitzu komunitario publiko zein pribatuetan jarduten duten profesionalekin lankidetzan aritzea.
- Esku-hartzeari dagokion informazioa kudeatzea, mota guztietako genero-indarkeriaren biktimen egoerari buruzko ezagutza hobetzeko.

## Zerbitzuan jasotako deiak


Zerbitzuak emandako datuen arabera, 2024an guztira **2.284 dei** jaso dira **Bizkaitik**, hau da, batez beste 190 dei hilean. Bizkaitik jasotako deiak EAEko guztizkoaren (3.741 dei) % 61,1 dira.

Zerbitzu honek Bizkaian izan duen bilakaera honako grafiko honetan ikusten da. Zerbitzuaren erabilerak lehen hiru urteetan (2006-2008) gora egin zuen, herritarrek pixkanaka zerbitzu horren berri izaten hasi zirelako<sup>19</sup>; horren ondoren, baina, dei-kopurua nahiko egonkor mantendu zen; urtean 1.700 dei inguru izan ziren, batez beste. 2017an dei-kopurua jaitsi egin zen, eta azken urteetan 1.500 dei inguru izan dira, batez beste. 2024an erregistratu da, alde handiz, aztertutako denbora-aldiko **dei-kopuru handiena**. Dei-kopurua % 33 igo da aurreko ekitaldiarekiko, 567 dei gehiago jaso baitira.

---

<sup>19</sup> 2008ko otsailean, lankidetzat-hitzarmena sinatu zen Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean eta, horren bidez, bermatu egin zen zerbitzu autonomikoari transferitzea genero-indarkeriarekin lotuta 016 zenbakian jaso eta artatu beharreko deiak, dei horiek EAetik egiten direla jakinarazten denean; 016an, estatu mailan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko informazio- eta arreta-zerbitzua ematen da. Gainera, hitzarmenak aurreikusten du, besteak beste, zerbitzu autonomikoa ezagutaraztea EAEn egiten diren kanpainetan; beraz, 016 telefono-zerbitzuarekin batera, 900 840 111 telefono-zerbitzua ere zabalduko da. Horrez gain, baliabide hori ezagutarazteko beste jarduera batzuk ere egiten ditu administrazio autonomikoak.

**1.41 grafikoa. Bizkaitik jasotako dei bereizleen kopurua\*. 2006-2024 bilakaera.**



(\*) Dei egokiak: emakumeen aurkako indarkeriarekin lotura duten deiak bakarrik.

(\*\*) Zerbitzuaren datu-basean egindako aldaketa batek 2011ko eta 2012ko datuen doikuntza desberdina eragin zuen erregistroan, eta, beraz, ezin dira erreferentziatzko aldiaren gainerako urtekoekin alderatu, bilakaeraren ikuspegia izateko.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. 2007ko eta 2008ko datuak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila; 2009-2011, Herrizaingo Saila, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez; 2012, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea; 2013tik, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.

Deien jatorriko udalerriei erreparatuta, aurreko ekitaldian bezala, Bilbo da balio handienekoa, deien % 30,2 biltzen baitu. Ehuneko txikiagoekin, Basauri (% 15,3) eta Barakaldo (% 14,3) daude ondoren. Ez dirudi dei-kopurua eta biztanle-kopurua ezinbestean zuzen lotuak daudenik; izan ere, populazio ugariako udal batzuetan erregistratu direnen antzeko balioak edo txikiagoak erregistratzen direlako udal txikiagoetan.

Erabiltzailea Zerbitzu honekin harremanetan jartzera bultzatzen duen indarkeria-motari dagokionez, 2024an, gehienak (% 89,4) bikotekideak edo bikotekide ohiak eginiko indarkeria-egoerekin lotutako deiak izan dira. Deien % 5,8 sexu-indarkeriarekin lotuta daude, eta % 3,4, familia barruko genero-indarkeriarekin. Gainerako % 1,3 kasurik gabeko profesionalen deiak dira.

1.22 taula. Deiak indarkeria-motaren arabera.

|                                     | Dei-kop.     | %            |
|-------------------------------------|--------------|--------------|
| - Bikotekidea / bikotekide ohia     | 2.043        | 89,4         |
| - Sexu-indarkeria                   | 133          | 5,8          |
| - Familia barruko genero-indarkeria | 78           | 3,4          |
| - Profesionalen deiak, kasurik gabe | 30           | 1,3          |
| <b>Guztira</b>                      | <b>2.284</b> | <b>100,0</b> |

Oharra: familia barruko genero-indarkerian, erasotzailea gizona den kasuak bakarrik hartzen dira kontuan.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren datuetan oinarrituta egin da.

Bikotekideen arteko edo bikotekide ohien arteko **indarkeria-zikloa** erreferentziatzat hartuta<sup>20</sup>, tentsioa handitzen den uneetan egiten da Zerbitzura eginiko dei gehien (% 71,1). Hurrena, gertakari larriren bat gertatu edo indarkeria lehertzen denean egiten direnak datoz (% 16), eta, hurrena, emakume erabiltzailea indarkeria-ziklotik kanpo dagoenean baina ondorio psikologikoak dituen egoeretan egiten direnak (% 8,6). Gainerako % 4,2, berriz, damu- eta errekontziliazio-uneetan egiten dira. Laguntza eskatzen duen emakumea indarkeria-zikloaren zein unetan dagoen jakitea oso baliagarria da esku-hartze egokia egiteko. Zerbitzuaren hitzetan, emakumeek tentsio pilatua dagoen unean deitzen dutenean, gehienetan beste eraso baten beldur direlako, oso garrantzitsua da jasandako tratu txarraren gaineko kontzientzia-maila sendotzea, autodefentsarako neurriak jakinaraztea eta eskura dituen zerbitzuen berri ematea. Gorabehera larriren bat gertatu edo indarkeriak leher egin eta berehala egiten diren deietan –ez dira hain ohikoak–, larrialdi-baliabideetara (poliziak, judizialak, harrerakoak...) bideratzea da esku-hartzerik ohikoena, ahalik eta lasterren, gainera, eta salaketa jartzearekin lotutako prozedura judizialen inguruko informazioa ere sustatzen da.

Zerbitzuak, gainera, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren biktima diren emakume erabiltzaileek jasandako indarkeriari buruz duten **kontzientzia-maila** aztertzen du, esku-hartzea orientatzeko. Beraz, kontzientziarik batere ez dagoen kasuetan, profesionalen orientazioak kontzientzia-hartzea areagotzeko mekanismoak bilatuko ditu; eta kontzientzia argia dagoen eta informazio zehatza eskatzen den kasuetan, informazio eta entzute aktiboa eskainiko dira, eta norberaren baliabideen nahiz laguntza-baliabideen gaineko konfiantza sustatuko da. 2024an, Zerbitzuak baloratu du indarkeria-egoera horretan egon diren emakumeek eginiko dei gehienetan (% 70,7) kontzientzia-maila ertaina (% 37,2) edo altua (% 33,5) egon dela.

<sup>20</sup> Leonor Walker-ek 1979an definitu zuenez ("The battered woman"), indarkeriaren zikloak hiru fase ditu, eta horiek era zirkularrean errepikatzen dira: tentsio-pilaketa, gertakari larria edo indarkeriaren leherketa, eta damua eta errekontziliazioa.

### Deitzeko arrazoiak eta eginiko esku-hartzeak

Zerbitzuak jasotako deien arrazoiak erregistratzen ditu; dei baten atzean arrazoi bakar bat edo gehiago egon daitezke. Txosten honen erreferentzia-urtean, egindako deien % 36,7 (839) arrazoi bakarrak eragindakoak dira, eta % 63,3 (1.445) arrazoi bat baino gehiagok eragindakoak izan dira.

2024an Zerbitzura egin diren dei gehienetan (% 91,2), laguntza eta jarraipen telefonikoaren beharra egon da. Deien % 58,8an informazioa eskatu da, eta % 56,7an, orientazioa.

Gainera, dei bakoitzean egindako esku-hartzeen kopurua eta mota ere erregistratzen ditu Zerbitzuak. 2024an, jasotako dei guztietan esku-hartze mota bat baino gehiago egin da. Honako taula honetan jasotzen dira egin diren esku-hartzeak eta horien ehunekoak.

**1.23 taula. Zerbitzuan jasotako deietan egindako esku-hartzeak**

|                                         | Kop.  | %    |
|-----------------------------------------|-------|------|
| - Laguntza eta jarraipen telefonikoa    | 2.093 | 91,6 |
| - Euskarri emozionala                   | 1.767 | 77,4 |
| - Informazioa                           | 1.409 | 61,7 |
| - Orientazioa                           | 1.384 | 60,6 |
| - Arreta krisi-egoeran                  | 32    | 1,4  |
| - Larrialdia                            | 16    | 0,7  |
| - Koordinazioa beste zerbitzu batzuekin | 2     | 0,1  |

Oharra: larrialdiko arretak 112 zerbitzuaren esku-hartzea behar du; krisialdiko arreta, berriz, laguntza emozionala izan daiteke larrimin une batean, poliziak edo medikuek premiaz esku hartzeko beharrik gabe.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren datuetan oinarrituta egin da.

Deiaren arrazoiak bat datoz, logikoa denez, Zerbitzuak eginiko esku-hartzeekin. Hala, deien ehuneko handi batean, egindako esku-hartzeetako bat telefono bidezko laguntza eta jarraipena (% 91,6), informazioa (% 61,7) eta orientazioa (% 60,6) dira. Gainera, deien arrazoiaren artean erregistratzen ez den baina deien % 77,4an beharrezko egiten den esku-hartze mota bat ageri da: euskarri emozionala.



### Igorpen- eta bideratze-iturriak

2024an jasotako dei guztietatik % 34,6 Estatuko genero-indarkeriaren arloko informazio eta aholkularitza juridikoko telefono-zerbitzuak (016) igorri du <sup>21</sup>. Zerbitzu horrek 1.619 dei jaso ditu Bizkaitik, eta horietatik % 48,9 zerbitzu autonomikora bideratu dira; zehazki, 791 dei.

Deien % 34,8 barnetik igorritakoa da<sup>22</sup>; izan ere, Zerbitzuak berak laguntza jasotzen jarraitzea animatzen ditu beren egoera konpontzeko bidean aurrera jarrai dezaten. Bestalde, zerbitzuarekin beren kabuz harremanetan jartzen diren pertsonen egindako deiak % 23,5 dira.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, nabarmentzekoa da barnetik igorritako deien igoera (+% 85,9), 367 dei gehiago zenbatu baitira. 016 telefonoaren bidez jasotakoak eta norberaren ekimenez egindakoak ere ugaitu egin dira, % 20,4 eta % 10, hurrenez hurren.

Zerbitzuaren helburuetako bat izanik biktima arreta- eta laguntza-zerbitzu egokiekin harremanetan jartzea, beren beharrianak eta eskaerak kontuan hartuta, dei batzuk beste zerbitzu batzuetara bideratzen dira. 2024an, deien % 43,7 bideratu da beste zerbitzuren batera. Batez ere Biktimei Laguntzeko Zerbitzura (% 24,6), beste zerbitzu juridiko batzuetara (% 15,6), Gizarte Zerbitzuetara (% 13,9) eta berdintasun/Emakume Zerbitzuetara (% 10,9) bideratzen dira.

---


<sup>21</sup> 2008ko otsailean, lankidetzeta-hitzaurrea sinatu zen Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean eta, horren bidez, bermatu egin zen zerbitzu autonomikoari transferitzea genero-indarkeriarekin lotuta 016 zenbakian jaso eta artatu beharreko deiak, dei horiek EAETik egiten direla jakinarazten denean; 016an, estatu mailan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telefono bidezko informazio- eta arreta-zerbitzua ematen da.

<sup>22</sup> Zerbitzu horrek berak aurreko deien proposatzen dio erabiltzaileari berriro deitzeko, behar duenean.

## Deiak egin zituzten pertsonak

Batzuetan, pertsona berak behin baino gehiagotan deitu du Zerbitzura; hori dela eta, 2024an erregistratutako 2.284 deiak **1.243 pertsonak** egin dituzte. Aurreko ekitaldian baino 35 pertsona gehiago zenbatu dira erabiltzaileen artean.

Honako grafiko honetan aztertutako denbora-aldian (2006-2024) zerbitzua erabili duten pertsonen kopuruaren bilakaera ikusten da: 2008an, nabarmen egin zuen gora artatutako pertsonen kopuruak, eta, handik aurrera, mila inguru dira (2009an erregistratu zen zifrarik altuena: 1.286 pertsona). Era berean, ikus daiteke 2024an erregistratutako zifra aldi horretako handienetakoa dela.



(\*) Zerbitzuaren datu-basean egindako aldaketa batek 2011ko eta 2012ko datuen doikuntza desberdina eragin zuen erregistroan eta, beraz, ezin dira erreferentziatzeko aldiaren gainerako urtekoekin alderatu, bilakaeraren ikuspegia izateko.

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta. 2007ko eta 2008ko datuak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila; 2009-2011, Herrizaingo Sailak emanak, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez; 2012, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea; 2013tik, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.

**2024an harremanetan jarri diren hamar lagunetik bederatzi emakumeak dira, Zerbitzua 2006an martxan jarri zenetik gertatu den bezala.**

2024an deiren bat egin duten gizonak guztira 74 dira, alegia, erabiltzaileen % 6 (ehunekoa oso antzekoa da aztertutako aldi osoan zehar). Erabiltzaileei berehalako sarbidea errazten dien 24 orduko zerbitzua denez, aztertutako kopuruek agerian uzten dute beharrezkoa dela herritarrek sensibilizatzeko neurriekin aurrera jarraitzea eta, beharbada, baliabidearen berri emateko kanpainak era espezifikoan orientatzeko aukera baloratzea.

### Deiak egiten dituzten pertsonen profilak

**Hiru profil** ageri dira, zerbitzua erabiltzen duten pertsonen ezaugarrien arabera:

- Indarkeria-egoera sufritzen duten emakumeak.
- Indarkeria-egoera sufritzen duen emakumearen hurbileko edo senitarteko pertsonak.
- Biktima batekin harremana duten edo ez duten profesionalak.

2024an kontsultaren bat egin duten pertsonetatik, **850 indarkeriaren biktima izandako emakumeak dira (% 68,4)**; 286 emakume biktimaren senide edo hurbileko pertsonak dira (% 23); eta 107 profesionalak dira (% 8,6). Azken horietatik, 79 lagun biktimarekin harremanetan dauden profesionalak dira, eta 28 lagun, berriz, biktimarekin harremanik ez duten profesionalak. Azken profil horren kopuru murriz horren arrazoia, Zerbitzuaren ustez, emakume biktimei arreta ematen dieten profesionalen prestakuntza espezializatua gero eta handiagoa izatea izan daiteke.

**Pertsonako deien ratioa** 2023an izandako berdina da, hiru profiletarako: bi dei pertsonako emakume biktimen artean (ratio hori pertsonako hirutik bira jaitsi zen 2013an); eta dei bat pertsonako, beste bi taldeetan.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, emakume biktimen kopurua eta zerbitzuarekin harremanetan jartzen diren hurbileko edo senideen kopurua ez dira asko aldatu: lau emakume biktima gehiago eta hurbileko edo familiako pertsona bat gehiago daude. Profesionalen kasuan, bildutako zifrek % 39ko igoera erakusten dute aurreko ekitaldiarekiko. Zehazki, 107 profesionalak erabili dute zerbitzu hori, aurreko urtean baino 30 gehiagok, eta, beraz, aztertutako aldiko zifrarik handiena erregistratu da.


Zerbitzu honen eskaintza egin den 19 urteetan, azpimarragarria da hurbileko edo senitarteko pertsonen taldearen hazkundera: 2006an deiren bat egin zuten pertsonen % 13,2 izatetik, oraingo % 23; kopuru absolutuei dagokienez, 2024ko datua (286) 2006koa (103) halako hiru da ia. Zenbaki horiek indarkeria sufritzen duten emakumeen **inguruko pertsonen inplikazio handiagoa** adierazten dute.

Emakume biktimen kasuan, gorakada % 39,8koa da (2024an 2006an baino 242 erabiltzaile gehiago zenbatu dira).


2006an, 67 erabiltzaile erregistratu ziren profesionalen dagokien kategorian, eta 2024an, berriz, 107. Aldi horretan, taldearen batez bestekoa 66 pertsona ingurukoa izan da, 37 profesionalakoa izan zelarik 2013an, eta 107koa, 2024an.

**1.43 grafikoa. Telefono bidezko Arreta Zerbitzuaren erabiltzaileen banaketa, profilaren arabera (%).**  
**Alderaketa: 2006-2024.**

(kop.= 778)



(kop.= 1.243)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta: 2006ko datuak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila; 2024ko datuak, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.

## Zerbitzura deitzen duten emakume biktimak

Zerbitzua erabiltzen duten 850 emakumeetatik gehienak (% 87,6) **bikotekidearen edo bikotekide ohiaren** indarkeriaren biktimak dira. Gainera, % 6,6 **sexu-indarkeriaren** biktima izan da, eta % 5,8k **familia barruko genero-indarkeria** jasan du.

Bikotekidearen/bikotekide ohiaren indarkeria jasaten duten emakumeen kasu guztietan **tratu txar psikologikoa** agertzen da, tratu txar mota bat edo hainbat tratu txar mota jaso dituztenen artean. Tratu txar fisikoa kasuen % 54,1ean gertatzen da, % 33,7an tratu txar ekonomikoa, eta % 16,8an, sexuala.

2024an Zerbitzua erabili duen emakume biktimen % 51,2k **adingabeko seme-alabak ditu bere ardurapean**. Kasu horretan dauden 435 emakumeetatik % 63k seme edo alaba bakarra du, eta % 37k, bi edo gehiago.

## 1.8. LAGUNTZA EKONOMIKOAK

### Testuingurua eta egoera orokorra

1/2004 Lege Organikoak, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzkoak<sup>23</sup>, biktimentzako zenbait gizarte-laguntza ditu finkatuta 27. artikuluan, **biktimen eskubide ekonomikak** hizpide dituen kapituluan. Gizarte-laguntza horien helburua da emakumeei biziraupenerako gutxieneko baliabide batzuk ematea, erasotzailearengandik independizatzeko aukera izan dezaten. Genero-indarkeriaren biktimek beren egoera egiaztatu beharko dute, babes-aginduaren bidez, edo genero-indarkeriazko ekintzen ondorioz biktima babesteko neurriak ezartzen dituen kondena-epaiaren bidez; salbuespen gisa, babes-agindua eman arte, salatzailea genero-indarkeriaren biktima izan dela adierazten duten zantzuak jasotzen dituen fiskaltzaren txostena aurkeztu daiteke<sup>24</sup>.

Laguntza ekonomikoa ordainketa bakarrean ematen da, eta jasotzeko aukera dute baliabide nahikorik ez dutela eta lana lortzeko zailtasun bereziak dituztela frogatzen duten emakumeek<sup>25</sup>. Gainera, erasotzailearekiko harremana behin betiko bukatua izan behar dute, eta biktima babestuaren egiaztatzea aurkeztu, indarrean dagoena eta urtebete baino gutxiagoko antzintasuna duena. Horrez gain, gutxienez sei hilabetez EAEn errolatuta egon behar dute, benetako bizilekua bertan izan behar dute, eta laguntza jasotzen duten lehen aldia izan beharko du<sup>26</sup>.

Laguntza horiek bateragarriak dira beste edozein laguntza ekonomikorekin, betiere beste laguntza horiek lortzeko baldintza ez bada genero-indarkeriaren biktima izatea (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria, Gizarte Larrialdiko Laguntzak eta abar). Hori dela eta, ezin izango dute laguntza hau jaso genero-indarkeriaren biktimentzako Gizarteratzeko Errenta Aktiboa jasotzen duten emakumeek<sup>27</sup>.

---

<sup>23</sup> Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako neurriei buruzko Lege Organikoa (abenduaren 28koa, 1/2004 Lege Organikoa) (2004/12/29ko BOE).

<sup>24</sup> Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren 2014ko urriaren 29ko Agindua (genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei dirulaguntzak emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen duena, abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzkoak, 27. artikuluan aurreikusitakoaren arabera) (EHAA, 2014/11/19, 221. zk.).

<sup>25</sup> Lehenengo baldintzari dagokionez, biktimak indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 baino gutxiagoko errenta izan behar du, aparteko bi soldaten zati proportzionalak kenduta. Laguntzaren eskatzaileak familia-erantzukizunak baditu, "errentarik ez izateko baldintza beteko du familia-unitate osoaren hileko errenta zati unitateko kideen kopurua lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 baino handiagoa ez bada" (2011ko maiatzaren 30eko Aginduaren 4. artikulua). Bigarren baldintzari dagokionez (enplegua lortzeko zailtasun bereziak, egoera pertsonal eta sozialengatik), Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez egiaztatuko da (2011ko maiatzaren 30eko Aginduaren 2. artikulua).

<sup>26</sup> 2011ko maiatzaren 30eko Aginduaren bitartez, ezartzen da "laguntza horiek bateragarriak direla administrazio publikoek edo horren edozein organismo, erakunde edo entitatek, baita erakunde pribatuak ere, emandako beste edozein laguntzarekin (esate baterako, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta), baldin eta hori lortzeko baldintza ez bada genero-indarkeriaren biktima izatea" (2011ko maiatzaren 30eko Aginduan sartutako xedapena).

<sup>27</sup> Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioaren azaroaren 24ko 1369/06 Errege Dekretuak arautzen duen laguntza (2006ko abenduaren 5eko BOE, 290 zk.).

Dirulaguntza Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren kargura ematen da, eta EAEko administrazioa arduratuko da laguntza hori emateaz eta ordaintzeaz.

EAEEn, 2024an, Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzari dagokio dirulaguntza horien esleipena eta ordainketa izapidetzea eta ebaztea<sup>28</sup>.

Jasotako eskaera-kopurua eta dirulaguntza jaso zezaketen emakumeen beharrianak ikusita, 2024an, hasiera batean laguntza horietara bideraturiko aurrekontuetako zenbatekoak gora egin zuen ekitaldian aurrera egin ahala; ondorioz, azkenean aurrekontuetan dirulaguntza horretara bideratu den zenbatekoa 2.374.766 € izan da<sup>29</sup> (2.278.080 € gastatu dira). Aurreko urtearekin alderatuta, aurrekontuak % 2,8ko jaitsiera izan du.

## Eskaerak eta ebazpenak

Datuen arabera, 2024an diru-laguntzak jasotzeko **334 eskaera**<sup>30</sup> jaso dira Bizkaitik (EAEko guztien % 54,3); hau da, aurreko urtean baino 10 eskaera gutxiago.

Azterketa ebolutiboaren arabera, nabarmen hazi dira laguntza hauek jasotzeko eskaerak nola Bizkaian hala EAE osoan: 2009ko kopuruaren aldean, Bizkaiko kopurua, 2024an, urte hartakoa halako hamalau da; EAEEn, berriz, urte hartakoa halako bederatzi da eskarien kopurua.

Eskaeren ebazpenei dagokienez, Bizkaian aztertutako 334 eskaeretatik **195 onartu ziren (% 58,4), 71 ukatu ziren (% 21,3) eta 20 bertan behera geratu ziren (% 6,0)**. Ekitaldia amaitzean, **48 eskaera zeuden ebatzi gabe (% 14,4)**.

Hurrengo taulan ikus daitekeen bezala, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eskabideek ebazpenaren arabera duten banaketak ez du aldaketa garrantzitsurik erakusten.

---

<sup>28</sup> 34/2013 Dekretua, abenduaren 2koa, indarrean sartu zenetik (2013/12/10).


<sup>29</sup> 2024ko otsailaren 7ko ebazpena, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarena; horren bitartez jakinarazten da Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko zuzendariak emandako 2014ko urriaren 29ko Aginduan aurreikusitako laguntzarako esleitutako zenbatekoa. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat aurreikusitako laguntza ekonomikoa (Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan, 27. artikuluan ezarria) esleitzeko eta ordaintzeko prozedura zein den ezarri zen agindu horretan. 2024ko azaroaren 6ko ebazpena, Gizarte Zerbitzuetako zuzendariarena; horren bitartez jakinarazten da Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko zuzendariak emandako 2014ko urriaren 29ko Aginduan aurreikusitako laguntzetarako bideratutako kreditua handituko dela 2024ko ekitaldirako. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat aurreikusitako laguntza ekonomikoa (Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan, 27. artikuluan ezarria) esleitzeko eta ordaintzeko prozedura zein den ezarri zen agindu horretan.

<sup>30</sup> Horietatik, 289 eskaera 2024an egin ziren; gainerakoak, 2023an ebatzi gabe geratu eta 2024an izapidetu ziren eskaerak dira.

**1.24 taula. Genero-indarkeriaren biktime diren emakumeentzako diru-laguntzen eskaerak**  
**1/2004 Lege Organikoaren 27. artikuluan aurreikusitakoak, ebazpenaren arabera. BLH. 2009-2024**

|      | Guztira<br>Kop. | Onartuak<br>Kop. (%) | Ukatuak eta<br>bertan behera<br>utziak<br>Kop. (%) | Ebatzi gabeak<br>Kop. (%) |
|------|-----------------|----------------------|----------------------------------------------------|---------------------------|
| 2009 | 24              | 8 (33,3)             | 16 (66,7)                                          | 0 (-)                     |
| 2010 | 39              | 27 (69,2)            | 10 (25,6)                                          | 2 (5,2)                   |
| 2011 | 83              | 39 (47,0)            | 15 (18,1)                                          | 29 (34,9)                 |
| 2012 | 139             | 72 (51,8)            | 33 (23,7)                                          | 34 (24,5)                 |
| 2013 | 117             | 58 (49,6)            | 50 (42,7)                                          | 9 (7,7)                   |
| 2014 | 119             | 72 (60,5)            | 35 (29,4)                                          | 12 (10,1)                 |
| 2015 | 132             | 76 (57,6)            | 43 (32,6)                                          | 13 (9,8)                  |
| 2016 | 126             | 67 (53,2)            | 51 (40,5)                                          | 8 (6,3)                   |
| 2017 | 132             | 76 (57,6)            | 42 (31,8)                                          | 14 (10,6)                 |
| 2018 | 161             | 96 (59,6)            | 55 (34,2)                                          | 10 (6,2)                  |
| 2019 | 224             | 118 (52,7)           | 73 (32,6)                                          | 33 (14,7)                 |
| 2020 | 206             | 121 (58,7)           | 53 (25,7)                                          | 32 (15,5)                 |
| 2021 | 260             | 154 (59,2)           | 84 (32,3)                                          | 22 (8,5)                  |
| 2022 | 253             | 150 (59,3)           | 62 (24,5)                                          | 41 (16,2)                 |
| 2023 | 344             | 200 (58,1)           | 100 (29,1)                                         | 44 (12,8)                 |
| 2024 | 334             | 195 (58,4)           | 91 (27,2)                                          | 48 (14,4)                 |

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egina: 2009-2011, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza. Herrizaingo Saila; 2012, Emakunde; 2013tik, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egina: 2009-2011, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Herrizaingo Saila; 2012, Emakunde; 2013tik, Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila.

Sail kudeatzaileak emandako datuen arabera, eskaerak ukatzeko arrazoiak hauek izan ziren:

- Lanbidek enplegua lortzeko zailtasun berezien txostena egiaztatu ez izana (% 35,2; 25 kasu).
- Genero-indarkeriako egoera ez egiaztatzea aurreikusitako moduan (% 23,9; 17 kasu).
- Ezarritako diru-sarreraren muga gainditzea (% 18,3; 13 kasu).
- Laguntza bateraezinak jaso izana edo laguntza hau lehenago jaso izana (% 16,9; 12 kasu).
- Baldintza bat baino gehiago ez betetzea (% 2,8; bi kasu).
- Beste arrazoi batzuk (% 2,8; bi kasu).


20 eskaera bertan behera geratu dira, hau da, ukatu egin dira, eskatutako agiriak ez direlako behar bezala aurkeztu.

## Laguntzen zenbatekoak eta onuradunen ezaugarriak

Laguntzaren zenbatekoa, oro har, sei hilabeteko langabezia-sariaren baliokidea da, eta zabaldu daiteke hamabi, hemezortzi edo hogeita lau hilabeteri dagozkien kopurura, bi aldagai kontuan izanda: batetik, biktimaren **familia-erantzukizunak** (bere kargu dituen seme-alaben edo ahaideen kopurua), eta bestetik, biktimak nahiz biktimaren ardurapean dagoen pertsonaren batek duen **desgaitasun-maila** (% 33koa edo gehiagokoa).

Taula honetan dirulaguntzen sailkapena ageri da, aipatutako bi aldagaiek eragin dezaketen ahultasun-mailaren arabera:

## 1.2 irudia. Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako dirulaguntzen zenbatekoen sailkapena (1/2004 Lege Organikoa, 27. Artikulua)<sup>31</sup>




2024an, Bizkaian emandako dirulaguntzen zenbatekoa **1.239.660 eurokoa izan da (EAE osoan gastatutakoaren % 54,4)**; hau da, Bizkaian 2023an emandako laguntzen zenbatekoa (1.275.840 €) baino % 2,8 handiagoa.

Jasotako zenbatekoari erreparatuta, honako hauek dira 2024ko dirulaguntzen onuradunen banaketaren ezaugarriak:

- Onuradunen **% 26,7k oinarrizko zenbatekoa** jaso zuen; hau da, langabeziagatik 6 hilean jasotzen den kopurua (2.880 €/ 3.420 €). Aitortutako desgaitasunik eta ardurapeko ahaidetik ez duten emakumeek osatzen dute talde hori. 2024an, inguruabar astungarriak dituzten emakume onuradunen portzentajea **% 73,3koa** da. Nahiz eta 2018az geroztik portzentaje hori jaitsi den, **datuak adierazten du inguruabar astungarriak dituzten emakume onuradunen kopurua handia dela oraindik ere.**

<sup>31</sup> 2024an dirulaguntzen zenbatekoak eguneratu egin dira, langabezia-saria aldatu egin delako.

- Onuradunen % **32,3k** jaso du langabeziako 12 hileko sariaren parekoa (5.760 €/6.660 €). Beren kargu pertsona bat duten emakumeak edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten emakumeak dira.
- Onuradunen % **35,4k** jaso du 18 hilean jasotzen den sariaren parekoa (8.640 €/9.540 €). Ardurapean bi ahaide edo gehiago dituzten emakumeak dira, edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen pertsona baten ardura duten emakumeak; edo beren ardurapean pertsona bat izanik, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten emakumeak.
- Gainerako % **5,6ek** jaso du 24 hilean jasotzen den sariaren parekoa (11.520 €/12.420 €). Dekretuak jasotzen dituen **zaurgarritasun handieneko** bost egoeretako batean daude, beren kargu dituzten pertsonen kopuruagatik eta pertsona horien edo/eta eskaria egin duen pertsonaren desgaitasun-maila handia delako.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren datuetan oinarrituta egina.

Aztertutako datuek erakusten dute genero-indarkeriaren biktima izanik 2024an dirulaguntza jaso duten **hamar emakumetik zazpi** egoera hauetako batean daudela:

- Beren ardurapean ahaideren bat dutenak: % 70,3; 137 emakume.
- % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen pertsona bat ardurapean dutenak: % 0,5, emakume bat.
- % 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duen pertsona bat ardurapean dutenak: % 0,5, emakume bat.

- Beren ardurapean bi pertsona edo gehiago dituzten emakumeak, gutxienez haietako batek % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna izanik: % 3,6, zazpi emakume.
- % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna izanik, pertsona bat beren ardurapean dutenak: % 1, bi emakume.
- % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna izanik, bi pertsona edo gehiago beren ardurapean dituztenak: % 2,6, bost emakume.
- % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna izanik, % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen pertsona bat beren ardurapean dutenak: % 0,5, emakume bat.
- % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna dutenak: % 0,5, emakume bat.

2024an, onuradunen **% 41ek dirulaguntzarik handienak** jaso zituzten (18 eta 24 hilabeteren baliokideak); ehuneko hori aurreko urtekoa baino 2,5 puntu handiagoa da. Balio absolutuei dagokienez, aztertutako aldiko zifrarik handiena erregistratu da, guztira 80 emakumek jasotzen baitituzte laguntza horiek.

2024an, eskaeren erdiak baino gehiago **Gizarte Zerbitzuen bitartez** aurkeztu dira, bide horretatik izapidetu baitira emandako dirulaguntza guztien % 54,9, hots, 107 eskaera. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, Gizarte Zerbitzuen bidez aurkeztutako eskaeren ehunekoak 13,6 puntu jaitsi da. Bestalde, Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Biktimei Laguntzeko Zerbitzuaren bidez iristen diren eskaeren proportzioa % 8tik % 24,6ra igo da. Emakume onuradunen % 20,5ek zuzenean eskatu dute laguntza, eta ehuneko hori egonkor mantendu da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Jaioterriari dagokionez, 2024an, **onuradunen % 60,5 atzeritar jatorrikoak dira**. Zehazki, 20 herrialdeetakoak dira, gehienak Latinoamerikakoak (% 77,1). Afrikako herrialdeetan jaiotako emakumeek kasuen % 17,8 dira, eta Europako herrialdeetan jaiotakoak, berriz, % 5,1.

Adinari dagokionez, dirulaguntza jaso duten emakumeen **% 67,2k ez ditu 40 urte baino gehiago**. 18-30 eta 31-40 urte tartean daude emakume gehien: lehenengoan 62 emakume daude (% 32,3), eta bigarrenean, 68 (% 34,9). 41-50 tartean ere emakume asko daude; 51 emakume, zehazki (% 26,2). Azkenik, 51-64 tartean, zortzi emakume daude (% 4,1), eta bost dira 64 urtetik gorakoak (% 2,6).

Dirulaguntzen eskatzaileak lurraldeko **42 udalerritan** bizi diren emakumeak dira. Aurreko urteetan bezala, biztanle-kopuruaren aldetik udalerrri horiek oso heterogeneoak direnez, pentsatzekoa da aurkeztutako eskaeren banaketa horretan biztanleriarekin lotutako ezaugarriak ez direla arrazoi bakarrak, eta laguntza hauen berri gehiago edo gutxiago izatea ere izan daitekeela arrazoi horietako bat.

Onartutako eskaerak **36 udalerritako** emakumeen artean banatzen dira. **Onartutako dirulaguntzen erdia gutxi gorabehera Bilbon (% 40) eta Barakaldon (% 8,7) bizi diren emakumeei dagokie.**

**1.25 taula. Onartutako eskaerak, eskatzailea bizi den udalerraren arabera. BLH. 2024**

|                   | Kop. | %     | Onartuen %, eskaeren gain* |
|-------------------|------|-------|----------------------------|
| Abadiño           | 1    | 0,5   | 50,0                       |
| Amorebieta-Etxano | 4    | 2,1   | 80,0                       |
| Areatza           | 1    | 0,5   | 100,0                      |
| Arrigorriaga      | 1    | 0,5   | 33,3                       |
| Balmaseda         | 1    | 0,5   | 100,0                      |
| Barakaldo         | 17   | 8,7   | 53,1                       |
| Basauri           | 5    | 2,6   | 45,5                       |
| Bedia             | 1    | 0,5   | 100,0                      |
| Bermeo            | 4    | 2,1   | 50,0                       |
| Bilbo             | 78   | 40,0  | 60,9                       |
| Derio             | 1    | 0,5   | 100,0                      |
| Durango           | 9    | 4,6   | 100,0                      |
| Elorrio           | 2    | 1,0   | 100,0                      |
| Erandio           | 4    | 2,1   | 50,0                       |
| Ermua             | 3    | 1,5   | 75,0                       |
| Galdakao          | 1    | 0,5   | 50,0                       |
| Galdames          | 1    | 0,5   | 100,0                      |
| Gernika-Lumo      | 1    | 0,5   | 100,0                      |
| Getxo             | 10   | 5,1   | 52,6                       |
| Güeñes            | 1    | 0,5   | 50,0                       |
| Lanestosa         | 1    | 0,5   | 100,0                      |
| Leioa             | 4    | 2,1   | 44,4                       |
| Lemoa             | 1    | 0,5   | 33,3                       |
| Lezama            | 1    | 0,5   | 50,0                       |
| Mallabia          | 1    | 0,5   | 100,0                      |
| Markina-Xemein    | 3    | 1,5   | 37,5                       |
| Mungia            | 2    | 1,0   | 100,0                      |
| Ondarroa          | 1    | 0,5   | 100,0                      |
| Ortuella          | 4    | 2,1   | 80,0                       |
| Portugalete       | 5    | 2,6   | 35,7                       |
| Santurtzi         | 11   | 5,6   | 57,9                       |
| Sestao            | 7    | 3,6   | 70,0                       |
| Ugao-Miraballes   | 1    | 0,5   | 33,3                       |
| Zaldibar          | 1    | 0,5   | 100,0                      |
| Zalla             | 1    | 0,5   | 100,0                      |
| Zamudio           | 5    | 2,6   | 100,0                      |
| BLHan, GUZTIRA    | 195  | 100,0 | 58,4                       |

\* Udalerrri horretako emakumeek aurkeztutako eskaeren kopuruaren gain.

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren datuetan oinarrituta egina.

## 1.9. ETXEBIZITZA-ARLOKO LAGUNTZAK

### Testuingurua eta egoera orokorra

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako neurriei buruzko 1/2004 Lege Organikoak<sup>32</sup> honako dio 28. artikuluan, *Nagusientzako etxebizitza eta egoitza publikoetan sartzeko aukerari buruzkoan: “Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak lehentasunezko talde moduan hartuko dira, nagusientzako babes-etxebizitzetan eta egoitza publikoetan sartzeari dagokionez, aplikagarri den legeriak ezarritakoaren arabera”.*

Euskal Autonomia Erkidegoan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legeak) –**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea**, martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 1. artikulua ezartzen duenaren arabera– honela dio 58. artikuluan 1. atalean: *“EAEko administrazio publikoek, funts publikoekin finantzatutako etxebizitzetarako sarbidean, bermatu behar dute lehentasuna emango zaiela emakumeen kontrako edonolako indarkeria matxista pairatzen duten biktimei, baldin eta indarkeriaren ondorioz prekaritate ekonomikoan badaude edo etxebizitza bat izatea beharrezkoa badute indarberritzeko”.*

Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei etxebizitza babestua eskaintzeko Jarduketa Plana (2004an onartua) jaso zuen Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Agindua<sup>33</sup> (genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboak buruzkoak). Agindu horretan, neurri hauek ezarri ziren:

- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei Etxebizitza Hutsaren Programako etxebizitza bat zuzenean esleitzea, alokairu-erregimenean. Neurri hori honako hauentzat da: udal edo foru-aldundiko harrera-etxeen eta -zentroen erabiltzaileentzat, beren egonaldi-denbora amaitu eta gero, denboraldi batean etxea bilatzen aritu arren lortu ez badute. Eskatzailea bizi den udalerriko alkateak edo arlo horretako zinegotzi arduradunak sinatu beharko du eskaera, edo Foru Aldundiak, bestela. Eskaerarekin batera, gizarte-zerbitzuen txosten teknikoak ere aurkeztu beharko da.
- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak babes ofizialeko etxebizitzetan alokairu-erregimeneko esleipen-prozeduretan sartzeari, adingabeko seme-alaben ardura duten guraso bakarrek unitateen kupoan.

---

<sup>32</sup> 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero-indarkeriaren aurkako babes osoko neurriei buruzkoa (2004/12/28ko BOE)

<sup>33</sup> 2006ko urriaren 4ko Agindua, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruzkoa (EHAA, 2006/10/11)

**Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua<sup>34</sup> (etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoak),** aldatu egiten du aurreko agindua; hala, desagertu egiten dira alokairu-erregimeneko Babes Ofizialeko Etxebizitzen zozketak, eta, ondorioz, baita genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei adingabeko seme-alaben ardura duten guraso bakarreko unitateen kupoan esleitzea ere.

Neurri horren ordez, hainbat irizpidetan oinarritutako baremazio bat ezartzen da. Irizpide horietako bat da etxebizitza-premia bereziak dituen kolektibo bateko kide izatea, eta kolektibo horien artean dago genero-indarkeriaren biktima diren emakumeena. Alokairu-erregimeneko Babes Ofizialeko Etxebizitzen promozioetan, biktima direla frogatzen dutenei 10 puntu emango zaizkie baremazioan.

Hala, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako ekintza positiborako bi neurri daude gaur egun etxebizitzaren alorrean. Hauek dira:

- **Alokairu-erregimeneko etxeak zuzenean esleitzea egoera larrietan eta salbuespen-egoeretan, eskatzailea udal edo foru-aldundiko harrera-etxeen edo -zentroen erabiltzailea izan den ala ez kontuan hartuta,** bere egonaldi-denbora amaitu eta gero, denboraldi batean etxea bilatzen aritu arren lortu ez badu. Eskatzailea bizi den udalerriko alkateak edo arlo horretako zinegotzi arduradunak sinatu beharko du eskaera, edo Foru Aldundiak, bestela. Eskaerarekin batera, gizarte-zerbitzuen txosten teknikoa ere aurkeztu beharko da.
- **Alokairu-erregimeneko Babes Ofizialeko Etxebizitzen promozioetan 10 puntu emango zaizkie baremazioan.**

---

<sup>34</sup> 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa (EHAA, 2012/10/31)

## Neurriak aplikatzea

### 1. Alokairu-erregimeneko etxeak zuzenean esleitzea egoera larrietan eta salbuespen-egoeretan, eskatzailea udalaren edo Foru Aldundiaren harrera-etxeen edo -zentroen erabiltzailea izan den kontuan hartuz.

2024an, genero-indarkeriaren biktime diren emakumezkoei alokairuko etxebizitzak zuzenean esleitzeko **55 eskari** izapidetu dira EAEn. Oraingoan ez da eskaerarik ebatzi gabe geratu, eta erantzundako eskabide guztiak onartu dira.

EAEn onartutako **eskaeretatik 28** Bizkaian egindakoak izan dira (% 50,9). Eskariak Bizkaiko Foru Aldundiak (13), Bilboko Udalak (9), Amorebieta-Etxanoko Udalak (2), Arrigorriagako Udalak (1), Durangoko Udalak (1) Sestaoko Udalak (1) eta Enkarterriko Udalen Mankomunitateak (1) egin zituzten. 2024an, erantzundako eskaera guztiak onetsi dira.

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, esleipen kopuruak bere horretan iraun du, bai EAEn, bai Bizkaian. Bi kasuetan 2023an baino esleipen bat gehiago egin da.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. 2007ko eta 2008ko datuak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila; 2009-2011, Herrizaingo Sailak emanak, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren bitartez; 2012, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea; 2013tik aurrerakoak, Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila.


## Onuradunen ezaugarriak

- **Adinari** dagokionez, 2024an onuradunen % 57,1 ez dira 40 urtera iristen. Eskaeren % 32,1 egin dituzte 30 urteko edo gutxiagoko emakumek; 31-40 urte bitartekoek egin dituzte esleipendun eskaeren % 25; eskaeren % 32,1 egin dituzte 41-50 urte bitarteko emakumeek; 51-64 urte bitartekoak % 7,1 izan dira, eta 64 urtetik gorakoak, berriz, % 3,6 izan dira.
- **Jatorriaren** arabera, 28 eskaeretatik % 67,9 (19 eskaera) atzerriko herrialdeetan jaiotako emakumeei dagokie; portzentaje hori, beste urte batez, jaitsi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta.
- **Bizikidetza-unitatearen (BU) tamainari** dagokionez, pertsona bakarreko familien 12 kasu erregistratu dira. Gainerakoak bi, hiru, lau eta bost pertsonako familiak izan dira.

## 2. Puntu gehigarriak ematea alokairu-erregimeneko Babes Ofizialeko Etxebizitzen promozioetako baremazioetan.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen egoera hobetzera bideraturiko etxebizitzaren arloko bigarren laguntza-neurria, 2012ko urriaren 15ko Aginduak araupetzen duena, honako hau da: alokairu-erregimeneko Babes Ofizialeko Etxebizitzen promozioetan 10 puntu ematea biktima horiei. Nabarmendu denez, neurri horrek ordezkatu egiten du aurrekoa, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak adingabeko seme-alabak beren kargu dituzten guraso bakarreko familien kupoan sartzen zituena, hain zuzen ere. Kupoaren neurri hori alokairu-erregimeneko babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen-prozedurak gauzatzeko aplikatzen zen, aipatu Agindua argitaratu zen arte.

Neurri horri dagokionez, 2024ko abenduaren 31ko datuen arabera, **Etxebiden** (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua) genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeen **1.067 espediente aktibo** daude Bizkaian, **aztertutako denbora-aldiko bolumen handiena**. Neurri hori abian jarri zenetik, espediente aktiboen kopurua nabarmen handitu da. Datua 2013koarekin alderatuz gero, % 245,3ko hazkundera ikus daiteke. 2023koarekin alderatuta, espediente aktiboen bolumena % 18,2 igo da, 164 espediente gehiago zenbatu baitira.



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren datuetan oinarrituta egin da. Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila

2024an **197 alta** zenbatu ziren. Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, zifrek % 30,4ko jaitsiera erakusten dute: 2023an 283 erregistratu ziren, eta 2024an, berriz, 197.

Bestalde, 2024an, neurri honen bidez alokairuko etxebizitzaren esleipenduna lortu zituzten emakumeak 52 izan ziren, aurreko urtean baino zazpi gutxiago.

Jarraian, Etxebiden espediente aktiboa duten genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen ezaugarri nagusiak adierazi dira (datuak 2024ko abenduaren 31koak dira, zehazki). Horrez gain, urtean zehar erregistratutako altak ere ageri dira, bai eta 2024an alokairu-erregimenean etxebizitza bat jaso duten emakumeei buruzko datuak ere (bi kasuetan, urte osoko datuak dira).

### Bizikidetzaren unitatearen (BU) eraketa

- **Espediente aktibo** gehienak bi edo hiru kideko BU batean bizi diren emakumeen eginikoak dira (% 35,4 eta % 23,1, hurrenez hurren). Pertsona bakarreko familien espedienteak % 29,8 dira.

Familia-talde horiek eratzen dituzten **ahaidetasun-harremanak** askotarikoak dira eta, genero-indarkeriaren biktimak egoera egiaztatzen duen emakume bati dagokionez, honako hauek hartzen dituzte barne: ezkontide edo bikotekideak; ondorengoak (seme-alabak; bilobak); aurrekoak (aita-amak) eta bestelako familia-harremanak. Semeei buruzko kopurua nabarmentzen da: espediente guztien artean 1.369 ageri dira.

2024ko abenduaren 31ko datuen arabera, esan dezakegu genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek etxebizitza lortzeko laguntza horrek 2.506 pertsonarengan duela eragin potentziala, espedienteen titularrak diren emakumeak eta ahaideak (haien bizikidetza-unitatean daudenak) kontuan hartuta.

- Urtean egindako etxebizitzan 52 **esleipenetatik**, % 73,1 **ahaidedun emakumeei** dagozkie (seme-alabak, egungo ezkontidea edo bikotekidea, eta/edo beste lotura batzuk); Portzentaje hori % 88,1 izatera iritsi zen 2023an.

Hala, aurreko ataleko gauza bera aintzat hartuta, 52 emakumeei egindako etxebizitza-esleipenek zuzeneko eragina izan dute genero-indarkeria egoera batean inplikaturako 67 pertsonarengan ere.

Familia-talde horietako kide-kopurua dela eta, proportziorik altuenak bi kideko (% 36,5) eta hiru kideko (% 25,0) BUEi dagozkie. Eskaeren % 3,8 lau kideko bizikidetza-unitateei dagokie, eta % 7,7, bost kidek osatutako familiei. Bestalde, esleipenen % 26,9 pertsona bakarreko familiei dagokie, eta proportzio hori, alde handiarekin, aztertutako aldiko handiena da (2016-2024).

- **Erregistro berrien** kasuan (197 alta), % 62,4 senideekin, ezkontideekin edo bikotekideekin bizi diren emakumeei dagokie, eta % 37,6 ahaidetik gabeko emakumeei. Azken hori da aztertutako aldiko proportziorik handiena. Bi (% 33) eta hiru (% 21,8) pertsonako bizikidetza-unitateei dagozkie erregistro gehienak. Lau pertsonak osatutako familiek espedienteen % 4,6 betetzen dute, eta bost pertsonak osatutakoek, % 3.

## Erroldatzea

- 2024an, Etxebideko **espediente aktiboen** parte handi bat Bilbon (% 42), Barakaldon (% 8,9), Santurtzin (% 5,7) eta Basaurin (% 5,3) erroldatutako emakumeei dagokie. Guztira, 70 udalerritan erroldatutako emakumeen eskaerak erregistratu dira.
- Urtean zehar erregistratutako **etxebizitza-esleipenak** 20 udalerritako emakumeen artean daude banatuta. Esleipenen erdiak Bilboko udalerrian biltzen dira. Gainerakoak 19 udalerrietan banatzen da, modu nahiko homogeneoan.

- 2024an erregistratutako **197 altak** 37 udalerritan erroldatutako emakumeei dagozkie. Aurreko ekitaldietan bezala, Bilbo da emakume esleipendun gehien biltzen dituen udalerria (% 46,7), eta, atzetik, askoz ehuneko txikiagoekin, Barakaldo (% 6,1), Santurtzi (% 5,6) eta Getxo (% 5,6) daude.

## Adina

- Urtean zehar erregistratutako **espediente aktiboetan, 31-50 urte bitarteko** emakumeak dira maiztasun handienekoak (% 66,9). 31-40 urte bitartekoen espedienteak % 36,2 dira, eta 41-50 urte bitartekoen espedienteak, % 30,7.
- **Esleipenen** % 78,8 dagozkie 18-50 urte bitarteko emakumeei, eta horietatik gehienak (% 32,7) 41-50 urte bitartekoenak dira. Gainerako % 46,2a berdin banatzen da 18-30 eta 31-40 urte bitartekoen artean.
- **Erregistro berriei** dagokienez, gehienak (% 71) 31-40 urte bitarteko emakumeen (% 32,5) eta 41-50 urte bitarteko emakumeen (% 28,4) artean banatzen dira.

## Nazionalitatea

- Espediente **aktiboetatik**, 370 emakume atzerritarrei dagozkie (% 34,7), eta 34 nazionalitatetakoak dira. Atzerritarren espedienteen % 67 Latinoamerikako herrialdeetako nazionalitateei dagozkie. Nahiz eta aurreko ekitaldi batzuetan Maroko izan zen kopuruz herrialde garrantzitsuena, 2024an Kolonbia da espediente aktibo gehien biltzen dituen, atzerritarren espedienteen % 18,9 biltzen baititu. Afrikako herrialdeek espedienteen % 23 biltzen dituzte; Europako herrialdeek, % 6,5, eta Asiakoek, % 1,4.
- 2024an etxebizitza **esleitu** zitzaien emakumeen artean, atzerritarren ehunekoa guztizkoaren % 34,6 da. Erdiak Latinoamerikatik etorritako emakumeak dira; % 38,9, Afrikatik etorritakoak, eta % 11,1, Europatik etorritakoak.
- **Altak** direla eta, erregistro berrien % 38,6 emakume atzerritarrei dagokie, eta jatorria honela dago banatuta, herritartasunaren arabera: Latinoamerika (% 64,5), Afrika (% 26,3), Europa (% 2,6), eta Asia (% 1,3)

## Desgaitasuna

- **Espediente aktiboen** % 3,7 (40 espediente) eta **erregistro berrien** % 3,6 (7 espediente) desgaitasunen bat duten emakumeei dagokie. Proportzio hori % 7,7koa da **esleितutako eskaeren kasuan** (4 espediente).

## 1.10. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko Lege Organikoak (abenduarien 28ko 1/2004 LO) hainbat neurri jasotzen ditu; besteak beste, enplegua lortzeko zerbitzu publikoetan izena eman duten biktimak langabeentzat.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 22. artikulua<sup>35</sup> betez, **azaroaren 21eko 1917/2008 Errege Dekretuak Enplegurako Zerbitzu Publikoetan enplegu-eskatzailerik gisa izena eman duten genero-indarkeriaren emakume biktimak gizarteratzeko eta laneratzeko programa bat onartzen du.** Programa horrek enplegu-politika aktiboen neurri batzuk jasotzen ditu: besteak beste, teknikari espezializatu batek emandako bakarkako orientazioa, prestakuntza-programa espezifikoak, nork bere kasa jarduera bat abiarazteko pizgarriak, eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak kontratatzen dituzten enpresentzat pizgarriak<sup>36</sup>. Horrez gain, Enplegurako lanbide-heziketaren azpisistema arautzen duen Errege Dekretuak (martxoaren 23ko 395/2007 ED) genero-indarkeria jasan duten emakumeen kolektiboari lehentasuna ematen dio langabeentzako prestakuntza-ekintzak jasotzeko.

Bestalde, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasun efektiboari buruzko Lege Organikoak (martxoaren 22ko 3/2007 LO)** politika aktiboak garatzea aurreikusten du berdintasunaren printzipioa lortzeko. Horien artean jasotzen da, lan-arloaren barruan, gizarteratzeko eta laneratzeko programek lehentasuna eman behar diotela zaurgarritasun-egoera berezian dauden emakumeei; esaterako, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeei<sup>37</sup>.

Gainera, EAEn, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak (otsailaren 18ko 4/2005 Legea) —**Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea**, martxoaren 3ko 1/2022 Legearen 1. artikulua ezartzen duenaren arabera— ezartzen du emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimek lehentasunezko eskubidea izango dutela “haien profiletara egokitzen diren eta erabat edo partzialki EAEko administrazio publikoetako funtsekin finantzatuta dauden enplegurako prestakuntza-ikastaroak egiteko”<sup>38</sup>.

<sup>35</sup> Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 22. artikulua: “Espainiako Erresumaren Enplegu Planaren esparrura bilduko da genero-indarkeriaren biktimentzako ekintza bereziko programa, betiere, biktimak horiek enplegu-eskatzailerik gisa inskribatuta badaude”.

<sup>36</sup> Estatuko Enpleguaren Zerbitzu Publikoak eta enplegurako politika aktiboak kudeatzeko eskumena duten autonomia-erkidegoek, esaterako EAEk (Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua), izango dute laguntza horiek kudeatzeko ardura.

<sup>37</sup> Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, 42. artikulua, 2. atala.

<sup>38</sup> Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, 58. artikulua, 2. atala.

Bestalde, gizarteratzeko eta laneratzeko baliabideen artean dago Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta: “oinarrizko premiei lotutako gastuei eta laneratzeko edo gizarteratze-prozesu baten ondoriozko gastuei aurre egiteko adina diru-sarrerarik ez duen bizikidetzaren unitate bateko kideentzako prestazio ekonomikoa”<sup>39</sup>. Horri lotuta, **Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko dekretuak (maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua)** hainbat salbuespen ezartzen ditu. Salbuespen horiei esker, malgutu egiten dira prestazioa lortzeko baldintzak genero-indarkeriaren biktimaren emakumeentzat; esate baterako, nahikoa da urtebete erroldatuta egotea (hiru urtez erroldatuta egotea eskatu ordez), ez da eskatzen urtebeteko bizikidetzaren independenterik, gutxienezko adina 18 urte da (23 urte izatea eskatzen da oro har) eta abar.

## Genero-indarkeriaren biktimaren emakume enplegu-eskatzailak

2024an, Lanbiden, genero-indarkeriaren biktimaren emakume ageri dira enplegu-eskatzaila gisa Bizkaian; hau da, EAE enregistratutako biktimen % 51 (1.767). 2023. urtearekin alderatuta, Bizkaian enregistratutako emakumezko biktimen bolumena % 5,1 igo da, eta, beraz, 44 emakume gehiago dira.

### 2024ko erregistro berriak (altak)

Lanbiden enregistratutako emakume biktimen guztizko bolumenak gora egin du aurreko ekitaldiarekin alderatuta, baina zifrek erregistro berrien beherakada erakusten dute. 2023. urtearekin alderatuta, alta-kopurua % 2,8 jaitsi da, zehazki 410 alta zenbatu dira. Adierazi behar da erregistro berri horietako asko (203) Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten emakumeak direla.

Bai EAE osoan, bai Bizkaian, erregistro berri gehienak langabezian dauden emakumeei dagozkie (% 84,6 eta % 86,3, hurrenez hurren).

**Taula. 1.26. Genero-indarkeriaren biktimaren izanik Lanbiden enplegua eskatzen duten emakumeen alta-kopurua. 2024**


|                                                        | Guztira            | Langabezian        | %    |
|--------------------------------------------------------|--------------------|--------------------|------|
| Bizkaia                                                | 410                | 354                | 86,3 |
| EAE                                                    | 797                | 674                | 84,6 |
| <i><b>Bizkaiaren ehunekoa, EAE osoaren gainean</b></i> | <i><b>51,4</b></i> | <i><b>52,5</b></i> | -    |

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren datuetan oinarrituta egina.

<sup>39</sup> 14/2022 Legea, azaroaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzen duena.

**Jaioterria** kontuan hartuta, emakumeen % 47,8 atzerriko herrialderen batean jaio da. 2024an, Latinoamerikako herrialdeetan jaiotako emakumeak nagusitzen dira (kasuen % 67,3). Eta hurrena, Afrikako herrialdeetatik etorritakoak dira gehien (% 21,9). Europako herrialdeetatik etorritako emakumeak % 8,7 dira, eta Asiatik etorritakoak dira gainerako % 1,5. Guztira, 25 herrialdeetatik etorritako emakumeak dira.

**Adinari** dagokionez, 2024an, 40 urtetik beherako emakumeak % 64,1 dira. 18 urtetik beherako gazteen espedienteak % 0,7 dira; 18 eta 30 urte arteko emakumeenak, % 31 dira; 31 eta 40 urte arteko emakumeenak, % 32,4 dira; 41 eta 50 urte artekoenak % 25,6 dira, eta 51 eta 64 urte artekoen kasuak, % 9,5. 2024an, 65 urteko edo gehiagoko emakumeak ere badaude (% 0,7).



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailaren datuetan oinarrituta egina.

Bizi diren udalerriei dagokienez, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeen erregistro berriak 51 udalerritan banatzen dira. Emakume gehienak Bilbon bizi dira (% 44,9). Barakaldon izan ezik (% 8,8), gainerako udalerrietan ehunekoak ez dira % 5era iristen.

Azkenik, 2024an, Lanbiden erregistratutako 410 alta berrietatik % 3,7k desgaitasunen bat duten emakumeei dagokie.

## Enplegurako politika aktiboen neurriak ezartzea

EAEko enplegu-politika aktiboen neurriak kudeatzea eta aplikatzea (arlo horretan eskumena duen autonomia-erkidegoa den aldetik) Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokio<sup>40</sup>.

Politika horien artean, honako hauek nabarmentzen dira: batetik, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen prestakuntzaren alde egiten dutenak, langabeentzako prestakuntza-ekintzetan lehentasuna emanez<sup>41</sup>, eta, bestetik, emakume horiek kontratatzea sustatzen dutenak, esaterako, enpresa kontratatzaileei pizgarriak emanez.

Lanbidek emandako datuen arabera, 2024an genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako 887 lan-kontratu erregistratu ziren EAE osoan. Kontratuak 385 enpresaren eta 390 emakumeren artekoak izan ziren (erregistratutako emakume guztien % 22,1).

EAEen zenbatutako kontratuen erdiak baino gehiago Bizkaian egin ziren, 486 hain zuzen ere. Kasu horretan, 230 enpresak 186 emakume kontratatu zituzten (guztizkoaren % 20,6).

Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako informazioaren arabera, 2024an ez da lankidetzahitzarmenik sinatu enpresekin Bizkaian genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen kontratazioa errazteko.

Aipatutako politikez gain, garrantzitsua da genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako zerbitzuaren arreta-prozedura azpimarratzea; izan ere, prozedura horretan, tutore batek (genero-indarkerian espezializatutako pertsona batek) artatzen ditu biktimak<sup>42</sup>, emakume bakoitzaren kasuaren jarraipena egiten du, eta eskura dituen ekintza-neurri guztiak jakinarazten dizkio, espazio seguru eta intimoenean, enplegu-bulego bakoitzeko baldintza fisikoak kontuan hartuta. Prozedura horretan, emakumeei jakinarazten zaie beren datuak ezkutatze eska dezaketela; horretarako, konfidentziasun-adierazle bat dago Zerbitzuaren datu-basean, eta emakumeek egokitzen jotzen dutenean aktibatu eta desaktibatu daiteke. Hala egiten duten emakumeekin SMS mezuen bidez edo kasuaren jarraipena egiten duen tutorearen bidez jartzen da harremanetan Lanbide.

<sup>40</sup> EAEen, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua da enpleguko politika aktiboen arloan eskumena duen erakundea. Enpleguaren Legearen Testu Bategina onartzen duen urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren III. tituluko II. kapituluko 36. artikulua hau dio: "enplegu-politika aktiboak orientazio, enplegu eta lan-eremuko enplegurako lanbide-prestakuntzako programa eta zerbitzuen multzoa dira".

<sup>41</sup> EAEen ez dago genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako prestakuntza-programa espezifikorik, baina kolektibo gisa lehentasuna ematen zaie bereziki langabeentzat pentsatuta egiten diren prestakuntza-ekintzen hautaketa-prozesuetan. Hala adierazten da 2016ko ekainaren 15eko Ebazpenak onartutako Lanbideren Deialdian (lehentasunez langabeei zuzendutako prestakuntza-ekintzetarako diru-laguntzei buruzkoan), bai eta kudeaketa-gomendioari buruzko 2016ko akordioan ere (Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren artekoan).

<sup>42</sup> Lanbideren bulego guztiek tutore bat dute gutxienez, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko. Koordinazio-figura bat ere badago, laguntza teknikoak emateko eta tutoreen etengabeko prestakuntza kudeatzeko.



Biktima diren emakumeek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) eskatzen dutenean, Lanbidek lehentasuna ematen die, beren egoerara egokituta. Izan ere, DSBE xedatzen duen araudiak hainbat salbuespen ezartzen ditu kolektibo horren alde. Salbuespen horiei esker, malgutu egiten dira prestazioa lortzeko baldintzak. Horrez gainera, hitzordua eskatzeko zerbitzua eskaintzen du, eta bulegoz aldatzeko aukera, erasotzaileak eta biktimak bulego bera badute. Era berean, tratamendu berezia jasotzen dute gai hauetan: mantenu-pentsioan, ezkontideak banantzeko epeetan, Etxebizitzarako Prestazio Osagarrian (EPO), eta abarretan.

## 1.11. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUME ATZERRITARRENTZAKO ALDI BATERAKO BIZILEKU- ETA LAN-BAIMENA

### Testuingurua eta egoera orokorra

Genero-indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrek, beren egoera administratiboa edozein dela ere, bermatuta dituzte Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriek buruzko Lege Organikoan (abenduaren 28ko 1/2004 LO) zehazten diren eskubideak, bai eta gaur egun indarrean dagoen legedian ezarritako babes- eta segurtasun-neurriak ere. Eskubide horiek bermatzeko, urtarilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoak (Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzkoak) xedatzen du Espainian egoera irregularrean dauden eta genero-indarkeriaren biktima<sup>43</sup> diren emakume atzerritarrek aldi baterako bizileku- eta lan-baimenak eska ditzaketela salbuespenezko egoera<sup>44</sup> argudiatuz, eta baimen horiek bost urteko iraupena izango dutela. Halaber, emakume horien adin txikiko seme-alabek edo desgaitasunen bat duten seme-alabek ere, salaketaren unean Espainian egonez gero, bizileku-baimena lor dezakete, eta 16 urte baino gehiago izanez gero, bizileku- zein lan-baimenak lor ditzakete.

### Emandako baimenak


2024an zehar, genero-indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrentzako aldi baterako 237 bizileku- eta lan-baimen eman dira Bizkaian, EAEn emandako 592 baimenen % 40.

